



Jeanne-Rolande
Dacognari
elkarrizketa

Fagor Etxetresna
Elektrikoen itxiera,
gertutik




"ZURIK EZ DIRA ONDO SENDATZEN EGIARIK ETA AITORTZARIK EZ BADAGO"

Aita erail eta 45 urtera, biktima aitortza
ofizialaren eske segitzen dute Iñaki Etxaberen
senideek; Arrasateko Udalak gaur omenduko
ditu Iñaki Etxabe eta German Agirre, 1975eko
urrian erail zituzten herritarrak / 10

Ainhoa eta Olatz
Etxabe, Batallon
Vasco Españolek
1975eko urrian
Kanpanzarren
eraildako Iñaki
Etxaberen alabak,
Arrasateko Herriko
Plazan.

XABIER URTZELAI



Pilak bete- bete eginda, berrituta dator udazkenean Goiena telebista

Saio eta plato berriak
eta herritarren parte
hartzea dira Goienaren
berritasunak / 23

Hemen
garbiketak

Inoiz baino garrantzitsuagoa
**ZURE KONFIANTZAKO
GARBIKETA ENPRESA**

ESKORIATZA
T.- 943 71 48 45
www.hemen-garbiketak.com
hemen@hemen-garbiketak.com

SKODA KODIAQ

DISFRUTATU TEKNOLOGIAZ!

Udalaitz

Gipuzkoa etorbidea, 30 • ARRASATE • 943 71 18 70

Hilabeterik txarrena izan da iraila, 400 kutsatu baino gehiagorekin

Azken astean 125 positibo berri baieztatu dituzte bailaran. Antzuolan erregistratutako positibo kopuruak -23- kezka sortu du herrian. Bestalde, txertaketa-kanpaina "harrera ona" izaten ari da; arrisku taldeetakoak hasiak dira txertoa hartzen

Maialen Santos ARRASATE

Eusko Jaurlaritzak aditzera emandako datuen arabera, joan den egunen eguzten honetara arte 125 positibo berri baieztatu dituzte Debagoieneran, eta hogeitik gora positibo izan dituzte Bergaran, Arrasaten, Oñatin eta Antzuolan. Nabarmen-terekoa da azken herri horretan inoizko gorakadarik nabarmenena gertatu dela azken astean.

Zehazki, asteburuan erregistratu dira kutsatze kasu gehienak, egubakoitzetik astelehenera bitarte egindako PCR probek 81 positibo hauteman baitituzte bailaran. Gauzak horrela, osasun krisia hasi zenetik 1.373 pertsona kutsatu ditu birusak, denera.

Bestetik, iraila izan da orain arteko hilabeterik txarrena. Datuei erreparatuta, 403 kutsatze berri erregistratu ziren bailaran hilabete horretan; aurreko hilabetearekin alderatuta, bikoitza baino gehiago -abuztuan 187 izan ziren-. Arrasaten baieztatu ziren positibo gehien irailan; zehazki, 170. Eta Bergara izan zen bigarren herri kolpatuena -108 positiborekin-. Irailaren 17an egindako PCR probek hauteman zuten, gainera, pandemia hasi zenetik Leintz Gatzagan erregistratu duten kasu positibo bakarra.

PCR KOPURUAK, GORA

OHIKO PCR KOPURUA BIKOIZTU EGIN DUTE OÑATIN, ZENBAIT EGUNETAN

Azken egunetan ohi baino PCR proba gehiago egiten ari direla eman dute aditzera Oñatiko osasun zentroko arduradunek. Joan den asteetan, egunero 40 PCR inguru egiten zituzten; eta

aste honetako zenbait egunetan, aldiz, 100 baino gehiago egin dituztela azaldu dute. Osasun etxetik esan dutenez, asteburuan izandako positiboek kontaktu zuzen asko izan dituztela adierazi dezake PCR proben gorakada horrek.

ZAHARREN EGOITZAK

13 KUTSATU DAUDE BERGARAKO MIZPIRUALDE ADINEKOEN EGOITZAN

Gipuzkoako Foru Aldundiak eguzten honetara arte aditzera emandako datuen arabera, hamahiru dira Bergarako Mizpirualde adinekoen egoitzan kutsatuta dauden egoiliarak. Azken astean, gainera, bost egoiliar hil dira koronabirusak jota. Pandemia hasi zenetik, irailaren 16an hauteman zuten lehen positiboa egoitza horretan, eta Debagoieneran kutsatuen kasuak dituen egoitza bakarra da.

Bestalde, Aldundiak adierazi du atzotik aurrera Ordiziako San Jose zentroko sintomarik gabeko COVID-19 kasuak artatuko dituela. Horrek esan gura du Eibarko zentroko 56 plazei beste 58 gehituko zaizkiela.

POSITIBOEN GORAKADA ANTZUOLAN

ANTZUOLAN HAUTEMANDAKO 18 POSITIBOEN KEZKA SORTU DUTE HERRIAN

Joan den egubakoitzetik astelehenera bitartean 18 positibo baieztatu zituzten Antzuolan, eta, beraz, egun horietan gorakada nabarmena izan zen positibo kopuruari dagokionez. Hori horrela, lasaitasun mezua hela-

razi du Beñardo Kortabarria alkateak: "Aste hasieran Osakidetza jakinarazitako datuek atentzia eta kezka sortu dute, baina Osakidetza ez dugu inolako abisurik jaso eta fokurik ba ote dagoen ez digute abisatu". Azaldu duenez, ez dute herrian "aparteko neurririk hartu", baina zentzuz jokatzeko dei egin gura izan du (Ikus 27. orria).

GRIPEAREN AURKAKO KANPAINA

ASTEON HASI DIRA TXERTOA JARTZEN ARRISKU TALDEEN BAITAN DAUDENEI

Joan den astean, urriaren 5ean ekin zioten gripearen aurkako txertaketa kanpainari. Aurten, baina, txertaketa-denboraldia hiru fasetan antolatu dute. Bigarren faseari ekin diote astelehenera; eta, beraz, arrisku taldeetako txertoa jartzen hasi dira dagoeneko. Oñatiko osasun zentrotik azaldu dute aurtengo kanpaina "harrera ona" izaten ari dela lehen egunetan, eta jende asko hurbildu dela txertoa hartzera orain artean. Uste dute, gainera, koronabirusaren eraginez beste urteetan baino jende gehiagok hartu duela txertoa hartzeko erabakia, "gripetik babesteko".

Egoitzetako eta osasun arloko profesionali dagoeneko jarri diete txertoa, eta, urriaren 31tik aurrera, hartu gura duten gainerako herritarrek izango dute horretarako aukera. Aurtengo nobedadea da Osakidetza berak emango diela hitzordua txertoa hartu behar dutenei. Zehazki, 65 urtetik gorakoak, gaixotasun kronikoren bat dutenak eta haurdun daudenak daude horretara deituta.

Koronabirusa Debagoieneran

	Positiboak aurreko astean	Positiboak aste honetan	Positibo metatuak	Positiboak mila biztanleko
Arrasate	41	27	600	27,20
Bergara	8	29	287	19,13
Oñati	10	28	201	17,70
Aretxabaleta	4	6	149	20,99
Eskoriatza	2	8	55	13,53
Antzuola	8	23	50	22,72
Elgeta	0	3	18	15,80
Aramaio	1	1	12	7,97
Gatzaga	0	0	1	4,00
GUZTIRA	74	125	1.373	


OHARRA: EGUAZTENERA ARTEKO DATUAK

ITURRIA: OSASUN SAILA

Kasu positiboak Debagoieneran

ITURRIA: OSAKIDETZA

	MARTXOA	APIRILA	MAIATZA	EKAINA	UZTAILA	ABUZTUA	IRAILA
Arrasate	69	154	23	3	60	54	170
Bergara	18	27	9	1	33	54	108
Oñati	20	25	3	2	19	41	53
Aretxabaleta	21	26	9	6	12	21	46
Eskoriatza	7	6	2	0	11	11	11
Antzuola	2	2	5	0	1	2	9
Aramaio	2	0	3	0	0	1	4
Elgeta	0	2	6	0	3	3	1
Leintz Gatzaga	0	0	0	0	0	0	1
DEBAGOIENA	137	242	60	12	139	187	403



"Ekonomian genero arrakala ugari daude"

MIREN ELGARRESTA ALDUNDIKO BERDINTASUNERAKO ORGANOKO ZUZENDARIA
Alor ekonomikoan emakumeen eta gizonen "aukera berdintasuna" bermatzeko III. Foru Plana aurkeztu du Aldundiak. Lau ildo jarraituta, ekintza ugari abiaraziko dituzte

Maialen Santos ARRASATE

Miren Elgarresta Foru Aldundiko Berdintasunerako zuzendariak azaldu du emakumeen "autonomia ekonomikoa" eta "kalitatezko enplegua" bultzatzea izango direla plan horretako helburu nagusietako bi.

Zeri erantzuten dio III. Foru Planak?

Lan-tresna garrantzitsua da, batez ere, zeharkako politika batentzat. Funtsezkoa da berdintasun legeak eta foru arauak diseinatzeko orduan horrelako erreminta bat edukitzea, gero ekintza horiek egikaritzeko.

Aldundiko zuzendaritza guztien eta eragile sozialen partaidetza izan du. Nola landu duzue?

Urte bateko prozesua izan da, eta bi ezaugarri izan ditu: alde batetik, eragile ezberdinekin partekatutako lan-prozesua egitea ezinbestekoa izan da; bestetik, prozesu parte-hartzailea izan da. Ez da erakundeak asmatzen duen zerbait; izan ere, aintzat hartzen dira orain arte egindako ibilbidearen esperientzia, eta baita plana bera garatuko den espazio eta eragile ezberdinak ere: emakume elkarrekin, herritarrak, mugimendu feminista...

Emakumeen autonomia ekonomikoa eta kalitatezko enplegua bultzatu gura dituzue...

Helburu horiek aurretik identifikatuta genituen, egindako ibilbideari esker. Erakundeen artean dugun sarean erreferentziak ditugu: Emakunde edota Europa mailako Genero Berdintasunerako Institutua. Erreferente horien mugarriak bat datoz Aldundian azken urteetan jorratu ditugunekin: genero arrakala ixtea, indarkeria matxistari aurre egitea, zaintzako ezberdintasunak ezabatzea....

Berdintasuna pandemiari erantzuteko funtsezko elementua izango dela diozu. Zergatik?

Krisi guztien aurrean oso ohikoa izan da inoluzio batean sartzeko arriskua; batez ere, berdin-



Miren Elgarresta Aldundiko Berdintasunerako zuzendaria. FORU ALDUNDIA

"OSASUN KRISIAREN AURREAN EZBERDINTASUNAK HANDITU EZ DAITEZEN ZAINDU BEHAR DUGU"

tasun politikan. Osasun-krisiaren aurrean zaindu egin behar dugu genero arteko ezberdintasunak handiagoak izan ez daitezten. Hori horrela, aurrerantzean martxan jarriko dugun planean COVID-19aren testuingurua txertatuta egongo da.

Berdintasunaren bidean, Aldundiak bere eginkizuna indartuko du...

Indartu gura dugu berdintasun organoak duen zeregina beste departamentu eta zuzendaritza guztiekin; hots, politika sektorial guztiekin. Organo honen eginkizuna da herri politikari bultzada ematea eta jarraipena egitea, baina exekutatzeko sektore bakoitzari dagokio.

Lau esku-hartzeko ildo zehaztu dituzue horretarako.

Gobernu ona, emakumeen ahalduzkoa, eraldaketa ekonomiko eta soziala eta indarkeria matxistaren aurkako borroka. Lau

zutabe horiek altxatzen dira aurretik sortutako zimenduei esker, eta horietatik abiatuta egituratzen da plan berria.

16 helburu estrategiko eta 122 ekintza jasotzen ditu plangintzak...

Oso garrantzitsua da lerro estrategikoak ondo definitzea, gero horien baitako garapena egiteko.

Zergatik da garrantzitsua aukera berdintasuna, batez ere, alor ekonomikoan bermatzea?

Alor ekonomian bistaratuta daudelako hainbat arrakala. Soldatara da ezagunena, baina ondo ulertu behar da esanahia; ez du diskriminazioa adierazten, ezinbestean. Soldata arrakala sortzen da hainbat faktoreen eraginez, eta gehien eragiten duena da rol eta estereotipoen erantzuten dien sexuaren arabera lan banaketa.

Genero Berdintasunaren Indizearen arabera, Gipuzkoa 72,5 puntutan kokatu da. Zer esan gura du horrek?

Konfirmatu egiten du Gipuzkoa aitzindari dela berdintasun politikaren garapenean. Erkidego mailan zerbaki altuena ere guk dugu, eta Europako beste lurralde batzuekin konparaketan 5. gaude: Finlandiaren eta Suediaren atzetik, hain zuzen.



Ahoztar Zelaieta, martitzenean Elgetan egindako aurkezpenean. M.S.

"Isilpean gordetako informazioa azalera ateratzen du liburuak"

'Zaldibar. Zona cero' nobela argitaratu berri du Ahoztar Zelaieta kazetariak, eta asteon aurkeztu du, Elgetan

M.S. ELGETA

Zaldibarko lur-jausia gertatu zenetik zortzi hilabete pasa dira, eta *Zaldibar. Zona cero* izeneko liburua argitaratu du Ahoztar Zelaieta kazetari eta kriminologoak. Martitzenean egin zuen liburuaren aurkezpenean, Elgetako Espaloia kafe antzokian, Zaldibar Argitu plataformak antolatuta. Horretako kideak eta herritar ugari gerturatu ziren bera entzuterako.

Idazleak azaldu duenez, Zaldibar "gertutik" ezagutzen delako idatzi du liburua, lur-jausiaren nondik norakoak "argitu" guran: "Mallabitarren semea naiz eta umetan ezagutu nuen Zaldibar. Liburua idazteko ideia izan nuen, uste nuelako enpatikoa izan behar nuela bertan zendu ziren langileekin eta haien senideekin; eta, gainera, nire ekarpena egin gura nuen kazetari moduan".

Galderei erantzuna

Zaldibarko zabortegiari buruzko nobela "irakurterraza" idatzi du, gaztelaraz. Askotariko gaiak jorratzen ditu; besteak beste, hondakin arriskutsuen kudeaketa, segurtasun falta eta espekulazioa. Liburuaren amaieran, gainera, zenbait eranskin gehitu ditu, "informazio baliagarriekin". Detektibea da liburuko pertsonaia nagusia, eta ikerketak egitera zuzentzen du bere lana, "isilpean gordetako zenbait informazio argitara ateratzea izanik helburua".

Oro har, azaldu du edonork egin ditzakeen galderei erantzuten diola liburuak: "Esaterako, nortzuk diren zabortegiko arduradunak edota zein harreman duten administrazio publikoekin". Liburua aurkezpenean, Txalaparta argitaletxearen webgunean eta liburu-dendetan erosi daitezke dagoeneko.

Marixol Iparragirre askatu dezatela eskatu dute asteon

Uztailaren 8an eta 9an, Auzitegi Nazionalean epaitu zuten preso eskoriatzarra, eta 122 urteko kartzela-zigorra ezarri zioten, Luciano Cortizo Lurreko Armadako komandantearen hilketarako "agindua ematea" eta "lehergailuak hornitzea" egotzita. Astelehen eta martitzen honetan berriro epaitu dute Iparragirre. Hori horrela, Sare

Eskoriatzak eta Marixol, Askatu! plataformak deituta mobilizazioak egin dituzte Eskoriatzan.

Zirku judizialik ez! Marixol etxera! leloarekin mobilizatu dira, hain zuzen, eta Saretik adierazi dute ez dela "kartzelak betetzeko garaia"; aldiz, batzuen eta besteen artean "zubiak eraikitzeko" garaia dela.

Haren aurka hamabi kausa dituzte, guztira. Uztaileko sententziaren eta asteon egindako epaiketaren ostean, urtarrilean epaituko dute berriro.



Oxel Azkarate-Iturbe, Jose Ramon Vitoria eta Ion Lezeta, KOOPHEZI liburuak aurkezten. HUHEZI

Nola neurtu pertsonen lan balioak, erronka berrien garaiotan

Ikasleen eta langileen profila neurtzeko eskala proposatzen duten bi liburu argitaratu dituzte Huheziko zenbait ikertzailek. Erakundeen misioarekin bat datorren pertsona kooperatiboaren maila kalkulatzeko du neurgailuak. Bi urteko ikerketaren emaitza da

Hasier Larrea ARRASATE

Erakundeen eta enpresen erronkei erantzuteko eta langileria-aren kompetentzia espezifikoa neurtzeko asmoz, 2018an abiatu zuten ikerketa Humanitate eta Hezkuntza Zientzien Fakultateko ikertzaile talde batek. Proiektuak *Gipuzkoako Foru Aldundiaren Gipuzkoan pertsona eta enpresa parte-hartzaileak sustatzeko programa*-ren laguntza eduki du.

Emaitza pertsona kooperatiboak neurtzeko eskala baten proposamena da, bi liburutan bildua: *KOOPHEZI-i* eta *KOOPHEZI-L*. Lehenak 16 eta 22 urte bitarteko gazteei aplikatzeko neurgailuaren nondik norakoak azaltzen ditu; bigarrenak, berriz, langileei aplikatzekoak. Eskala horiek sortzeko beharrez ere mintzo dira testuliburuak.

Era berean, eskalaren erakuntza prozesuaz, justifikazioaz, erabilerarako argibideez eta balidatutako galdera-sortaz jakiteko aukera izango du interesa duen irakurle orok.

Pertsona bakartien eragina

Ikerketaren gidarietako batek, Oxel Azkarate-Iturbek, argi dauka egungo gizarteko pertsonak individualistagoak direla: "Jendarte modernoan konpromiso soziala kudeatzen ez dakien eta ezkututzen den gizaki bakarti mota bat identifikatzen dugu, lankidetzarako gogoia

PERTSONA KOOPERATIBOAK BEHARREZKOAK IZANGO DIRA DATOZEN GARAI BERRIETAN

galdu duena eta ni ez-kooperatzaile bihurtu dena".

Hala, faktore horrek kezka sortzen du bailarako hezkuntza eta enpresa testuinguruetan. "Besteak beste, pertsonen partaidetza moduetan, harreman moldeetan edota, oro har, jokabide sozialak zehazten dituzten balioetan eragiten dute jarrera individualista horiek", adierazi du Huheziko ikertzaileak.

Erantzun kolektiboa

Gizarteak erronka ugariri aurre egin behar diola uste du Azkarate-Iturbek: "Desafio horiei erantzun komunitarioak eman behar zaizkie, eta, horretarako, beste balio eta jarrera batzuk erakutsiko dituzten pertsonak eraiki behar ditugu".

Balio eta jarrera horiek eskuzabaltasunarekin, elkartasunarekin, lankidetzarekin, par-

taidetzarekin eta erantzukizun sozialarekin lotzen ditu berak; pertsona kooperatiboa definitzen eta ezaugarritzen dituzten balioekin, alegia.

"Halako pertsona batek elkartasunean eta berrikuntzan oinarritutako eraldaketa sozialaren alde pentsatu eta jokatu luke", ikertzailearen iritziz.

Ekintzaile soziokomunitario gisa definitzen du ezaugarri horiek beteko lituzkeen giza-banakoa. Arazo handiei aurre egiteko pertsonak "burujabe" izan behar dutela uste du; horretarako, ikasten jakiteko,

BI LIBURUAK INTERNETEN DAUDE ESKURA; DOAN DESKARGATU DAITEZKE

Nola diseinatu dute eskala?

Humanitate eta Hezkuntza Zientzien Fakultateko ikertzaileek literatura errebasoak burutu dituzte, eta konturatu dira ez dagoela pertsona kooperatiboa neurtzen duen tresnarik, ezta kontzeptua bera deskribatzeko definizio bateraturik ere. Horregatik, pertsona kooperatibo profila neurtzeko, lehenik eta behin, profila definitu eta ezaugarritu dute.

Horietan oinarrituta, pertsona kooperatiboarekin erlazioatzen diren aldagaiak zehaztu dituzte ondoren. Aldagai horiek aldekoak eta aurkakoak izan behar dute teoriarik, konstrukturik berri baten eraikuntzaz ari garenaz gero.

Ikuspegi teoriko horietatik abiatuta, zera aztertu dute: aldagai guztietatik zeintzuk eta nola erlazioatzen diren pertsona kooperatibo profilarik. Hona iritsita, konklusio hau ateratu dute

Humanitate eta Hezkuntza Zientzien Fakultateko ikertzaileek: hamar aldagai neurtzen dutela pertsona kooperatiboa, beste lauk individualismoa eta beste hiruk kolektibismoa. Eskala horri *KOOPHEZI-i* izena eman diote eta ikasleei zuzenduta dago.



Langileen profila

Ikasleentzat sortutako tresna horretan oinarrituta eraiki da, berriz, langileetan pertsona kooperatiboa neurtzen duen eskala: *KOOPHEZI-L*.

Neurgailu horretan ez dira individualismo eta kolektibismoaren aldagaiak neurtzen, soilik pertsona kooperatiboaren aldagaiak hartzen dira kontuan, langileek galdetegi erantzuteko denbora gutxiago har dezaten, besteak beste. Izan ere, ikasleentzat diseinatutako tresnan finkatu dira oinarri batzuk, eta ez da beharrezkoa aurkako aldagaiak aztertea.

Gauzak horrela, ikasleen profila neurtzeko eskala 65 item edo galderaz osatuta dago; langileena, aldiz, 30 galderaz.

elkarkidetzan aritzeko, kooperazioan jarduteko eta harreman positiboak eraikitzeko gai izan beharko luke.

Liburuen harrera ona

Profila neurtzeko tresnak eta ikerketa proiektuak "harrera ona eta interesa" sortu dutela azpimarratu du Azkarate-Iturbek. "Momentuz, neurtzeko fidagarriak egiteko aukera ematen digute bi tresnek. Ikerketa desberdinak egiteko aukera asko eskaintzen dute bi tresnek", dio.

Anbizioz begiratzen dio etorkizunari: "Gustatuko litzaiguke komunitateko sektore eta mota desberdinetako erakundeekin helburu partekatutako adostu eta elkarlanean ikerketa proiektuak garatzea, bizi osoko eta komunitate guztiarentzako hezkuntza ikuspegiarekin". Dagoeneko jarri dute lehen harria.

Greba eguna egin dute Aita Menniko langileek

ELA sindikatuak deituta, mobilizazioak egin zituzten asteazkenean, besteak beste, soldaten igoera eskatzeko eta lan baldintzak hobetzeko. Egun "historikoa" izan zela azpimarratu du sindikatuak, eta langileen erantzuna "positiboa" izan zela gaineratu

Karmele Uribesalgo ARRASATE

Aita Menni ospitaleko eta enpresa barruko beste zenbait zentrotako hainbat langileek greba egin zuten asteazkenean. ELA sindikatuak egin zuen deialdia, eta modu positiboan baloratu zuten langileen erantzuna. Jarraipena "altua" izan zela nabarmendu dute, eta erantzun irmoa eta kolektiboa erakutsi zutela adierazi dute. Sindikatuaren ustez, egun garrantzitsua izan zen langileen lan baldintzen borrokarako.

Arrasateko Plazan hasi zuten manifestazioa, eta, sindikatuaren esanetan, ehunka lagun batu ziren. Langileez gain, mobiliza-



Aita Menniko langileak, asteazkenean egin zuten manifestazioan. ELA

zioekin bat egin zuten EH Bilduk, Elkarrekin Arrasatek, pentsiodunek, Emakume Mundu Martxak eta antikapitalisten taldeak.

Duela bi urte hasi zituzten lan hitzarmenaren inguruko negoziazioak, eta sindikatuak azaldu du horrek fruiturik eman ez zuenez orain dela urtebete ekin zietela mobilizazioei. Aita Menni oinarrrian finantzaketa publikoa duen enpresa dela izanik, ELAk beharrezkotzat jo du soldatak langile publikoenekin parekatzea.

Gehiegizko zerbitzu minimoak

ELAk salatu du Eusko Jaurlaritzak ezarritako zerbitzu minimoak "gehiegizkoak" izan zirela, eta gaineratu du berandu jakinarazi zituztela. Sindikatuak kritiko azaldu da enpresak izandako jarrerarekin. Gauzak horrela, langileen greba eskubidea "mugatu" egin dela uste dute.

ELAk azpimarratu du negoziatzeko prest jarraitzen duela, baina aurrerapausorik ez bada gozatu mobilizatzen jarraituko dutela. Enpresak adierazi du aurrerago egingo duela grebaren inguruko balorazioa.

Zibersegurtasunaren inguruko RAID 2020 kongresua MUn

Gaur amaituko da asteazkenean hasi zen RAID 2020 kongresua -Research Attacks Intrusions Defences International Symposium-. Mondragon Unibertsitatearen Goi Eskola Politeknikoak antolatu ditu jardunaldiak, eta nazioarteko ehun aditu baino gehiagok hartu dute parte. Topaketa birtual horietan hainbat gai izan dituzte hizpide; eraso informatikoen, detekzio metodoen eta babes tekniken inguruan jardun dute, besteak beste.

Eraso, Intrusio eta Babesen gaineko Ikerketei buruzko Nazioarteko Sinposiumaren 23. edizio hori topagunea izan da ikertzaileentzako, profesionalentzako eta administrazioentzako. Google, Facebook, Microsoft eta halako punta-puntako hainbat erakundek egindako lan, aurkikuntza eta esperimentuen emaitzak ere aurkeztu dira.

Donostiako Miramar jauregian egin behar zuten kongresua, baina, pandemiaren eraginez, modu telematikoan izan da.

Debagoieneko GREMIOAK

ARROZTEGIAK

AZKARATE AROZTEGIA

BERGARA

- Ateak, leihoak, horma-armainuak, tarimak, parket flotatzailak, sukaldeak.
- K-21

Telleria 19 B02-B03

Tel.: 943 76 47 19 / 610 88 40 20

blogak.goiens.net/azkarate

HONDEAKETAK

EXCAVACIONES Y CONTRATAS

ARRASATE SL

ARRASATE

Meatzerreka 30

Tel.: 943 77 12 26 / 646 29 59 87

e.arrasate@gmail.com

ITURGINTZA

EGIA ITURGINTZA

ARRASATE

Gipuzkoa etorbidea 39, behea

Tel.: 943 77 01 85

OYANGUREN ITURGINTZA

ESKORIATZA

- Iturgintza eta gasa
- Berogailuak eta petrolio-produktuak
- Klimatizazioa

Aranburuzabala 15

Tel.: 943 71 47 14 / 606 00 73 69

f.oyanguren@ctv.es

URKO MANTENIMIENTO SL

ARETXABALETA

- Instalazioen mantentze-lan guztiak

- Berokuntza eta gasa

- Aire girotua eta haizeztatzea

Besabe industrialdea B-3

Tel.: 943 77 19 88

Faxa: 943 79 59 97

LOREZAINNTZA

MAKAI KOOP. ELKARTEA

ARETXABALETA

- Barruko zein kanpoko lorezaintza

- Ureztatze sistemak

- Loreontzi-euskarriak eta balkonerak

Besabe poligonca D-2-1

Tel.: 943 79 78 45 / 616 96 57 98

Faxa: 943 79 78 45



ZABALIK

JON ETXEBERRIA

Trump berriro?

Politikan emozioek eta sentimenduek arrazoiek baino garrantzi gehiago izaten dute askotan. Bestela, nola azaldu Ameriketako Estatu Batuetako politikan gertatzen ari dena? Atlantikoaren alde honetatik begiratu gero, oso zaila egiten zaigu ulertzea Donald Trumpek duen arrakasta politikoa eta forma eskasekoa, 2016an AEBetako 45. presidente bihurtzea lortu zuen, ia 63 milioi amerikarren babesarekin, komunikabide nagusiak eta *establishment*-a aurka zituela. 2020an, COVID-19a iritsi aurretik, Obamak sasoi berean baino onarpen maila altuagoa zuen hiritarren artean –ekonomiaren egoera bikainak eraginda–, eta, pandemia luze egiten ari zaion arren, babes maila dezentea izaten jarraitzen du hauteskunderen atarian.

Argi dago Trumpek gizarte amerikarraren zati handi baten emozioekin konektatzea lortu duela. Herritar

ARGI DAGO GIZARTE AMERIKARRAREN ZATI HANDI BATEN EMOZIOEKIN KONEKTATU DUELA


horiek Washington herritarrengandik gero eta urrunago dagoela sentitzen dute eta politikariak herritarren interesen esanetara egon beharrean lobbyen aginduetara daudela

uste dute. Beldur dira zuzentasunaren diskurtsoan murgildurik betiko Amerika galduko ote ez den, eta mehatxu guztietatik –kanpokoak eta barrukoak– defendatu beharra dagoela uste dute, beraien familia, erlijioa, lana eta bizimodua zaintzeko.

Jadanik lau urte gobernua egon arren, Trumpek bere mezuaren indarra mantentzea lortu du, neurri handi batean, eta bere eslogan eraldatzaile famatuak oihartzun zabala izaten jarraitzen du –*Make America Great Again*–. Inkestek Biden-i garaipen erraza ematen dioten arren –10 puntuko alde ematen diote–, ez dut uste hauteskundeak erabakita daudenik, ezta gutxiago ere. 2016an ez zuten asmatu eta aurten ere argi ibili beharko dute, amerikarrek inoiz baino gehiago beraien emozioek gidatuta emango baitute botoa datorren azaroaren 3an, eta Trump oso trebea da emozioak pizten.

MARRAZKIZ

UNAI BUSTURIA



HANDIK ETA HEMENDIK

Zinemaldian

IZARO ANDRES

'TTAP'-EN ARGITARATUA

Aurten, nola ez, Zinemaldia ere arraro joan da, berezi. Nik Lara Izaguirreren *Nora* pelikularen estreinaldian parte hartzeko ohorea izan dut. Izen bereko kantua idatzi nuen filmerako. Eta oso polita izan da nire imajinarioan nuena pantaila handian islatuta ikustea. Gosari baten inguruan kontatu zidaten filmaren esentzia, filmaren abiapuntua, eta irudia ikusi aurretik sortua nion nik soinu. [...]

Zinema oso emakume gutxiko mundu bat da. Hala

adierazi zuen Larak berak ere. Eta, oro har, emakumeak* oso era pobrean islatzen ditu, islatzen baditu.

Nora-k benetan badaki nora doan. Eta nik ere bai. Barneratuta eta naturalizatuta nituen jarrera matxista, arrazista, klasistak hausten doaz, usteltzen –eskerrak–. Eta orain, benetan film gutxi daude alarmaren bat saltarazten ez didatenak; feminismitik, arrazakeriatik, inperialismitik, etab.

Badaude filtroak filmei koloreak ateratzeko. Bechdel testa, adibidez, filmetan, komikietan, antzezlanetan eta beste kultura-produktuetan genero-desparekotasuna neurtzeko sistema bat da.

Sinplea, oso, eta harrigarria da ze film gutxi pasatzen duten testa. Hiru dira aintzat hartu beharreko puntuak: filmean gutxienez bi pertsonaia emakumezko izatea –izena dutenak–, pertsonaia horiek, behintzat, behin elkarrekin hitz egitea, eta elkarriketa horren gaia gizon bat ez den beste zerbait izatea.

Film saritu eta ezagun askok ez dute test hori pasatzen.

Nahi duten besteko onak direla pentsa dezakete/ dezakegu, baina benetan zine "ona" al da hori? Zinemari, emakume* pila bat izan arte, zinemaren erdia faltako zaio. Zorionez, badabil heltzen.

goiena
KOMUNIKAZIO TALDEA

www.goiena.eus

Argitaratzailea

Goiena Komunikazio Taldea
Kooperatiba Elkarte
Otalora Lizentziaduna 31
20500 ARRASATE

Lehendakaria

Monika Belastegi.

Zuzendari nagusia

Iban Arantzabal.

Eduki zuzendaria

Eneko Azkarate.

Erredakzio batzordea

Eneko Azkarate, Monika Belastegi, Mirari Altube.

Zuzendari komertziala

Mireia Larrañaga.
Administrazio zuzendaria
Agurtzane Gaintzarain.

Diseinu arduraduna

Iñaki Iturbe.

Hizkuntza arduraduna

Sergio Azkarate.

Harpidetza eta banaketa

arduraduna

Igone Osinaga.

Sailletako arduradunak

Xabi Urtzelai (Kirola),
Aitziber Aranburuzabala (Kultura).
Maketazioa
Imanol Soriano, Aitor Lagoma,
Amaia Martínez de Arenaza.

Publizitatea

Mireia Larrañaga,
Ziortza Martín,
Amaia Mundiñano.

Administrazioa

Ane Berezibar, Iratxe Bengoa,
Nerea Artola.

HARPIDETZA

Arrasate 20500
Otalora Lizentziaduna 31
Tel.: 943 25 05 05
harpidetza@goiena.eus

PUBLIZITATEA

Arrasate 20500
Otalora Lizentziaduna 31
Tel.: 943 25 05 05
publi@goiena.eus

EGOITZA NAGUSIA

Arrasate 20500
Otalora Lizentziaduna 31
132 posta-kutxa
Tel.: 943 25 05 05
Telegram eta WhatsApp:
688 69 00 07
berriak@goiena.eus

Lege Gordailua:

SS-965/2014
ISSN: 2174-369X
Tirada: 19.000 ale
Difusioa: 18.723 ale

Inprimategia:

Zeroa Multimedia

GOIENAK ez du bere gain hartzen aldizkari honetako orrialdeetan kolaboratzaileek adierazitako iritzien erantzukizunik.



GOIENA KOMUNIKAZIO TALDEA

LAGUNTZAILEAK



Gipuzkoako Foru Aldundia



Arrasateko Udala



Bergarako Udala



Oñatiako Udala



Aretxabaletako Udala



Eskoriatzako Udala



Antzuolako Udala



Aramaioko Udala



Elgetako Udala



Leintz Gatzagako Udala

Kultura eta Hizkuntza Politika Sailak (Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak) diruz lagundua



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA ETA HIZKUNTZA POLITIKA SAILA

BERBAGAI


"Energia asko sortzen duten iturrien alde egin behar da"

JAVIER TEJADA BARTZELONAKO UNIBERTSITATEKO KATEDRADUN EMERITUA

Karme Uribesalgo BERGARA Zientzia eta Berrikuntza Jardunaldien baitan (ZTB), energiaren eta adimen artifizialaren inguruko hitzaldia egin zuen asteazkenean, Bergaran, Javier Tejadak. Goienagusiren ikasturteko egitarauaren barruan.

Esan izan duzu energiak eta adimen artifizialak eginkizun garrantzitsua izango dutela etorkizunean. Zergatik?

Gizakiak energia behar du eboluzionatzeko; bere eskura daukan energia guztia behar du. Arazoa da zein energi iturri erabiliko ditugun. Koronabirusak eragin duen krisi ekonomikotik irteteko energia beharko dugu; produkzioa areagotzeko beharra dago, eta horrek kontsumo energetikoaren beharra dakar. Txina, esaterako, ikatza erabiltzen dagoenez, laster aterako da krisialditik. Izan ere, gaur egun, energiaren %75 erregai fosiletatik lortzen da;



Javier Tejada. J.T.

petroliotik eta ikatzetik, batez ere. Barne produktu gordinak ere (BPG) harreman zuzena du energia kontsumoarekin; gora egiten duenean, gehiago kontsumitzen da. Dena den, kontuan izan behar dugu

planeta bizigarria utzi behar diegula ondorengoei, eta horretarako energia garbiak erabili behar ditugu.

Energia beharrezkoa da, baina kutsatzen ez duten horien alde egin behar dela diozu.

Energia kontsumoa murriztea gure aurka doa. Hala ere, behar bezalako erabilpena eman behar zaio. Horrez gain, saiatu behar dugu kutsatzen ez duen energia erabiltzen, baina ez dugu zertan energia gutxiago erabili. Horregatik diot apustua egin behar dugula energia asko sortzen duten iturrien alde.

Zuk fusio nuklearraren alde egin izan duzu.

Gizarteak geroz eta argiago dauka garrantzitsua dela planeta zaintzea; ezin dugula hondatu, gure bizitokia dela. Horretarako, energia garbia behar dugu, eta hori, adibidez, fusio nuklearrarekin sortu dezakegu. Kontua da arrazoi teknologikoengatik oraindik ezin dela kontrolatu. Hori dela eta, uste dut adimen artifiziala landuz gero, gisa horretako arazo teknologikoak konpondu daitezkeela.

Horregatik diot energiak eta adimen artifizialak harremana dutela.

Zertan lagundu dezake adimen artifizialak?

Munduan dagoen arazo handienetako bat da gaixotasunena, eta argi gelditu da COVID-19arekin, baita minbiziarekin ere. Hori nola sendatu jakiteko, ikerketa asko egin behar dira, eta, beraz, adimen asko.

Gauzak horrela, nik uste dut adimen artifizialaren jomugetako bat izan behar dela gaixotasunei aurre egitea.

Ordenagailuek sistema bitarrekin jarduten dute, baina sistema kuantikora pasako direla adierazi duzu. Zer eragingo du horrek?

Hainbat operazio era paraleloan egiteko aukera emango du sistema kuantikoak. Imajinatu horri esker zer-nolako gaitasuna izango dugun arazoak konpontzeko. Google, Microsoft, IBM, Facebook eta Amazon, esaterako, duela hamar urte inguru ohartu ziren horretaz, eta prototipo batzuk sortzen hasi dira. Lasterketa teknologiko bat dago, eta ziur hemendik urte batzuetara sistema hori gure artean izango dugula. Arazoa da beste behin enpresa handien esku egongo ginatekeela.

Makinek ordezkatu al dute gizakia?

Ordezkatzen dituzte jada, adimen artifizialak gaitasuna baitauka gizakiak egin ezin ditzakeen ekintza batzuetarako. Horrez gain, medikuntzan, adibidez, diagnostikoak egiten lagundu dezake. Momentuz, hori izango da, laguntza bat, eta ez du balioko kasu guztietarako.

ITURRI ONETIK

Arrasateko bulego altzariak Woody Allenen filmean

Woody Allen zinema zuzendariak Donostian iazko Zinemaldian errodatu eta aurten estreinatu duen *Rifkin's Festival* filmak badu arrasto debagoiendarrik. Hain justu, Arrasateko BZ Sistemas dendan ikusgai dagoen bulegoko mahai bat eta sofa bat –Donostiako dendan– agertzen dira. Mahaia ikus daiteke Elena Anayak eta Wallace Shawn aktoreak psikologo kontsultan daudenean. BZ Sistemaseko arduradunek adierazi dute kredituetan ateratzearen truke utzi zietela mahaia eta sofa.

ALBISTE IZAN ZEN

2013-10-09

Erein Da Jan kooperatiba aurkeztu zuten

Erein Da Jan kooperatiba aurkeztu zuten jendaurrean Aretxabaletan. Kontsumo eredu aldatzeko helburuarekin, debagoiendarrei bazkide egiteko dei egin zieten aurkezpenean. Hamar laguneko talde eragilea eta Bagara elkarte izan ziren kooperatibaren sustatzaileak. Kooperatibaren lehen helburua supermerkatua irekitzea izan zen. Gerora, Arrasaten ireki zuten denda eta ostein baita Bergaran ere.



HAU BE BADOGU!

Uxue Alberdi 'trending topic' izan da

Idazle eta bertsolari elgoibartarrak irabazi du Euskadi Saria, *Kontrako eztarritik* saiakerari esker:

@heliosaek: "#AitarenEtxea maiz goraiatu dut, #KontrakoEztarritik liburuarekin, zer esan? Eskuartean izandako #lehergailua, sekulakoa, egunero barrua mugiarzten dizun saiakera".

@onintzaenbeita: "Ez dakit behar adina eskertu ote diodan #kontrakoeztarritik idazteko ausardia bildu izana Uxueri. Meritua berea du, baina poza kolektiboa da!"

@anepirata: "Poza. Poz kolektiboa".



D2030: IRITZIA

ELENA HERRARTE / DEBAGOIENA2030 EKIMENEN KOORDINATZAILE OROKORRA

Etorkizuna elkarrekin amestera gonbidatuta

Debagoiena 2030 ekimena aurkeztu dugu berriki sektore eta izaera anitzeko eskualdeko hainbat eragilek. Garapen komunitarioan sakonduz, eskualdearen eraldaketa sustatzeko bokaziotik abiatuta gorpuzten ari den ekimena da. XXI. mendeak aurkezten dizkigun erronka konplexuen testuinguruan, herritar eta eragileak gonbidatu nahi ditu, elkarrekin eskualdea berramestu eta berrasmatzera.

Klima aldaketa lehen lerroan

Klima aldaketarena da, segururik, gizartetik azken mendeetan bultzatu duen garapen ereduaren muga eta arriskuen erakusgai nagusia, egungo erronken rankingean lehen postuan ageri zaiguna. Jakin badakigu hurrengo urteetan aldaketa sakonak egin beharko ditugula jendarte moduan kontsumitzeko, lan egiteko, mugitzeko edo aisialdia antolatzeke erduetan, besteak beste. Bizitza ahalbidetzen duten ezinbesteko baldintzak bermatzea lortu nahi badugu, ez dugu beste erremediorik izango.

Iraunkortasunarekin loturikoak ez dira, gainera, gure gizartearen dilema eta erronka bakarrak; jendarte gero eta anitz eta konplexuagoetan bizi gara eta horrek behar berriak sortu eta erantzun berriak asmatzea eskatzen digu, aukera berdintasuna bermatu nahi badugu; digitalizazioa ere erroten ari da bizitzeko erduetan eragiten. Anitzak eta konplexuak dira aldaketen inertiak.

Gure eskualdeko askok partekatzen dugun ongizate mailaren talai goxotik begiratuta, zaila egiten zaigu arriskuen tamaina hautematea; are eta gehiago, eraldaketa behararen deiarra larrira entzutea. Baina eredu honen arrakalak gero eta luze eta sakonagoak dira: bale edo kale, eraldatu ala desagertu,

horixe egia. Urgentea da martxan jartzea.

Eraldaketa eraldatua


Mendeetan zehar garatutako *homo sapiens* gehientsuenok epe motzeko beharrak ditugu motor. Historiaurre garaian, berehalako arriskuak egokitzeko biziraupen mekanismo eraginkorra garatu genuen. Azken mende gutxietan, ordea, guk geuk bizkortu dugu errealtatearen parametroen ordenaren aldaketa, gure gaitasunak egokitzeko duten abiada baino askoz handiagoa ezarri dugu ekosistemetan, eta orain, gu geu harrapatu gaitzake guk sortutako piztiak.

Apokalipsiaren teoriak gero eta hedatuago dauden honetan, ordea, aurreikuspen ilunetan amildu ordez, badago bestelako aukerarik: ingurura begiratu, eredu honen arrakalak elkarrekin eta sakon behatu eta eraldaketaren olatu berria aktibatzea da, segururik, daukagun aukera onena. Helburu hori da D2030 ekimenaren esentzia, itsasoaren sakontasunean, olatu eraldatzailearen katalizatzaile izateko hondoko-itsasoa sortzeko beharrezko energia batu eta bultzatzea.

Elkarturik, etorkizuna jomugan

Bide horri ekiteko, lehenengo elkarrekin etorkizuna amestera gonbidatzen gaitu D2030ek, ametsek, ilusioek, erronkek mugiarazten baitute mundua. Amets hori kolektiboa bada, bere gaitasuna biderkatu egiten da. Ez dugu urruti begiratu beharrik amets kolektiboaren gaitasun itzelaz konturatzeko: hezkuntza euskalduna, emakumeen eskubideen aldeko

IRAUNKORTASUNAREKIN LOTUTAKOAK EZ DIRA GIZARTE BEZALA DITUGUN DILEMA BAKARRAK



SILAS BAISCH / UNSPLASH

prozesuak, enpresa egiteko eredu kooperatiboa.... Etxe ondoan ditugu hamaika adibide, ezina ekinez egin daitekeela erakusten digutenak, inoren zain egon gabe, elkartu, amestu eta ametsari ekintza gehituz etorkizuna proaktiboki eraiki dezakegula gogorarazten digutenak. Eta bidea bera ere helburu esanguratsu bihurtzen dela jendarte ahaldundu batera bidean erakusten digutenak.

D2030ek ezberdinen arteko lankidetzara gonbidatzen gaitu oinarritzko eraldaketa estrategia gisa: sektore, ezagutza, esperientzia eta profil anitzeko herritarren eta eragileen arteko elkarlanera. Erronka konplexuen garaiotan, sormen eta sortze ariketa sakonak egin beharko ditugu, behar berriei irtenbide berrituak eskaintzeko eta erronka sistemikoei erpin anitzetatik eragiteko. Industria, kooperatibak, administrazioa, herrigintza eta

EZBERDINEN ARTEKO LANKIDETZARA GONBIDATZEN GAITU D2030EK, OINARRIZKO ESTRATEGIA GISA

herritarrek, ezagutza-ikerketak eragileak, artistak, zientzialariak, umoristak, garapen emozionalean adituak, gazte eta helduak... Guztiak behar ditugu eskualde garapen orekatu baterako bidea bilatzeko. Guztiak eta elkarrekin.

Bukatu ziren sektore isolatuaren garaiak, diziplina edo eremu bakoitzak bere iparra, bere plangintza zituen garaiak. Egungo gizarte dilemek transdiziplinartekotasuna eskatzen digute, uluka, urgentea baita eredu aldaketa baterako prozesuetan asmatzea, eta horretarako dugun potentzialitate handiena, bakarra ez bada, gu geu baikara. Eta bai, maiz gu horri buruz zatiketan oinarrituriko istorioak kontatzen badizkiogu ere geure buruari, bada hemen elkarloturik eta elkarreraginean bizi den gu handi bat, pertsona, eragile, sektore, dinamika anitzeko

GIZARTE OREKATUEK PARTE HARTZEAN SAKONDU BEHAR DUTE, AKTOREAK PROTAGONISTA EGIN

norbanako eta taldez osatua. Horixe du Debagoienak eraldaketarako aukera indartsuena, eskualdeak duen inteligentzia kolektibo aberatsa bera. Noski, horrek orain arteko harreman ereduak iraultzea dakar, guztion etorkizunaren aldera norabidetzea bakoitzaren ahaleginak gure ohiko eremu, ohitura eta sare ezagunetatik atera eta lurralde partekatuta batera jauzi egitea.

Gobernantza eredu aldaketa

Elkarlana oinarri izango duen ikuskera eta praktika batek gobernanta ereduak birplanteatzera ere bagaramatza, nahitaez. Zentzu horretan, D2030ek lidergo partekatutako indartzera gonbidatzen gaitu. Eragileak eta herritarrek bagara gure etorkizunaren giltza, balio horren gaineko praktikan ere badugu zer pentsatu. Gobernanta eredu kolaboratiboak esploratzea etorkizun hobe eraikitzeke gako da, elkarlan horri zentzua emateko ezinbesteko osagaia, bai filosofikoki eta baita eraginkortasunaren izenean ere. Lurraldeen garapenak eta gizarte orekatu eta osasuntsuek parte-hartze sakondu behar dute, lurraldeko aktoreak protagonista bilakatzu, etorkizunaren sortzaile eta erantzule. Ez da ariketa erraza, urteetan instituzionalizatutako moldeak birpentsatzea baitakar, deseraikitzea, beste forma bat eman ahal izateko, botere guneak irekitzea –ariketa ausarta, ez atsegina askotan, erabakien jabe diren horientzat– eta eragileek eta herritarrek boterea berenganatzea –inplikatzeko eta ahalduzko prozedura sakona, bestalde, baina erraza ez, edozelan ere–.

D2030 gonbit bat da, anbizioz eta ausardiaz, ilusioz eta sormenez, eskualde honen etorkizuna elkarrekin idaztera.

Tamalez, gizezkoentzako herria oraindik...

ENERITZ UGALDE BARAIAZARRA ETA LIDE GALDOS BALANZATEGI

ARRASATEKO EMAKUMEEN MUNDU MARTXAREN ETA ARRASATEKO BILGUNE FEMINISTAREN IZENEAN ARRASATE

Mugimendu feministaren aspaldiko hausnarketa da udaleko batzorde guztietan egiten diren proposamen guztiak berdintasun begirada batetik aztertzea. Genero berdintasuna zeharkako gaia izanik, ezinbestekotzat jotzen dugu, adibidez, Hirigintzan ikuspuntu hori txertatzea.

Horregatik, harriduraz irakurri dugu Ibon Arrupe Arrasateko Hirigintza, Ingurumen eta Mugikortasun batzordeburuaren *Gizezkoen herriak* artikulua. Ez da erronka txikia, berak dioen bezala mendeetan zehar hiriak gizonen eta eliteen ikuspegitik eraiki izan baitira. Horregatik, herriaren egiturak iraultzeko proposamen ausartak behar direla uste dugu. Aditu asko dira hirigintza eta arkitektura genero berdintasunaren ikuspegitik garatzen dabilzanak azken urteetan, hautua egin duten udalerriekien elkarlanean.

Gai honek plan estrategiko integral bat eskatzen du, gure ustez; adituekin, herriko emakumeekin, bizilagunekin eta eragileekin azterketa sakona, alegia. Guk dakigula, egungo udal gobernuak ez du horrelako planik martxan jarri. Lerro hauen bidez,

prestutasuna adierazten dugu plan estrategiko bat existituko balitz edo egin nahi balute, geure ekarpenak egin eta planaren barruan helburuak zehaztu eta lehentasunak identifikatzen hasteko.

Hirigintza proiektu berriak martxan jartzen badira, horietan genero berdintasunaren ikuspegia txertatzea ezinbestekotzat jotzen dugu. Ibonek aipatutako Ekobulebar izenek proiektuan genero ikuspegitik azterketa serioerik egin ote duten ere ez dugu ezagutzen.

Beraz, Hirigintza genero ikuspegitik nola joratu nahi duten eta Ekobulebar proiektuaren baitan egindako genero azterketaren berri izateko, mugimendu feministako kideok udal gobernuarekin eta Ibon Arruperekin elkartzea eskertuko genuke.

Azterketa zintzorik ez balego, Grupo San Juaneko bizilagunak supremazista matxistatzat jotzea oso larria litzateke; eta baita feminismoa eta genero berdintasuna norberaren interes alderdikoen bandera gisa erabiltzea.

'Resolution', etxean!

ILLART AZKARATE ITURBE

ARRASATEKO SAREREN IZENEAN ARRASATE

Badira hilabete batzuk Izan Bidea ekimena martxan jarri genuela. Arrasaten bertan ere ekimen ugari antolatut dugu, atxikimendu ugari jasoz.

Presoen eta iheslarien etxeratzearen, elkarbizitzaren

eta bakearen alde pausoak eman ditugun arrasatearrak asko gara, bidea egiten ari garenean arrasatearrak asko gara.

Norabide berean urratsak egiten jarraitzeko asmoa dugu. Bidea egiten jarraitzeko. Eta horretarako, aurrera begira jartzen gara. Aurrera begira, aurrera egin nahi dugulako. Urriaren 24ari begira.

Egun horretan, Donostian elkartuko gara milaka herritar bilduko dituen manifestazio eta mosaiko erraldoian. Bertan mundu osoari zuzenduko gataizkio, mundu osoak jakin dezan oraindik hemen ehunka preso etxetik ehunka kilometrora daudela; oraindik ere presoen gehiengo lehena graduaren edo zigor graduaren dagoela; oraindik ere emakume presoek bakartuta jarraitzen dutela; ehun haur motxiladun inguru daudela; larri gaixo dauden presoak heriotzara arte espetxean mantentzen dituztela... Finean, oraindik orain, hau guztia ahalbidetzen duen salbuespenezko espetxe politika indarrean dela. Oraindik ere, Iosu Arkauz eta Unai Parot arrasatearrak espetxean mantentzen dituen espetxe politika indarrean dutela.

Horregatik, *Resolution! Etxean!* lelopean, unea dela, gehiengoak aldaketa nahi dugula, egoera hau ezin dela betikotu eta elkarbizitzaren baitan aurrera egin ahal izateko, salbuespenezko espetxe politika bertan behera utzi eta presoen eta iheslarien etxeratzearen prozesua abian

jartzea ezinbestekoa dela aldarrikatuko dugu.

Donostiara joateko autobusa antolatu dugu Arrasateetik. 15:30ean, Garibaitik. Autobusean joateko izen ematea Irati tabernan egin dezakezue.

Bidea ibiliz egiten dela badakigu, eta gu aurrera urratsak egiteko prest gaude. Segi dezagun bidea egiten, bidea izan gaitezen. Urriaren 24an etorri gurekin Donostiara!

Ibon Arruperi erantzunez

ITXARO ARTOLA

ARRASATEKO EH BILDUREN IZENEAN ARRASATE

Arrasateko Udalean Hirigintzako batzordeburu eta alkateorde den Ibon Arrupek kaleratu duen iritzi artikulua dela eta, hau adierazi gura dugu Arrasateko EH Bildutik:

Onartezina da udal agintari batek herritarrekiko errespetua galtzea. Ez da lehenengo aldia, ez eta bigarrena ere, Arrupe jaunak bere planteamendu urbanistikoekin edota ideologiarekin bat ez datozen herritarrei mespretxuz erantzuten diena. Oraingo honetan, matxista supremazistak omen Grupo San Juaneko arkuia bota gura ez duten auzokoak.

Uste dugu badela garaia karguan jarri zuen Maria Ubarretxena alkateak etika politiko minimoena ere ez daukan alderdikidearen jarrera babesteari utzi eta neurri zuzentzaileak hartzeko.


Onartezina da, halaber, Arrupe jaunak Grupo San Juanen gauzatzeko asmoa duen proiektu urbanistikoa defendatzeko genero ikuspegiaren aitzakiaz baliatzea, aipatu arkuia puntu ilun bat dela argudiatuz. Logika horren arabera, etxalde osoa eta, are, Zaldibar frontoia bota beharko lituzke.

Urteak daramatzagu Arrupe jaunari bai oposiziotik, bai mugimendu feministatik herriko puntu ilunak ezabatzen plangintza integrala eskatzen. Emakume Txokoan egindako tailer batean parte hartu zuten herritar batzuek ere gaiaren inguruan egindako azterketa helarazi zioten aspaldi, eta kajoian gordeta dauka. Eta berdin, behin Emakume Txokoa aipatuta, herriko puntu ilunenetako bat den udal zerbitzu horren sarrera konpontzeko egitasmoa, EAJ-PSOEek udal gobernu hartu zutenetik geldirik dagoena. Horiak esanda, eskaera hauek egiten dizkiegu Arrupe jaunari zein hirigintzaburu izendatu zuen udal gobernuari: bat, Arrupe jaunak Grupo San Juaneko auzokoen inguruan esandako publikoki zuzendu ditzala; bi, hirigintza feminista baten alde benetan badaude, gaiaren inguruko plangintza osoa egiteari ekin diezaiotela, 2021eko udal aurrekontuan baliabide pertsonal zein ekonomikoak jarriz eta hori aldarrikatzen urteak daramatzaten mugimendu feministarekin eta oposizioko alderdiekin lankidetzan arituz.

GUTUNAK: Karaktereak, gehienez: 2.000 (hutsuneak barne). GOIENAK eskubidea du gutuna laburtzeko. Gutunak ezin izango dira kapituluka bidali. Gutun edo iritzi-zutabe bati ezin izango dio pertsona berak kapituluka erantzun; gutun bakarrarekin erantzun beharko dio. Gutunarekin batera bidali beharreak: egilearen izena eta abizena, herria, harremanetarako telefonoa eta nortasun agiriaren zenbakia. Gutuna helarazteko bideak: Otarora Lizentziaduna 31, 20500 Arrasate / gutunak@goiena.eus

HAUXE BAI JENEROA!

GARBIÑE UBEDA





Olatz eta Ainhoa Etxabe, Arrasateko udaletxearen aurrealdean. XABIER URZELAI

Olatz eta Ainhoa Etxabe: "Aitortza behar dugu, egia, zauriak osatzeko"

Gaur, egubakoitza, oroimen eta aitortza ekitaldia egingo diete German Agirreri eta Iñaki Etxaberi; hori dela eta, Goiena telebistako 'Hemen Debagoiena' saioan izan dira Olatz eta Ainhoa Etxabe, Iñakiren alabak; Germanen senideek ez dute berba egin nahi izan

Eneko Azurmendi ARRASATE

Kanpanzarren Etxabe Enea jattetxea zeukan Etxabe familiak eta han bertan bizi ziren, 1975eko urriaren 5eko gaua iritsi zenean. "Oso ondo gogoratzen dut gau hura. Anai-arrebok eta ama ohean geunden, eta tiro batzuk entzun genituen. Hori dela eta, ama eta ni jaitsi egin ginen eta aita lurrean ikusi genuen, hilda", azaldu du Olatz Etxabek. "Hiru kaputxadun sartu ziren jattetxera, eta han zeudenei esan zieten lurrean etzateko, gas moduko bat botaz. Aita sukaldetik irten zen, ea zer gertatzen ari zen ikusteko, eta 18-20 tiro eman zizkieten. Osabak, hori entzutean, denbora eduki zuen biltegian ezkutatzeko", gaineratu du.

Dituen oroitzapenak "gogorak" direla onartu du Olatzek. "Baina oroitzapen gogorrak dira amaren egoeraren aitarenak

baino. Aita lurrean hilda zegoen, eta ama guztiz bere onetik kanpo", dio. Ondorengo orduetan *shock* moduko bat izan zuela adierazi du, eta ez duela ondo gogoratzen. "Hurrengo egunean, osaba batzuen etxera joan nintzen. Gogoratzen dut hiletara joan nahi nuela eta ez zidatela uzten, baina, azkenean, lortu nuen han egotea". Garai hartan, oinez joaten ziren elizatik kanposantura. "Gogoratzen dut Portaloitik pasatu ginenean Guardia Zibilak zeudela guri apuntatzen. Gure aitaitak esan zien: 'Ez al duzue nahikoa egin?'".

**OSOKO BILKUREN
ARETOAN IZANGO DA,
18:30EAN; ZUZENEAN
JARRAITU AHALKO DA
KULTURATEN ERE**

"Biktima erraza zen haientzat"

Ainhoak azaldu duenez, hilabete lehenago bonba batzuk jarri zizkieten eta gurasoek erabaki zuten Kanpanzar utzi eta kalera jaiste bizitzera, herrian bertan negozio bat zabaltzeko. "Hala ere, ez zigun denborarik eman".

Urriaren 5ean bertan izan zen ETaren Oñatiko atentatua, Guardia Zibilaren aurkakoa. "Horren ondoriozko mendeku bat izan zen gurea. Gure aita erraza zen haientzat, bazekiten non bizi zen, eta familia guztiari min egiteko modu bat izan zen".


Zigorrik ez dago oraindik

Autopsiaren emaitza ere ez dake oraindik. "Hilabetera, amari autopsiaren faktura iritsi zitzaion, baina ez autopsia bera".

Urtebeteren ostean, Batallon Vasco Españolak bere gain hartu zuen erailketa. "Hala ere, inor

1975eko urriaren 5ean hil zuten

Arrasateko Udalak *Memoria partekatuta baterantz 1956-2018* txostenean jasota du familiak Kanpanzarren zuen jattetxean, Etxabe Enean, erail zutela Iñaki Etxabe, 39 urte zituela. "Anaia Luisek ezkutatzea lortu zuen, eta bizirik irten zen. Hiru erasotzaileek, tiro egin aurretik, ke eta gas potoak jaurti zituzten bezeroen artera. Esan zenez, erasoaren helburua hirugarren anaia izan zitekeen, Gregorio, Arrasateko Udaleko zinegotzia baitzen. Hala zioen Juan Jose Etxabek. Juan Atares Peña Guardia Zibileko jeneralak ustez ETaren Arantzazuko atentatuaren ondoren esandako esaldi hau aipatzen du: 'Gaurkoan gogoratuko da Arrasate gutaz'. Elisabete Bizkarralegorra legelariak kontatzen duenez, erasotzaileek 'zuen bila gatz' esan zuten tiroka hasi aurretik. Atentatu hura gerora hartu zuen bere gain Batallon Vasco Españolak", dio txostenak.



Iñaki Etxabe. ARTXIBOA

1975eko urriaren 12an hil zuten

Goian aipatutako txostenean Udalak jasota duenez, German Agirre Irasuegi taxilaria hilik aurkitu zuten Santa Engraziko urtegiaren ertzean, Legutión (Araba), Guardia Zibilaren herriko kuarteletik ehun metro ingurura. Bergararra zen izatez, baina Arrasaten egiten zuen lan. Hil zutenean, Agirrek 38 urte zituen, eta bi seme-alaba. Txostenak dioenez, Agirrek hiru bala-zuri zituen buruan. "Iñaki Etxaberen aurka Kanpanzarren egindako atentatua nork egin zuen eta Bengoa tabernako lehergailua nork jarri zuen jakin zezakeelako hil zutela uste da. Arrasaten zuen taxi-geralekua, eta sei urte zeramatzen herrian bizitzen", jasotzen du txostenak.

Inkontrolatuak izan ziren Agirre erail zutena; hau da, eskuin muturreko kideak eta Estatuko segurtasun indarretako zenbait kide zituen taldea.



German Agirre. ARTXIBOA

ez dute zigortu horregatik. Bere garaian, atestatu batzuk egin ziren eta ikerketa bat hasi zuten, baina ez daukagu modurik horiek eskuratzeko. Horiek dira erailketa izan zela frogatzeko modu bakarra. Dirudienez, 50 urte pasa behar dira horretarako".

Etxabearrek azaldu dute oraingoz ez dutela aukerarik atentatu bat izan zela frogatzeko. "Aitaren erailketak ez du izan aitortzarik. Behar dugu aitortza hori, norbaitek esatea haiek izan zirela, gaizki egon zela, eta bar-

kamena eskatzea. Guk ere egia behar dugu. Zauriak ez dira ondo sendatzen egirik eta aitortzarik ez badago. Hala ere, epe motzera, zail ikusten dut Estatuak aitortza hori egitea, gauzak asko aldatu beharko liriateke horretarako".

Agirrerren senideek, ezezkoa

German Agirrerren senitartekokin ere jarri da harremanetan GOIENA, baina uko egin diote gonbidapenari, hedabideetan agertu gura ez dutela arrazoituta.

"Lauzpabost" miloi euro gutxiago, pandemiagatik

Maria Ubarretxena Arrasateko alkatea Goiena telebistako 'Harira' saioan egon da asteon, eta, hainbat gairen artean, aipatu du pandemiak eragin ekonomiko izango duela Udalean. "Hala ere, ez dugu arazorik izango 2020. urtea ondo bukatzeko", dio



Maria Ubarretxena, Goiena telebistako platoon, martitzean. E.A.

Eneko Azurmendi ARRASATE

COVID-19aren eraginez lau-pabost milioi euro gutxiago izango ditu Udalak, Ubarretxenaren esanetan. "Foru Funtsetik jasoko dugun dirua gutxiago izango da, nahiz eta urtarril edo otsailera arte ez dugun jakingo zenbat izango den. Egin genuen aurreikuspenaren arabera, %20 gutxiago jasoko dugu. Hala ere, urtea bukatzeko arazorik ez dugu izango. 2021era begira, aurrekontua lantzen ari gara eta ia bukatuta daukagu. Foru Funtsetaren aurreikuspenaren zain gaude, eta asmoa da datorren astean Ogasun batzordean aurkeztea", gaineratu du.

TAO sistema, 2021eko udarako

Alkateak dio ordenantza aurkeztu dutela Hirigintza batzordean eta lantzen ari direla jada. "Tarifekin ere laster hasiko gara. Ordainpeko sistema izango da, baina irabazi asmorik gabekoa. Hau da, Udalak ez du zentimo bat bera ere irabaziko, sistema iraunkorra izatea delako asmoa, bera bakarrik moldatuko dena. Asmoa da 2021eko udarako prest egotea sistema", azaldu du.

Kataideko bidegorriko zatiaz

Aldundiari dagozkio Kataideko bidegorriko lanak. "Lan horiek

hasita egon beharko liriteke, eta Aldundiarekin harremanetan jarri ginen. Antza, Uraren Euskal Agentziaren baimen bat falta zen, eta urriaren 2an iritsi zitzaigun baimen hori. Beraz, Diputazioak informatu digunez, lizitazioarekin hasiak dira".

Gipuzkoako Foruen plazaren eta Leintzibar kaleen arteko loturari dagokionez, agintaldi honetan bukatzea da asmoa.

Bizilagunekin beste bilera bat

Grupo San Juaneko bizilagunekin berriz bilduko da Udala Gobernua, urriaren 20an. "Egia da haien artean ere ez daukatela erabateko adostasunik. Batzuek proiektuak aurrera egitea nahi dute. Baina ea zerbait kontsentsuz erabakitzeke gai garen".

Juan Arzamendiko lanak

Falta den zatiaren proiektuaren berrikuspenarekin ari da lanean Udala. "Berriz atera behar dugu lehiaketa publikora, falta den zatia egiteko. Horretarako, zehatz-mehatz jakin behar dugu ze zati falta diren egiteko. Une hauetan hori gauzatzen ari dira, bi hilabete eta erdiko epea dute. Ondorioz, gauzak oso ondo joanda, 2021eko bigarren sei hilabekoan abiatuko dituzte berriz lanak". Elkarrizketa osoa, *Goiena.eus*-en.

153 entitate eta 661 arigune Arrasateko Euskaraldian

Entitateek izena emateko azken txanpa "oso indartsua" izan dela azaldu du Jokin Etxebarria Arrasateko Euskaraldiko dinamizatzaileak. "Batzuek, arazo batzuk tarteko, ezin izan dute izena eman, baina parte hartzeko prest azaldu dira". Beraz, 153 baino gehiago izango dira. Bestalde, 533 herritarrek eman dute izena jada -horietatik 74, berriak-.

Txikitxokoa irekita, ohiko ordutegian eta edukiera mugatuta

Urriaren 13an ireki zituen ateak Txikitxokoa, eta egunero egongo da irekita, 09:00etatik 14:00etara eta 16:00etatik 20:00etara. 0-6 urte bitarteko haurrentzako zerbitzua da, eta heldu baten laguntzaz egon daitezke han. Ohiko edukiera murriztu dute eta gehienez 36 pertsona egon ahal izango dira. Baldintza batzuk bete beharko dira barruan.

URRIAK 31
BONUAK EROSI
ETA GASTATZEKO
AZKEN EGUNA

10€ EMAN 30€ JASO

LORTU ZURE BONUAK BAZ-EN ETA UDALETXEAN

Txikiak egiten gaitu
HAUNDI

ARRASATEKO ENPRESA TXIKIAK
ETA KOMERTZIOA SUSTATZEN

Informazio gehiago www.txikiakegitengaituhaundi.eus

ARRASATEKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE MONDAGÓN

Kafea eta txokolatea dastagarri bihar azokan

Pobreziaren Aurkako Nazioarteko Egunaren harira, biharko azokan txokolatea eta kafea dastatzeko aukera izango da, Harremani eta Udalari esker. 11:00etatik 13:30ra bitarte, "kalitatezko" produktuak probatzera animatu gura dituzte arrasatearrak

Maialen Santos ARRASATE

Pobreziaren Aurkako Nazioarteko Egunarekin bat eginez, txokolate eta kafe dastatzea antolatu du Harremanek, Arrasateko Udalaren laguntzarekin. Baserritarren azokan postu bat izango dute, eta dendako arduradun Marian Porcelek azaldu du "ahalik eta herritar gehienengana iristea" izango dutela helburu. "Herritarrak animatu gura ditugu produktuak probatzera. Kalitatezkoak eta osasungarriak dira, eta irizpide ekologikoei jarraiki daude eginda".

Edateko txokolatea eramango dute, eta portzentaje ezberdinetako tabletak ere bai. "Ekuadorko, Sao Tome eta Principeko, Dominikar Errepublikako eta Paraguaiako txokolatea daukagu dendan, besteak beste". Halaber, "kafe mota ezberdinak" ere eramango dituzte azokara.

Kontsumitzaileen boterea

Kontsumitzaileen boterea azpimarratu du Harremaneko presidente Javier Ruiz de Munainek. "Kontsumitzen dugunaren arabera, produkzio moduetan eragin dezakegu". Egun, kafearen eta txokolatearen nazioarteko korporazio batzuk badaude bidezko merkataritzaren bitartez elaboratutako produktuak saltzen dituztenak, eta hori garrantzitsua da. Beraz, egin dezagun bidezko komertzioaren aldeko erosteta".

Hain zuzen, bidezko merkataritza ahalik eta esparru gehienetara zabaltzea gura dutela adierazi du Porcelek: "Natura errespetatzea da bidezko merkataritzaren oinarritzako balioetako bat, eta pandemiarekin

**IRIZPIDE EKOLOGIKOEI
JARRAIKI EGINDAKO
PRODUKTUAK
SALTZEN DITUZTE
HARREMAN DENDAN**



Harremaneko ordezkariak eta Maria Ubarretxena alkatea, martitzenean. E.A.

agerian geratu da beharrezkoa dela. Larrialdi klimatikoak hor jarraitzen du, eta ikuspegi orokor batetik guztia batera gaitzen saiatu behar dugu". Gehitu duenez, bidezko merkataritzak "erreminta garrantzitsuak" eskaintzen ditu, eta dagoeneko "50 urte baino gehiago dira" munduan saretuta dagoenetik.

22 urte zabalik

Harreman dendak 22 urte daromatza zabalik, eta Debagoieneko elkarte eta talde desberdinek hartzen dute parte bertan. Aurtengo salmentak iazkoen aldean %20 "murriztu" direla aitortu du Ruiz de Munainek. Hala, Harremanen dituzten produktuak erostera animatu gura dituzte herritarrak, eta dendarako boluntarioak behar dituztela ere azaldu dute, bidez batez.

Gogoratu behar da Arrasateko Udalak bidezko merkataritzaren hiriren ziurtagiria daukala. "Udaletxeko kafea, esaterako, bidezko merkataritzakoa da eta Gabonetan edota San Nikolaseko boloan erabiltzen ditugun karameluak ere bai", azaldu du Maria Ubarretxena alkateak.

Sagarra, protagonista nagusia

Bihar Seber Altube plazan egingo duten baserritarren azokan sagarrak toki berezia izango du.

Bailarako baserritarrek aurtien ez dute saltzeko beste sagar, eta Haristizabal baserriko (Ezkio-Itsaso) Eneko Solana izango da postua jarriko duena. Gainera, antolatzaileen esanetan, hileroko otarraz gain, hamar sorta zozkatuko dira sagarra protagonista duten produktuekin.

Udaleko teknikari Nerea Lazpiurrek adierazi du askotariko produktuak erosteko aukera izango dela bihar, baina urteko sasoiak kontuan hartuta txorizoak eta babak ere egongo direla aukeran. Bailarako gazta eta gozoko ere ez dira faltako.



NIRE USTEZ

RAMON UGALDE

Ustelkeria kulturala

Iruña-Veleiako ostraketan agertu ziren idatziak aztertzeo, EHU-UPVko katedradun batzuek txosten *zientifiko* batzuk egin zituzten. Euren artean Joseba Lakarra -Euskaltzaindiko kidea-, Juan Santos eta Joaquin Gorrochategui zeuden. Kategoria handiko adituak, itxura batean. Aditu hauek **IISCAR* jartzen zuen lekuan *DESCARTES* irakurri zuten, eta *DENOS*-en ordez *DENOK*. Foro askotan frogatu zuten txostengileek ez zituztela ondo irakurri ostraketako idatzi horiek. Gainera, Lakarrak bere txostena "Laus Deo" batekin bukatu zuen. Bere lana Jainkoa laudatzeko egin zuela adierazten du horrek, alegia. Eta, agian, horregatik inork ez zien konturik eskatu, ez EHU-UPV, ez Euskaltzaindiak ez eta ordezkari politikoeke ere... Hala eta guztiz ere, nork ukatuko dit hau ez dela ustelkeria kasu lotsagarri bat? Bestalde, badakigu PISA txostenaren arabera EAEko ikasleek irakurritakoa ulertzeko zailtasunak dituztela. Gauzak horrela, unibertsitateko katedradunek eta euskaltzainek ez badakite irakurtzen, ez dira harrituko ikasle xumeek ere ez dakitelako, ezta?

Ikastetxeen eta udal-eraikinen garbiketa areagotu du Udalak

"Gune amankomunen" garbiketa indartu dute, batez ere. Ikastetxeetan, garbiketa "ia bikoiztu" egin dute

M.S. ARRASATE

Udalak azaldu du "gune amankomunen" eta "asko ukitzen diren" elementuen garbiketa indartu dutela. Langileek ere norbere postua garbitu beharko dute, halere: "Garbiketa zerbitzuak astero garbituko ditu lanpostuak, baina langile bakoitza arduratu beharko da bere lanpostuko azaleko garbiketaz. Bilera geletako mahai eta harreraguneetako manparekin ere antzeko jokabidea jarraituko dute. Hartuko diren neurriek, abendura bitarte, 68.652,72 eu-

roko aurrekontua izango dutela zehaztu dute. Bestalde, garbiketa zerbitzua "ia bikoiztu" egin dute Erguin, Bedoña eta Musakola ikastetxeetan eta Bedoñabe eta Musakola haur eskoletan, Udalak azaldu duenez. "Guztietan komunak hiru aldiz garbitzen dira eta esparru askotariko gelak egunean bitan. Horrez gain, Jaurilaritzaren protokoloari jarraiki, ohiko lanak sakonago egiten dira". Garbiketa-zerbitzuaren errefortzuak 105.700 euroko inbertsioa ekarri du, zehazki.

Haur eta gazteei zuzendutako antzerki eskola abiatuko dute

Haur eta gazteei zuzendutako antzerki eskola martxan jarriko dute Doke antzerki taldekoek -8 eta 11, eta 12 eta 15 urte bitartekoentzako-. Azaroan hasi eta ekainera bitartean arituko dira, talde murriztuetan. Izena emateko, 665 11 85 72 telefonora deitu edota *dokeikastaroak@gmail.com* helbide elektronikora mezua idatzi behar da.

Asisko Urmenetak berbaldia eskainiko du Kulturaten

Komikigile nafarra Kulturaten izango da datorren eguaztenean, urriak 21, 19:00etan. *1620-2020. Independentek ginen. Independentek behar dugu hitzaldia eskainiko du, Zuztarrak Errotuz taldeak antolatuta. Antolatzaileek azaldu dute duela 400 urteko historia izango dutela berbagai; eta garaiko zenbait pasarte ere kontatuko ditu Urmenetak.*

Ipuinak eta kantuak, lehen hitzak gogoratzeko

'Azalerako ipuinak' izeneko ipuin kontaketa saioa eskainiko du Udal Bibliotekak datorren asteko zapatuan, Liburutegiaren Eguneko ekintza nagusi gisa. 3 urte arteko haurrek hizkuntza eta gorputz adierazmena lantzea du ardatz tailerrak

Hasier Larrea ARRASATE

Urriaren 24an Liburutegiaren Eguna ospatuko dela eta, saio berezia antolatu du Udal Bibliotekak: etxeko txikienei eskainitako ipuin kontaketa saioa. 3 urtera arteko haurrek eta euren gurasoek ordubeteko tailer laburra jaso ahalko dute, 11:00etan hasita, Udal Bibliotekaren webgunean izena emanda. Emanaldia Saroa Bikandi ipuin kontalariak bideratuko du. Durangarrak lotura estua dauka Kulturarekin, urtero etortzen da eta umeei bideratutako egitasmoak dinamizatzen.

Bederatzi urte daramatza Bikandik umeen literaturan murgilduta: "Ama izan nintzenezan esparru honetan sakontzen hasi nintzen: ipuinak kontatu, masajeak eman, kantuak abestu... Hizkuntzaren lehen ikasketa prozesua gorputz adierazmenarekin zeharo lotuta dagoela konturatu nintzen". Baliabide ugari jartzen ditu haurren zerbitzura, baina aipagarrienak jolasa, hizkuntza, erritmoa eta errima dira. "Umeei tarte goxoa pasatzen dute saio hauetan, eta gurasoek sorpresa politak ermaten dituzte; badirudi txikiak direlako ulermen murrizta daukatela, baina gero, uste baino ikasteko gaitasun handiagoa



Azalerako ipuinak saioetako batean. SAROA BIKANDI

erakusten dute", adierazi du ipuin kontalariak.

Seme-alaba jaioberriak dituzten gurasoek tresna interesgarriak aurkitu ahal dituzte *Azalekoipuinak.eus* webgunean. Sortzaileen testu, hots eta doinuetan oinarritzen den disko bat entzun daiteke bertan, adibidez. Gisa horretako ikuskizunak antolatzeke jarraibideak ere ematen dira gunere birtualean.

Ekintzak, hilabete osoan

Joan den asteazkenean, *Franckenstein berpiztuko balitz* ipuin

kontaketa bideratu zuen Ana Galarraga zientzialariak Santa Marinako bibliotekan, eta beste horrenbeste egingo du Kulturaren datorren ostegunean, 18:00etan. Izen-ematea zabalik dago, beraz.

Urri osoa barnebildu duen Udal Bibliotekaren egitarau mardulari hilaren 30ean emanngo zaio itxiera, Mursego musikariaren *LAPUR(ari)KETAK* izeneko kontzertuarekin. Ekitaldi hori gazte eta helduei zuzenduta dago, eta 18:00etan hasiko da, Kulturaren bertan.

Libertad Condicional taldeak abesti berria argitaratu du

'Errautsetatik berpizten' diskoaren aurrerapen pilula bezala aurkeztu dute 'Mil vivencias' izeneko abestia

H.L. ARRASATE

Gabonen inguruan aurkezteko asmoa du Libertad Condicional punk-rock talde gazteak bederatziko abestiz osatutako bigarren diskoa. Aste honetan igo dute sarera lan horren lagin txiki bat: *Mil vivencias* kantua.

Peru Atxa baxu-jolearen esanetan, *Errautsetatik berpizten* izenburua "punk-rock taldeen apologia" bat da: "Gaur egungo tendentziak gorabehera, oraindik galdu ez garen froga".

Bizimoduaren jabe diskoan baino "doinu landuagoak" aurkituko ditu entzuleak bigarren horretan. Estiloen, baina, ez da aldaketa nabarmenik igarriko, "mezuak argi eta garbi" helarazten dira eta. Hizkuntza aldetik ere bada nobedaderik; izan ere, euskarazko hitzak dira gehien entzungo direnak, "aurreko lanean gazte-lerazkoak nagusitu ziren bezala".

Garai latzak bizi dituzte zirkuitu txikietan mugitzen diren taldeek, eta pandemiak ez du batere laguntzen, baina Libertad Condicionalekoek ez daukate kikiltzeko aitzakiarik, are gutxiago horren talde gaztea izanik. "Hemendik eta abendura bitartean bi bideo klip grabatzeko asmoa daukagu; entseetzen ere bagabiltza, astero ematen diegu erreperatorio propioa hamazazpi abestiei", aitortu du Atxak.

Dena prest estreinaldirako

Oiartzungo Ugaldetxoko eskolako estudioan findu dute musikariek *Errautsetatik berpizten* LP berria, eta emaitza esku artean daukate jada. Neguaren hasierarekin batera aurkeztu nahi dute, zuzeneko batekin, "eta, ahal bada, zutik". Ziur herriko garra berpizteko gai direla.

'Fadoak entzuten zituen gizona' antzezlan domekan

Joan den astean Bergarako Seminarixoan antzeztu zen *play-movie*-ak Amaia antzokia hartuko du geltoki domeka honetan, hilak 18, 19:30ean. Kepa Errasti, Iñigo Aranbarri eta Ane Gabarain aktoreek maskulinitatea ardatz duen "obra makarra" proposatuko diete ikus-entzuleei, ateraldi komiko eta sarkastikoz betetako bidaiari zehar.

Amorante artista garaikideak ostatu hartuko du Kooltur-en

Datorren ostegunean, hilak 22, Iban Urizar tronpeta-jolea izango da gaztetxean, 22:00etan hasita, Kooltur Ekintzak antolatuta. Amorante izen artistikoa soinean, esperimentazioan oinarritzen diren doinu tradizional eta berritzaileak nahasten maisua da elgoibartarra. Ezohiko ikuskizunaz gozatu nahi duenak badaki nora joan.




Atariak	Tabernak
Bulegoak	Kristalak
Etxebizitzak	Fatxadak
Elkarte gastronomikoak	Teilatu-hodiak

686 57 67 83 Adolfo • 619 17 32 86 Maria Elena



Martxa eta estilo handiko arropa

Iturriotz, 9 • ARRASATE • Tel.: 943 79 81 82

arbolapeta



beinke

20 entitate batu dira Euskaraldira Aramaion

Azaroaren 20tik abenduaren 4ra egingo da bigarren Euskaraldia ariketa soziala. Oraingoan, entitateek protagonismo berezia izango dute, ariguneen bitartez. Aramaioako koordinatzaileak pozik daude Euskaraldiak herrian izan duen harrerarekin

Arantzazu Ezkibel Galdos ARAMAIO

Aramaioako hogeitaz hamar entitatek eman dute izena azaroaren 20tik abenduaren 4ra bitartean egingo den ariketa sozialean. Eskola, euskara elkarteak, tabernak, komertzioak... izan dira Euskaraldiarekin bat egin eta aipatutako egun horietan euskaraz aritzeko konpromisoa hartu dutenak.

Euskaraldiaren koordinazio taldeko kideak "pozik" daude erantzunarekin. "Ez genuen espero horrenbeste entitatek parte hartuko zutenik", dio Rosa Mondragonek.

Jarrera aktiboa izatea

Nahiz eta Aramaio arnasmunean izan euskarari dagokionez, denek dakite badagoela zer hobetua. Hori horrela, konpromisoa hartu dute jarrera aktiboa izateko, horrek eragingo dien esfortzuarekin.

San Martin eskolan, esaterako, euskararen arnasmune izatea zer den landu dute *Ikimilikiliklip* tailerraren bitartez. "Argi daukagu lanean jarraitu behar dugula", dio Junkal Garai irakasleak. Eskolak herrian duen presentzia ikusita, eta eskola herriko partaide den heinean erabaki dute Euskaraldiarekin bat egitea: "Hiru arigune sortu ditugu. Arigune bat kanpokoekin



Euskaraldiaren inguruan egindako bilera irekia, irailean. A.E.

NORBANAKOEN TXANDA DA ORAIN: 'AHOBIZI' EDO 'BELARRIPREST' IZATEA AUKERAN

harremanetan daudenek osatuko dute; zuzendaritza taldekoek, batez ere. Beste bi ariguneak izango dira HHko ikasleak eta LHko ikasleak".

Aramaioako koordinazio taldeak Euskaraldia girotu eta zabaltze-

ko asmoekin jarraitzen du. *Egunean behin* jokoan, esaterako, *Aramaioxon euskeraz* taldeko partaideen artean sariak banatuko dituzte. Horrez gain, *Aramaio.eus* atarian Euskaraldia bideratutako atala sortu dute eta sare sozialak erabiliko dituzte informazioa zabaltzeko.

Norbanakoek izena eman

Norbanakoek txanda da orain: *ahobizi* edo *belarriprest* gisa izena emateko epea zabalik dago. *Euskaraldia.eus* atarian eman behar da izena.

Aurten Erretiratuen Egunik ez ospatzea erabaki du Udalak

Urriko azkeneko zapatuan egin izan den ospakizunak jende asko biltzen duelako hartu dute erabakia


A.E. ARAMAIO

Udalak erabaki du aurten ez antolatzea Erretiratuen Egunik. "Bizi dugun egoera berriaren aurrean hartu dugu erabakia", diote Udaleko arduradunek.

Urriko azkeneko zapatuan izaten da Erretiratuen Eguna; Aramaion urteko egun politenetako bat izaten da. Hori horrela, jende asko batzen da festaren bueltan: herritarrak bai, baina baita kanpotik etorritakoak ere. "Urtero goiz partean egiten den azokan zein eguneko bestelako ospakizunetan pertsona asko biltzen dela kontuan hartuta, bertan behera geratu da Erretiratuen Eguna", azaldu dute arduradunek, ohar bidez.

Azoka eta bazkaria

Pena handiz bada ere, aurten ez da Nardeaga kalea erakusmahai beteko: herriko eta in-



Bi gizon animaliei begira. GOIENA

guruko artisauen eta nekazarien erakusleihu izan ohi da azoka.

Herriko abeltzainek ere izaten dute euren txokoa. Hala, animaliak ikusteko aukerarik ere ez da izango aurten; eta erretiratuak, berriz, euren bazkaririk gabe geratuko dira.

Udalak antolatutako kirol eskaintzan lau talde sortu dituzte

Aramaioako kirol eskaintzan izena emateko epea amaitu ondoren, Udalak antolatu ditu 2020-2021 ikasturteko taldeak. Lau ekimen izan dira aurrera ateratakoak.

Mantentze gimnasia izango litzateke lehenengo ekimena edo taldea. Martitzen eta eguenetan elkartuko da taldea, 10:45etik 11:45era bitartean. Mantentze

gimnasiako taldea bederatzi pertsonak osatuko dute.

Pilatesa goizez eta arratsaldean eskainiko dute: goizeko taldea osatuko dute bederatzi lagunak eta elkartuko dira martitzen eta eguenetan, 09:30etik 10:30era bitartean. Arratsaldeko taldea astelehenetan eta eguenetan elkartuko da, 19:30etik 20:30era bitartean.

GAP taldea elkartuko da astelehenetan -zazpi lagun- eta eguaztenetan -zortzi lagun-, 18:15etik 19:15era bitartean.

Ibarra biziberritzeko plana azaroaren 9ra arte egongo da ikusgai

Udalaren azkeneko osoko bilkuran, Ibarra hiri berrikuntzako plan bereziari hasierako onarpena eman zitzaion. Hala, dagoeneko argitaratu dute Arabako aldizkarian, eta, hori horrela, udaletxean ikusgai dago plana. Azaroaren 9ra arte egongo dira ikusgai Ibarra hiri berrikuntzako plan bereziaren nondik norakoak udaletxean.


Udaletxeko bulego ordutegian joan beharko da plana ikustera eta alegazioak egitera. Goizez 09:00etatik 14:00etara eta eguazten arratsaldean 16:30etik 18:30era bitartean.

Kontsulta daitezkeen hainbat dokumentu jarri dituzte ikusgai herritarren eskura -*Aramaio.eus* atarian ere kontsulta daitezke-. Ibarra birgaitzerako plana-memoria, planoak, hizkuntza inaktuaren ebaluazioa, generoaren arabera ebaluazioa eta arau partikularrak.




JUNKAL GARAI
IRAKASLEA

"Herrian eskolak badu presentzia, herriko partaide sentitzen gara, eta guretao hizkuntza oinarriko erreminta da. Hiru arigune sortu ditugu".



AINARA INUNTZIAGA
KINTELENAKO LANGILEA

"Ondo dator horrelako ariketa bat egitea. Gugandik hasita, ikusten dugu gehiago egin daitekeela euskaraz. Ohitura txar batzuk baditugu".



EKAITZ HORRILLO
OKINDEGIKO LANGILEA

"Animatu egin gara Euskaraldian parte hartzera. Aramaio herri euskalduna den arren izaten ditugu gaztelerez egiteko ohitura batzuk".

"Bertsolaritzak badu etorkizuna Araban"

AITOR UGARTE BERTSOLARIA

Zapatuan Murgian jokaturako eskolarteko txapelketako finalean irabazi zuen txapela Aitor Ugarte bertsolari aramaioarrak. Euskal Herriko finalerako txartela lortu du

Arantzazu Ezkibel Galdos ARAMAIO

Pozik dago aramaioarra lortutako txapelarekin, nahiz eta egindako lanarekin "ez hain konforme" egon. Gaur beteko ditu 18 urte Ugartek.

Zorionak lortutako txapelagatik! Espero zenuen?

Banekien aukerak nituela, esperientzia daukat eta eskolartekoan. Lau final jokatu ditut, eta bitan izan naiz txapelduna, 2018an eta aurten.

Nolako finala izan zen?

Iaztik asko aldatu da finaleko argazkia. Jende berri asko eta oso gaztea zegoen. Araban badago etorkizuna bertsolaritzaren inguruan.

Eskolarteko Euskal Herriko finala jokaturako da azaroaren 14an Abadiñon. Hor ere baduzu esperientzia.

Bai, hori da asmoa, baina ikusi egin behar ze bilakaera duen bizi dugun egoerak. Iparraldean, Nafarroan... neurri ezberdinak har ditzakete pandemiaren aurrean. Hala ere, ni oso gogotsu nago, eta bai, badut esperientzia. Hiru aldiz jokatu dut Euskal Herriko finala eskolartekoan. Aurtengoa azkena izango da.

Zapatukoa Arabako bertsolaritzaren egun handia izan zen. Kuadrilla arteko finala ere jokatu zen eta.

Bi saioetan parte hartu nuen. Goizekoarekin ez nintzen hain



Aitor Ugarte, txapelarekin, azken bertsoa botatzen. ARABAKO BERTSOTZALE ELKARTEA

"GOIZEKO FINALEAN LASAI NENGOEN, BAINA KOSTA EGIN ZITZAIAN ERRITMOA HARTZEA"

konforme geratu, eta arratsaldeko aukera ere hor zegoen. Aramaioke bi talde geunden finalean: Izenbakuek eta gu. Denek elkarrekin bazkaldu genuen. Nire iritziz, arratsaldeko saioa luze joan zen, baina, aldi

berean, pozgarria eta hunkigarria izan zen.

Zergatik diozu ez zinela hain konforme geratu?

Lasai nengoen, baina kosta egin zitzaidan erritmoa hartzea. Hala ere, zortziko txikian asmatu egin nuen.

Aramaioke bertso eskolak lan handia egiten du?

Finalean bi talde egotea horren erakusle da. Bertso eskolan nagusiagoak eta gaztetxoagoak gaude, eta lan ona egiten da bertso zaletasuna sustatu eta zabaltzen.

'Gaba baltza' gai duten bideoak egiteko lehiaketa abian da

Txirritola euskara elkarteak antolatu du lehiaketa; lanak urriaren 27rako entregatu beharko dira, posta elektronikoz

A.E. ARAMAIO

Txirritola euskara elkarteak *Gaba baltza* bideo lehiaketa antolatu du. 12 urtetik gorako gazteei zuzendutako lehiaketa da. Bideoaren gaia *gaba baltza* izango da; eta, horrez gain, ondorengo hiru hitzak agertu beharko dira bideoan, nahitaez: *irrifarra*, *sardea* eta *kanpaia*. Bideoek gehienez 10 minutu iraun beharko dute.

"Euskal Herriko beste herri batzuetan gertatu den moduan, denbora bat gindoazen Halloween jaiari buelta bat eman guran. Gaztetxoek telebistatik edo jaso duten jai da, eta mozturrotu egiten dira. Baina herritarrendako arrotza den jai da", azaldu du Txirritola elkarteko kide Oihana Ameskua. Iaz, eskolako guraso elkartearekin elkarlanean *gaba baltza*-ren inguruko hausnarketa egin zuten: "Izan ere, Aramaion ospatu izan da arimen gaua edo *gaba baltza* delakoa. Nagusiak gogoratzen dira nola husten zituzten kalabazak eta errepede bazterrean jartzen zituzten. Sustoak emateko gaua izaten zela diote herriko nagusiek".

Iaz, lehenengo aldiz egin zuten *gaba baltza*-ren inguruko jai: "Kalejira egin genuen eta pertsonaia ezberdinak jarri genituen mozturrotuta". Aurten ere iazko bidetik jarraitu nahi zuten; asmoa zen kalejira horretan herriko gazteen inplikazioa bilatzea, eurak izanda mozturrotutako pertsonaia horiek. Baina egoerak ez du uzten horrelako kalejirarik egiten, eta horregatik erabaki dute bideo lehiaketa egitea.

Lanak euskarazkoak izan beharko dute.

Lanak entregatzeko epea

Lanak entregatzeko epea urriaren 27ra artekoa izango da. Posta elektronikoz bidali behar dira, txirritola@gmail.com helbidera.

Sari banaketa

Urriaren 30ean, bideo emanaldia eta sari banaketa egingo dute. Lehen saria *scape room* baterako sarrerak izango dira; eta bigarrena, Euskaraldiko sorpresa. "Euskaraz egiten den *scape room* bat izango da, Gasteizen dagoena", dio Ameskua. Horrez gain, ipuin beltzen gaineko saio bat egin gurako lukete bertan.



ARAMAIOKE UDALA

Bilbora joan da lehen saria

Ohiturari jarraituz, urriaren 12an kaleko margo lehiaketa egin zuten. Bi taldetan banatuta 33 margolarik parte hartu zuten. 16 urtetik gorako kategorian Leticia Gaspar izan zen irabazlea eta aramaioar onenaren saria Ramon Nafarretek irabazi zuen. 16 urtetik beherakoan artean, aldiz, lehenengo saria Jule Lizarralde jaso zuen.

Izenbakuek, kuadrilla artekoan nagusi

Arabako kuadrilla artekoan finalean Aramaioke Izenbakuek taldea nagusitu zen: Peru Abarrategi, Andere Arriolabengoa, Danel Herrarte eta Manex Agirre.

Arabako produktuz osaturiko zakua eta ficus landare bat jaso zuten irabazleek. Gainera, finalista guztiek Unai Gaztelumendik egindako talde karrikatura jaso zuten.



Abarrategi, Arriolabengoa, Herrarte eta Agirre. ARABAKO BERTSOTZALE ELKARTEA



Aretxabaletako hainbat etxe eta alboan Ibarra kiroldegia. MIRARI ALTUBE

Zergak eta tasak izoztea proposatu du Gobernuak

Igoerarik izango ez duten zergen artean daude ondasun higiezinaren gainekoa, autoena, obren gainekoa, urarena eta kiroldegiko tasak. Merkataritza eta ostalaritza zerbitzuen kasuan, konfinamendu osteko neurriek indarrean jarraitzea da asmoa

Mirari Altube ARETXABALETA

Ordenantza fiskalak onartzeko osoko bilkura egingo du udalbatzak datorren astean. Horren aurretik, Udal Gobernuak iragarri du irizpide nagusia izango dela zergak eta tasak izoztea, eta proposamen hori aurkeztu dio oposizioari.

Zaborrak, %5eko igoera

Igoerarik izango ez duten zergen artean honako hauek proposatu dituzte: ondasun higiezinaren gainekoa; autoen gainekoa; eraikuntza, instalazio eta obren gainekoa; eta urarena. Horiekin batera, Ibarra kiroldegiko tasak ere izozteko asmoa dutela iragarri dute. Erabaki hori hartzeko aipatu duten arrazoi nagusia da bizi den egungo egoeran ez duela zentzurik igoerarik aplikatzea herritarrei.

Zaborra, oster, %5 igotzea da proposamena; iazko igoera berbera, hain zuzen ere. Aurreko agintaldian hartutako erabakiari jarraituko diote horre-

la, zaborraren zerbitzu kostuak ordaindu arte, hau da, gastuak estali arte, horren gaineko tasa igotzen segitzea. Hain zuzen, Udalak une honetan ordaintzen du tasa bidez jasotzen duena baino gehiago. Gainera, Debagoieneko Mankomunitatearen asmoa da %3,8 igotzea zaborraren gaineko tasa, Udalak jakinarazi duenez.

Merkataria eta ostalaria

Ostalaritza zerbitzuei eta merkatariei erreparatuta, konfinamendu ostean hartutako hainbat erabakiri eustea da asmoa. Hala, terrazen gaineko tasarik ez kobratzea proposatuko du Udal Gobernuak, azken hilabeteotan egindako legez.

ZABORRA %5 IGOTZEKO ASMOA DUTE; GASTUAK ESTALTZE ALDERA EGINDAKO IGOERA DA

Zaborraren kasuan, hiruhilekoari dagokion erdia ordaindu dute saltokiek, ostalaritza zerbitzuek eta negozioek konfinamendutik hona, eta datorren urtean ere hala jarraitzeko proposamena egingo dute osoko bilkuran.

Uraren tasan ere aldaketa egitea erabaki zuten, merkatariei eta ostalariei laguntze aldera. Hortaz, gutxieneko bat beharrean, gastatutakoaren arabera ordaintzen dute martxoaren ezker, eta horrekin jarraitzea mahai gaineratuko dute.

Terrazen, zaborraren eta uraren tasetan egindako aldaketen ondorioz 50.000 bat euro gutxiago jasoko dituela uste du Udal Gobernuak.

Osoko bilkuran onartu behar

Behin betiko proposamena datorren asteko osoko bilkuran aurkeztuko du. Eta hori onartutakoan, 2021ean indarrean izango dira tasa eta zerga horiek guztiak.



Hainbat emakume gogoeta saio batean. ETXALDEKO EMAKUMEAK

'Agroekofeminismo'-aren gaineko gogoeta Etxaldeko emakumeekin

Elikadura subiranotasuna eta feminismoak izango dituzte berbetarako gai gaur, egubakoitza, Arkupen

Ainhoa Arana ARETXABALETA

Elikatzen gaituen eta lurra eta pertsonak zaintzen dituen nekazaritza: elikadura subiranotasuna eta feminismoak izena duen topaketa bideratuko du Etxaldeko Emakumeak elkarteko Izaskun Urbanetak gaur –Setem Hego Haizeak eta Udalak antolatuta–. *Agroekofeminismo*-an jarri nahiko luke bereziki arreta horrek: "Elikadura sistema agroindustrialak gure bizitzetan izan –eta izaten– dituen eraginak ikusarazi nahi ditugu ikuspegi feministatik, eta hauei aurre egiteko alternatibak eraiki".

Elikagaiak ekoizteko eredu txiki bat bultzatu nahi dute Etxaldeko Emakumeek: "Gertuko, benetan ingurugiroa zaintzen duena, guztien aniztasuna kontuan hartzen duena, guztiak aske bizi diren eta protagonista diren eredu". Bizitza erdigunean kokatu nahi dute, eta bizitzaren erdigunean elikadura: "Botere harremanen eta zapalkuntzarik gabeko bizitzak, indarkeriarik gabeko bizitzak. Hori guztiori lortzeko desegin behar dena eta eraiki behar dena *agroekofeminismo* prozesuaren barruan kokatzen da".



NIRE USTEZ

IDOIA SANCHEZ

Bi mila eta hoge

Aurten denborak erritmo benetan berezia hartu du. Bizkor igarotzen ari dela diote batzuek, demaseko poliki besteek.

Modu batean zein bestean dela ere, aurrera egiten du, eta gogoz kontra bada ere, berarekin garamatza gu.

Denborak pintzel ikusezin bat du eskura itsatsia: gure gorputza den lienzoan aztarnak uzten dihardu, etengabe. Munduko pintura politena izango da, seguruenik, baita bat-batekoena ere. Gure kontrolpetik ihes egiten dute zertzeladak, arrastoak arbitrarioki ezarriz azalera osoan zehar.

Aurtengo denborak tinta indartsuago bat erabili du guran marrazteko: azalean ez ezik, erraiak ere grabatu dizkigu, burdin goriz. Sakonean egin ditu artelanik bitxiak. Irauteko sortu dituen markak dira, betirako gurekin geratuko direnak.

Eta onartzea besterik ez; denboraren eskutik arrastaka joateko ez ezik, hura heldu eta bidelagun bihurtzeko.

Jolasen bidez eta umorea lagun, euskarara hurbiltzen

Auzoko egitasmoaren baitan lau talde osatu dituzte aurten, eta dagoeneko ekin diote ikasturteari, "gogotsu" ekin ere; Barriketan saioetakoak ere hasi dira elkartzen, baina talde berriak sortzea da erronka eta abendura bitartean eman daiteke izena

Mirari Altube ARETXABALETA

Erdialdeko Amerikakoak dira asko –Honduras, Salvador...–, Saharakoak eta Marokokoak hainbat, eta senegaldarrak eta indiarrak ere badaude, baita pakistandarren bat edo beste ere Auzokon. Lau taldetan banatuta dihardute lanean azken asteotan, eta helburua bakarra: euskarara gerturatzea. Horretarako, jolasak, elkarlana eta umorea dituzte lagun.

Euskaraz dakitenen zain

Loramendi elkarteko dinamizatzaile Paloma Martinezen esanetara hasi dira lanean: "Etxeetan bizi diren zainzaileek osatutako talde bat daukagu. Eta euren atsedendiko bi ordu euskarari eskaintzen diote; benetan esanguratsua!". Euskaraz gutxienez hitz batzuk jakitea garrantzitsua delako zainza lanean gerturatu dira Auzokora. "Zer zekiten euskaraz galdetu nien. 'Etorri, bihotza', erantzun zidan batek, zer esan

gura zuen ondo jakin barik", dio Martinezek.

COVID-19ak Auzokoren jarduna ere baldintzatu du. Horregatik, aurten ez dute egingo irteerarik, ezta meriendarik ere: "Kafe eta pasta batzuen bueltan beste goxotasun bat sortzen da. Aurten ez da halakorik egongo, baina umorea ez dugu galduko!". Horretarako, jolasak dituzte lagun; karta-jokoak, esaterako: "Euskara ezagutzen dugu jolasen bidez, eta, era berean, elkar ezagutzen dugu".

Lau talde osatu dituzte aurten, pilaketak saihesteko asmoz, eta martitzenetan eta eguenetan elkartzen dira; hona hemen ordutegia: 10:00-11:00 eta 15:00-16:00. Guztietan dutela lekuren bat edo

**BARRIKETAN
TALDEETAN IZENA
EMATEKO EPEA
ZABALIK DAGO
ABENDU ARTE**

beste argitu du Loramendiko dinamizatzaileak, eta euskaraz dakitenak gonbidatu ditu bertara: "Ezinbestekoa da euskaldunek eta euskaratik urrun daudenek topo egitea talde hauetan. Oraingoan, ni neuz nago bakarrik euskaraz dakiena; hortaz, pozik hartuko ditugu beste batzuk ere".

Barriketan taldeak

Barriketan egitasmoaren bueltan aurreko urteetan sortutako taldeak ere lanean dabilta. "Konfinamendu sasoiaren ere batzuek online elkartzen jarraitu zuten. Eta irailean aurrez aurrekoratuz itzuli dira hainbat; dena den, online jarraituko duenik ere badago", adierazi du Martinezek, eta gaineratu: "Hika-praktika talde bat ere badago abian".

Talde berriak sortzeko deialdia egingo dute orain; hemendik eta abendura bitartean izena emateko epea zabalik izango da Loramendi elkartean: 943 77 09 70 edo auzoko@loramendielkar-tea.eus.



Fadoak entzuten zituen gizona antzezlaren une bat. GOIENA

Etxera ere badator Kepa Errasti, fadoak entzutera eta kantatzera

'Fadoak entzuten zituen gizona' antzezlana izango da gaur eta bihar Arkupen, baina sarrerak agortuta daude

M.A. ARETXABALETA

Euskal Aktoreen Batasunak Besarkada sariak banatu zituen martitzenean, eta horietako bat eskuratu du Kepa Errasti aretxabaletarrak, *Mami Lebrun* antzezlana. Orain, baina, *Fadoak entzuten zituen gizona* lana aurkezten dihardu, eta asteburuan Arkupera iritsiko da. Emanaldi bi eskainiko ditu Xake konpainiak, bata egubakoitzean (22:00) eta bestea zapatuan (19:00), baina sarrerak agortuta daude.

Bi lagun zaharrek ezustean egindako bidaia bat du ardatz lanak, eta gizontasuna gai nagusi. "Aurreko lanetan markatu dugun estilotik aldendu gara, estilo makarratxoagoa jarri diogu obra honi. Umore sarkastiko eta ganberro batetik kontatua dago", azaldu du Errastik, eta pozik dago orain arte izandako harrerarekin: "Baliteke jendea galduta sentitzea hasieran, eta

bukaera arte ez argitzea zer gertatzen den... Baina eman gura ditugun mezuak ulertzen dira, eta gu horrekin geratzen gara. Oraingoan ere zerbait indartsua kontatzen saiatu gara".

Eguaztenean, 'Dama beltzak'

Musikak ere izango du lekua egunotan herrian. Eguaztenean, hilaren 21ean, Estitxu Pinatxo, abeslaria eta Mikel Santxex gitarrak-jolea izango dira Herriko Plazan (19:00), *Dama beltzak* musika ikuskizunarekin. Musikaren bitartez borroka egin zuten dama beltzak omenduko dituzte; besteak beste, Ella Fitzgerald, Nina Simone, Roberta Flack, Etta James eta Aretha Franklin.

Eta hilaren 23an, egubakoitza, bestelako musikarekin beteko da Arkupe (22:00). Izan ere, rap doinuekin etorriko da Unai Unda *Xatiro* musikari bilbotarra –sarrera, 4 euro–.



Auzoko egitasmoaren baitan elkartutako taldea, martitzen arratsaldean, udaletxe zaharrean. MIRARI ALTUBE

Urriaren 24ko manifestaziorako txartelak salgai daude

Resolution. Presoak etxera! leloarekin manifestazioa deitu du Sare Herriarrak –Izan Bidea ekimenaren baitan– urriaren 24rako, Donostian; 17:00etan izango da Antiguatik abiatuta. Hara joateko autobusa antolatuta dute Aretxabaletatik –15:00etan, Azben–, eta txartelak dagoeneko salgai dituzte Urbaltz eta Gurea tabernetan.





Ariguneak sortzeko konpromisoa hartutako herriko hainbat elkarte, enpresa, zerbitzu eta ikastetxetako ordezkari, uztailean. GOIENA

Izen-emate digitala, paperaren kaltetan

Euskaraldian parte hartzeko QR kode bidezko sistema lehenetsiko da aurten, kartelen bidez deskargatu ahalko dena. 523 parte-hartzailek eta 67 entitatek eman dute izena dagoeneko. Momentuz, 107 kanpo arigune eta 78 barne arigune sortu dira

Hasier Larrea ARETXABALETA

Aretxabaletarrak hasi dira Euskaraldirako norbere aletxoak jartzen, eta egunetik egunera goranzko joera darama parte-hartzaile kopuruak. Antolatzaileek buru-belarri dihardute 2020ko edizio atipiko honi forma ematen, ezohiko egoerak ezohiko formulak eskatzen dituelako.

Gauzak horrela, aurten, papezko izen-emate bidez baino gehiago, modu digitalean apuntatzea sustatuko da, nahiz eta mahaiak ere ipiniko dituzten kaleetan, egun batzuetan bada ere. Gainera, Loramendi Elkarrearen bulegoan izena emateko aukera egongo da asteazkenero, 18:00etatik 19:30era.

Interesatuak online formula bat baino gehiago edukiko dute Euskaraldian izena emateko: 2018an bezala, *Izenematea.euskaraldia.eus* webgunera jo dezakete *ahobizi* edo *belarriprest* izan nahi duten adieraztera. Horretaz aparte, QR kodeak erakutsiko dituzten kartelak

egongo dira herriko atarteetan. Herritarrei ez zaie ezezagun suertatuko formula hori; azken hilabeteetan dezente gizarteratu dira sarerako sarbide horiek; jatetxeetan, batik bat. Azkenik, mugikorrerako aplikazioa ere eskuragarri dago jada, izena emateko ez ezik, hizkuntza ohi-turak aldatzea helburu duen dinamikaren inguruko informazioa bertatik bertara jasotzeko.

Euskaraldiko Batzordeak kontuan hartuko du berrikuntza digital horrek sor ditzakeen zalantzak; horregatik, ardura-dunek pausoz pauso azalduko diete batzordekideei izen-ematearen prozedura, eta herritar orori zuzendutako tutoriala egitea ere ez dute baztertzen.

WEBGUNEAN, QR KODE BIDEZ ETA APLIKAZIOTIK EMAN AHALKO DA IZENA EUSKARALDIAN

Bestalde, rolak identifikatzeko txapak azaroaren 16tik 19ra bitartean jasoko dira Loramendiren bulegoan bertan.

Ariketa sozial erraldoi hau azaroaren 20tik abenduaren 4ra bitartean garatuko da, eta, entitateek eskaini dituzten arigune kopurua aintzat hartuta, euskarak Aretxabaletako toki gehientsuenetan tokia izango duela ziurra daitekeela dirudi.

Kultura jarduerak ere bai

Euskaraldi Kulturala dinamikaren baitan, *Bi urte, lau hilabete eta egun bat* dokumentala proiektatuko da urriaren 24an, zapatua, Arkupe-Zaraia aretoan. Lander Garrok zuzendu duen obrak 90eko hamarkadako Iruñean intsumisoez bizitakoa mahai-gaineratzen du. Zuzendaria bera presente egongo da aretoan; gaiari buruzko solasaldia ere egongo da, beraz. Ikusentzunezkoa 19:00etan hasiko den arren, ordu erdi lehenago joatea gomendatu dute.

Karateka gazteak, Euskadiko txapelketan begia jarrita

Urriaren 31n lehiatuko dira, Barakaldon, kadete, junior eta 21 urtez azpiko kategorietan diharduten kirolariak

H.L. ARETXABALETA

Tariman lehiatzeko aukera izan zuten denboraldi honetan lehen aldiz herriko karateka gazteek joan den zapatuan, Hondarribian jokaturako Gipuzkoako txapelketaren baitan.

UDako karate taldeak kadete, junior eta 21 urtez azpikoetan aritu ziren; azken kategoria horretan lortu zituzten emaitzarik borobilenak: Joanna Perezek urrea eskuratu zuen kumite modalitatean eta zilarra, berriz, katan. Garikoitz Martinek ez zuen kadetetako podiumera igo-

tzerik izan, baina Euskadiko txapelketarako txartela poltsikoratu zuen, gutxienez. Gauzak horrela, bi borrokalariak joango dira Barakaldora urriaren 31n.

Buruz burukoak maskarekin egiteak karatekei "oztopo ugari" jartzen dizkiela aitortu du Odiolo Vazquez entrenatzaileak. Kirolariak "gogotsu" badaude ere, segurtasun neurriek motibazioa kentzen dietela gaineratu du Vazquezek.

Urte amaieran Gipuzkoako senior mailako txapelketa jokatzekoak dira aretxabaletarrak.

Irakurle Klubak azaroaren 19an egingo du lehen saioa

Aurten Loramendi Elkartea arduratuko da Irakurle Kluba sustatzeaz, Udal Liburutegiko murrizketak direla eta. Literaturari bere tokia egiteko asmoz, ordu eta erdiko solasaldiak antolatuko ditu bi hilabetez behin, hemendik eta udara arte.

Saioak Mikel Antza idazle donostiarra dinamizatuko ditu. Partaideek aurrez irakurrita

eroango dute liburua, ondoren gogoeta eta iritziak plazaratzeko. Lehenengoa Karmele Jaioren *Aitaren etxea* izango da.

Loramendiko hamabi bazkidek parte hartuko dute Irakurle Kluban, eta izen-ematea itxita dago. Eñaut Zubizarreta antolatzaileak esan du ezin izan dutela inskripzio kopurua handitu, "edukiaren mugak direla eta". Era berean, "pozik" azaldu da, jende berria ere animatu delako.

Hitzordu guztiak udaletxe zaharrean izango dira.

GORA ETA BEHERA



I.B.

Argibide-panela jarri dute Urkulun

Urkulu urtegiaren bueltan egin ezin daitezkeen jardueren gaineko argibide-panela jarri du Ur Kontsortzioak; herritar bat "poztu" egin da, gaizki-ulertuak saihesteko balioko duela iritzita.

EZER TXALOTU EDO SALATU NAHI? berriak@goiena.eus edo 688 69 00 07.

Eskoriatza Kirol Elkarteko areto futbol sailak 25 urte bete ditu

Urteurrena ospatzeko, zenbait ekitaldi antolatu gura dituzte urtean zehar. Hori horrela, Gabonetarako, adibidez, mundu mailan esanguratsuak diren Jesus Candelas edo Eduardo Garcia Belda 'Miki' entrenatzaileen hitzaldiak antolatu gura dituzte

Imanol Beloki ESKORIATZA

Eskoriatzako areto futbol sailak 25 urte betetzen ditu aurten, eta, urteurrena ospatzeko, Euskal Federazioarekin elkarlanean Euskal Kopako fase erabakigarria ekarri zuten joan den asteburuan Eskoriatzako Manuel Muñoz kiroldegira. Txapelketarako kantxa uzteaz batera, Lasakorain taldearen aurkako lagunartekoa izan zuten maila nazionalako Eskoriatza taldeko gizonezkoek.

Hala, hitzordu honekin, areto futbol sailaren 25. urteurren ospakizunari hasiera eman gura izan diote Eskoriatza Kirol Elkarteko kideek, baina ez dute baztertzeko urtean zehar beste zenbait ekitaldi ere egitea, nahiz eta COVID-19ak baldintzatuta neurri zorrotzak hartu beharko dituzten. Horren harira, kiroldegiko edukiera mugatua izanda, joan den asteburuko partiduak kirol elkartearen Youtube kanaletik jarraitzeko aukera izan zen.

Lehen urteak gogoan

Gaur egun areto futbol sailak duen egitura sortu arte, lana gogor egin zuten kirol elkartearen zenbait lagunek. Izan ere, Narciso Pavok Manuel Muñoz kirol elkarteko presidente zenaekin ekarri zuen areto futbol Eskoriatzara, eta, urte hauetan, talde bakarra izatetik klubaren etorkizuna ziurtatzen duen egitura sendoa izatera pasatu da kluba, eta baita areto futbol saila ere. Narciso Pavok, garai haiek oso gogoan, hunkituta gogoratzen ditu hasierako urteak: "Manuel Muñoz kirol elkarteko presidente zenak beti esaten zidan areto futbol taldea osatu behar genuela Eskoriatzan, behin eta berriz. Ni



laz, Eskoriatza areto futbol taldea maila nazionalera igoera ospatzen. IMANOL SORIANO

garai hartan Arrasate areto futbol taldean nengoen, eta, aukera sortu zenean, Eskoriatzara ekarri genuen taldea 1995. urtean. Gero, herriko jokalariekin areto futbol talde bakarra sortu genuen, eta orduetik, gaur arte..."

Areto futbola, indarra hartzen

Gaur egun, gizonezkoek osatzen duten zenbait mailatako taldeak daude Eskoriatzan, eta baita 2015ean sortutako emakumezko taldea ere; kirol horretako emakumezkoen Debagoieneko

"ARETO FUTBOL SAILEAN LAN ASKO EGIN DA GAUR ARTE, ETA SEGIDA IZATEA ZORAGARRIA DA"



NARCISO PAVO
ARETO FUTBOL SAILEAREN SORTZAILEA

lehen taldea izan zen. Gainera, txikitatik areto futbolera zaletzeko eskola ere martxan da duela bederatzita urtetik; etorkizuna ziurtatzeko bereziki horretan ari dira indarra jartzen ari dira kirol elkarteko kideak.

Maila nazionalera igoerak

Eskoriatza areto futbol taldea sortu, eta apurka-apurka mailaz igozten joan zen. Hala, taldea sortu eta bederatzita urtera, maila nazionalera igozteko lortu zuten, 2004-2005 denboraldian. 2019an, berriz, 14 urteren ostean,

"URTEURREN OSPAKIZUNERA BEGIRA EZIN DA ASKORIK EGIN, BAINA SAIATUKO GARA"



JAVI CORBAL
ESKORIATZA KIROL ELKARTEKO PRESIDENTEA



Argazkian, goiko ilaran, ezkerretik eskumara: Alain Gomez, Enrique Tena, Aitor Romero, Jokin Pavo, Manuel Muñoz, Arturo Robledo, Ivan Gomez, Patxi Nevado eta Fernando Cubillo. Beheko ilaran: Iker Gomez, Narciso Pavo –areto futbol saileko koordinatzailea–, Javi Fachal –delegatua–, Borja Garcia, Javi Baena, Davis Garcia –delegatua–, Inaki Corral –entrenatzailea–, Antonio Regaño –bigarren entrenatzailea– eta Antonio Tena. ESKORIATZA KE



2015ean sortutako Eskoriatzako emakumezkoen areto futbol taldea. GOIENA

Iker Molinak zuzendutako taldeak ere maila nazionalera igozteko lortu zuen, eta gaur egun, maila horretan ari da gizonezkoen lehenengo taldea.

Kirol Elkartearen Eguna

Eskoriatza Kirol Elkartearen Eguna maiatzeko azken asteburuan ospatzen da, baina, aurten ezin izan dutenez behar

den moduan ospatu, areto futbol jardunaldiak antolatu gura dituzte nazioarteko areto futbol entrenatzaileen elkartearekin lankidetzan (ANEFS), Gabonetarako. Hala, Jesus Candelas eta Eduardo Garcia Belda *Miki* mundu mailan izen handiko entrenatzaileak ekarri nahi dituzte –data zehazteko dago–.



Hilero bi solasaldi, literaturan murgiltzeko

Urriaren bi liburu jorratuko dira Literatura Solasaldien barruan: bata euskaraz eta bestea gazteleraz. Urriaren 22an, 'Kamisoi zuri zetazkoa' liburuaren gainean hausnartuko dute; eta urriaren 29an, berriz, 'Monasterio' lana landuko dute

Imanol Beloki ESKORIATZA

Denbora batez geldu egon ostean, kultura ekitaldiak berriz hasi da programatzen Eskoriatzako Udala. Iñaki Encina piano-jotzailearen eta Adriana Gonzalez sopranoaren kontzertua izan da, baita Ostegun Bidaiariak egitasmoaren barruan hiru kontaketa, eta Euskaraldiaren baitan *Txor-txor* bakarriketa umoretsua. Guztiak, Zaldibar antzokian, edukiera murriztuarekin eta segurtasun neurri guztiak hartuta. Hala, "musika, hitzaldiak eta antzerkia izango dira nagusi aurtengo azken hiruhilekoaren egitarauan", adierazi dute Kultura Saileko arduradunek.



Maiatzean, opor aurretiko literatura solasaldian batutakoak. ESKORIATZAKO BIBLIOTEKA

Literatura solasaldiak

Eskoriatzako bibliotekak aukeratutako liburuak irakurri eta horien gainean hitz egiteko, aztertze eta zenbait ondorio ateratzeko antolatzen diren literatura solasaldiek arrakasta izaten dute Eskoriatzan. Hala, aurreko edizioetan izandako arrakasta kontuan izanda, urriaren literatura solasaldiak izango dira berriro, bai euskaraz eta baira gaztelaniaz ere. Euskaraz Alaine Agirre idazlearen *Kamisoi zuri zetazkoa* liburuja jorratuko da lehenengo, urriaren 22an, eta gidari lanetan beste zenbait edizioetan izandako Mikel Antza arituko da. Eduardo Halfon idazlearen *Monasterio* liburuja, bestalde, gaztelaniaz jorratuko da, urriaren 29an. Kasu horretan, solasaldietan gidari berria izango den Ane Zapatero arituko da.

Bi liburuen solasaldiak 18:00etan kultura etxean izango dira, baina parte hartu nahi dutenek liburutegira jo beharko dute izena ematera, edo bertara deitu, 943 71 31 35 telefono zenbakira; edo Whatsappez 674 11 19 55 zenbakira idatziz. Bibliotekako arduradunek jakinarazi dutenez, azaroan beste bi liburu-

ZALDIBAR ANTZOKIAREN EDUKIERA 56 ESERLEKUTARA MURRIZTU DA

ruren solasaldiak izango dira, eta abenduan beste birenak. Horien berri aurrerago emango dutela adierazi dute.

Ipuin kontaketak Zaldibarren

Horrekin batera, orain arte bibliotekan egin izan diren ipuin kontaketak Zaldibar antzokian egingo dira hemendik aurrera, eta, hori horrela, urriaren 29an, 18:00etan, Ines Bengoa kontalaria izango da, 4 urtetik aurrerako zuzendutako ipuinak kontatzen. Antolatzaileek adierazi dutenez, sarrera doakoa da, baina gonbidapena liburutegian eskatu beharko da, derrigorrez: bertara joanda, biblioteca@eskoriatza.eus helbidera idatzita, deituta edo Whatsappez. Hain zuzen, ipuin kontaketa izango den jende kopurua jakiteko eta edukiera gainditzen ez dela ziurtatzeko.

Oscar Terolen bakarriketa

Hilaren bukaeran, urriaren 25ean, aldiz, Oscar Terol umoristak *Por comentar!* ikuskizuna aurkeztuko du Zaldibar antzokian. Ordu bete inguruko iraupena izango duen bakarriketa 19:00etan hasiko da, eta gazteleraz izango da. Hala, bere ikuskizunean gaurkotasunari erreparoso egiten dio, umorez, begirada ironikoarekin, Terolek dioen moduan, "arima masajatu, estresetik libratu eta erlaxatzen duena".

Oscar Terolen *Por comentar!* ikuskizunerako sarrerak martitzenean jarri zituzten salgai, bost eurotan, Manuel Muñoz kiroldegian, eta Eskoriatzako Udaletik jakinarazi dutenez, ikuskizunerako sarrera guztiak agortu dira.

Azarora begirakoak

Azarorako ere laster emango du Eskoriatzako Udalak antolatutako ekitaldi guztien berri. Hala nola Pirritx, Porrotx eta Marimototsen azken lanaren estreinaldia, Beheko Errota musika eskolako bandaren kontzertua, lehen mailako hizlariekin zenbait hitzaldi, antzerkia...



Iñaki Kerexeta zena, Eskoriatzako Elizateen Elkarteko zinegotzia. EEE

Iñaki Kerexeta hil da, Elizateen Elkarteko zinegotzia

Aurreko agintaldian zein oraingoan Elizateen Elkarteko bozeramailea izan dena bihotzekoak jota hil da

I.B. ESKORIATZA

Iñaki Kerexeta Elizateen Elkarteko (EEE) bozeramailea hil da, bihotzekoak jota. Aurreko agintaldian zein oraingoan Elizateen Elkarteko zinegotzi aritu da Eskoriatzako Udalean, eta atsekabez hartu dute albistearen udalbatzako kide guztiak.

Joseba Iñaki Kerexeta (Eskoriatza, 1958) Eskoriatzako Elizateen Elkarteko (EEE) bozeramailea izan da 2015-2019 agintaldian, eta gaur egungo agintaldian ere bera zen elizateen ordezkari Udalean. Zarimutz elizateko Palazio baserrikoa,

ezkonduta eta bi semearen aita, bihotzekoak jota zendu da, eta udalbatzako kideek penaz hartu dute albistearen.

Elizateen alde lanean

Eskoriatzako zazpi elizateen beharrak asetzeko gogoz batu zen EEEko zerrenda osatzen duten kideen artera, eta alderdi jeltzalearekin batera Udal Gobernu kide ere izan da sei urte hauetan. Elizateak bizigune izateko lanetan, landa inguruan nekazaritza, abeltzaintza eta basozaintzarekin lotutako jarduerak bultzatzen aritu da.

Landa-guneetako ur hornidura sistemantzako dirulaguntzak

Zenbait baldintza bete beharko dituzte eskatzaileek dirulaguntza horiek eskatu eta jaso ahal izateko

I.B. ESKORIATZA

Herriko landa-guneetan dauden eta Eskoriatzako Udalaren titularitateko ez diren ur hornidura sistema kolektiboak konpontzeko edo mantentzeko lanak finantzatzeko dirulaguntzen oinarriak onartu eta publikatu dituzte; beraz, laguntzak eskatzen epea zabalik dago, azaroaren 30era arte.

Dirulaguntzen helburu diren konpontze edo mantentze lanak hornidura kolektiboko sistemetakoak –sare orokorra– izango dira. Salbuespen gisa, sistema

indibidualetan egindako konpontze edo mantentze lanak diruz lagundu ahal izango dira, betiere, udal zerbitzu teknikoek aurrez egindako txostenean egiaztatzen baldin bada sare orokorrerako loturarik ezin dela egin arrazoi teknikoengatik edo aurrekontu handia eskatzen zuelako. Dirulaguntzetara aurkeztu ahal izateko, egindako lanak 2019ko abenduaren 1etik 2020ko azaroaren 15era bitartekoak izan beharko dira; informazio gehiagorako, udal webgunea kontsultatu daiteke.

Azaroan hasiko dute bonuen hirugarren fasea

Eskoriatza Bizirik kanpainaren hirugarrenari faserako beste mila txartel aterako ditu Udalak. Urdinak izango dira, eta urte amaierara arte egongo dira erabilgarri. Aurreko bi faseetakoak, berriz, berdeak eta gorriak, urriaren 31ra arte erabili ahal izango dira

Karmele Uribealzo **ESKORIATZA**

Udalak martxan jarritako Eskoriatza Bizirik bonuen kanpainaren hirugarren faseari azaro hasieran ekingo zaio. Aurreko bi faseetako bonu guztiak salda daude jada. Berdeak ziren lehen faseko txartelak, eta gorriak bigarrenekoak. Biak ala biak urriaren 31 baino lehen erabili beharko dira. Behin hori amaituta emango zaio hasiera hurrengo faseari; 1.000 txartel aterako dituzte eta urdinak izango dira. Urte amaierara arte erabili ahal izango dira; abenduaren 31 izango da txartelak trukatzeko azken eguna.

Eskoriatzako Udalak ez du aurreikusitako aldaketarik hirugarren faserako. Hasiera batean, funtzionamendua bera izango da. Orain arte bezala, txartelak Ibarraundi museoan egongo dira salgai: astelehen eta egubakoitzetan 11:00etatik 13:30etara eta eguaztenetan 17:00etatik 19:30era. Eskoriatzan erroldatuta dagoen adinez nagusi den edozeinek izango du txartel horiek erosteko aukera.

Bonu bakoitzak 30 euroko balioa du: 5 euro, 10 euro eta 15 euroko zatitan banatuta daude, eta zatiezinak izango dira. Gauzak horrela, 15 euroren truke, 30 euroko balioa duen bonua



Herritarrak bonuak erosten, Ibarraundin. IMANOL BELOKI

jasoko dute herritarrek Udalaren partetik.

Askotariko establezimenduetan erabili daitezke txartelak: ostalaritzan, fisioterapia edo osteopatia zentroetan, ile-apaindegi edo estetika zentroetan zein janari eta liburu dendetan, esaterako. Familia unitateko kide guztiek erosi ahal dituzte bonuak, baina pertsona bakoitzak bonu bakarra eskuratu ahal izango du.

COVID-19aren pandemiak eragindako krisiari buelta emateko asmotan jarri zuen martxan

kanpaina Udalak. Herriko negozioei laguntzeko modu bezala sortu zen ekimena, baita salerosketak pizteko eta egoerak kaltetutako familiei laguntzeko era moduan ere.

Balorazio positiboa

Eskoriatzako Udalak modu positiboan baloratu du bonuen kanpaina. Azaldu dutenez, pozik daude ekimenak izan duen erantzunarekin. Horrez gain, adierazi dute bai herritarrak, baita dendariak ere "gustura" daudela txartelen kanpainarekin.

ohi duten irteerarik egongo. Ikastetxean geldituko dira, eta Jose Arana gunekoek bakarrik hartuko dute parte.

Gauzak horrela, eguna "modu xumean" ospatuko dutela azaldu dute Arizmendi Ikastolako irakasleek. Edozelan ere, hainbat ekintza prestatu dituzte; besteak beste, goizean jokoak egingo dituzte, hamarretakoa eta ipuin kontaketa. Arratsaldean, berriz, eguraldi aproposa izanez gero, Santa Marina plazara joango dira.

Ikastetxean bertan egingo dute aurtengo Ezkurtxo Eguna

Arizmendi Ikastolako Jose Arana gunekoek moldatu egin dute jaia, eta ez dute elizateetako bisita egingo

Karmele Uribealzo **ESKORIATZA**

Urriko hirugarren zapatuan Ezkurtxo Eguna ospatu ohi dute Arizmendi Ikastolako Jose Arana gunean. Aurten, ordea, pandemia dela eta, moldatu egin behar izan dute jaia, ohiko for-

matuarekin jende asko batzen baitzen, eta ikastetxean bertan egingo dituzte ospakizunak.

Bihar izan beharko litzateke Ezkurtxo Eguna, baina, azkenean, gaur egingo dituzte ekintzak. Hala ere, ez da elizateetara egin

LEINTZ GATZAGA | 21

Zabalik dago auzo-egurraren eskaerak aurkezteko epea

Azaroaren 1a baino lehen eskatu beharko da; egurra norberak mozteko aukera dago, edo etxean jasotzekoa

Karmele Uribealzo **LEINTZ GATZAGA**

Auzo-egurraren aprobetxamendurako eskaerak egiteko aukera dago jada Leintz Gatzagan. Interesa dutenek udaletxean eskatu beharko dute egurra, azaroaren 1a baino lehen. Bi modura jaso daitezke egurra: nork bere kasa moztu eta bilduta edo etxean jasota. Lehenengorako tasak ordaindu behar dira eta lan hori eginda jaso nahi dutenek, berriz, 600 euro pagatu beharko dituzte, tasez gain.

Lote bakoitzean kamioikada bat egur sartzen da, hamabi tona

inguru. Azken urteetan tamaina horretako 8-12 eskaera jaso ditu Leintz Gatzagako Udalak eta aurten ere antzekoa espero dute. Juanito Bengoa zinegotziak azaldu duenez, duela urte batzuk behera egin zuen eskaerak, herriar asko ez baitzeuden prest egur bila joateko, baina, etxean jasotzeko aukera eman zutenetik, gora egin du eskariak.

Egurra biltzeaz arduratzen den pertsona bat daukate horretarako. Eskatzaileek osorik jasoko dute egurra, 2,25 metroko luzera duten enborretan.

GORA ETA BEHERA



IMANOL BELOKI

Zuloa eskola pareko errepidean



Hainbat herritarrek salatu dute Leintz Gatzagako eskola pareko errepidean zuloak daudela. Adierazi dutenez, horrek arazoa dakar inguru horretatik pasatzen direnentzat.

EZER TXALOTU EDO SALATU NAHI? berriak@goiena.eus edo [688 69 00 07](tel:688690007).

OHARRAK

Gatz Museoko bisitetarako ordutegi berriak

Aldaketa izan dira museoko bisiten ordutegian. Jaiegunean 10:00etan eta 12:00etan izango dira euskarazkoak eta 11:00etan eta 13:00etan gaztelarazkoak. Gehienez ere bederatzi pertsona joan ahal dira, eta gidari bat izango dute. Erreserbak egiteko: 943 71 47 92, info@gatzmuseoa.com eta www.gatzagaturismo.com.

Hirugarren hiruhileko ordainagiriak

Azoko datarekin, bidali zaizkie Leintz Gatzagako abonatuiei uraren, arazketaren eta finantzaketa planaren ordainagiriak. Borondatez ordaintzeko azken eguna abenduaren 31 izango da. Erreklamazioak: Gipuzkoako Urak-en bulegoetan, 902 30 22 22 eta 943 31 86 02 telefonoetan edo www.gipuzkoakour.eus webgunean.



Herriko Plazan antzuolarrak asteon. MAIDER ARREGI

"Izaera soziala duten ordenantzak", onartuta

KPlak ez du igoyerarik izan eta zeroan kokatuta dago; hala, Antzuolako 2021erako Zerga eta Ordenantza Fiskalek ere ez dute apenas aldaketarik izango. Herritarrei zuzenean eragiten dieten zergetan igoyerarik ez egitea argi izan duela dio Gobernuak

Maidar Arregi ANTZUOLA

Martitzenean egindako ezohiko osoko bilkuran, EH Bilduren aldeko botoei esker onartu dira behin-behineko 2021erako Zerga eta Ordenantza Fiskalak. "Jendea zuzenean eragiten dieten zergetan igoyerarik ez egitea garbi geneukan. Gainera, KPIa zeroan dago". Hala, etxebizitzaren, ibilgailuen, uraren, estolderiaren zein etxeko obren tasek ez dute igoyerarik izango.

Hondakinen tasa da, ordea, igoera izango duen bakarra, bost eurokoa. Beñardo Kortabarria alkateak azaldu zuen Mankomunitateak Udalarri kobratzen dionaren eta Udalak herritarrei kobratzen dienaren arteko diferentzia gutxituz doala. "Iaz, etxebizitzaren hondakin-tasa 125 eurokoa zen. Udalarri, aldiz, 140 kostatzen zitzaion zerbitzua. Azken urteetan diferentzia gutxituz joan gara, eta aurten 130 eurora igo dugu tasa. Oraindik ez dakigu Mankomunitateak 140 euro mantenduko duen edo ez".

EAJ eta alderdi sozialista abstenitu egin ziren. "Ordenantzak behar bezala lantzeko denboraz justu ibili gara, beti bezala; gainera, txostena egin gabe dago. Bestalde, hondakinen tasan hobeak izango dira; izan ere, aurreko agintalditik eskatzen ibili gara Mankomunitateak kobratzen diguna eta herritarrei kobratzen diegun tasa berdintzeko", esan zuen Babilio Ormazabal bozeramaile jeltzaleak.

Izaera soziala

Gizarteak bizi duen egoerara egokitzen diren ordenantzak lantzen dihardu Gobernu taldeak herritarrekin; helburua "izaera soziala" ematea dela adierazi zuen alkateak. "Pandemiarekin

NEGUARI NOLA HELDU AZTERTZEKO, UDALA TABERNARIEKIN ETA DENDARIEKIN HARREMANETAN DAGO

bertan behera geratu zen lanke-ta, baina helburua da ordenantzak banan-banan aztertu, eta beste herrietan egiten denarekin alderatzea. Talde finko batek dihardu lanean, eta, gehien behar duenari laguntzeko asmoz, hoberi batzuk ere aintzat hartu ditugu".

Ordenantzei alegazioak egiteko hilaletako epea dago. Alegaziorik ezean, zuzenean behin betiko onartuko lirake.

Laguntza gehiago aztergai

Neguari nola heldu aztertzeke, Udala elkartu da dagoeneko herriko dendari eta tabernariekin. "Bilera egin dugu, eta bakoitzak bere proposamen propioa ekaritzea adostu dugu. Izan ere, guztiek ez dute baldintza eta azpiegitura bera, eta proposamenak behar horien arabera egingo dituzte", argitu zuen alkateak.

Herritarren artean maskara berriak banatzeko asmoa ere baloratzen eta aztertzen dihardutela esan zion Beñardo Kortabarria alkateak GOIENARI.



Kutxabankeko bulego aurrean jarritako sinadura-mahaian sinatzen. LANDATXOPE

Kutxabanken auziak interesa eta haserrea eragin du herrian

Landatxope eta Herri Lagunkoia ekimena baikor daude, sinadura bilketak izandako "harrera ona" ikusita

Maidar Arregi ANTZUOLA

Kutxabanken bulego ordutegi-murrizketen aurkako sinadura bilketak erantzun ona izan dela azaldu dute Landatxopeko eta Herri Lagunkoia ekimeneko kideek. "Sinaduron bitartez, asmoa da Kutxabankekin erabaki duen zerbitzu-murrizketa etetea. Herritarrek iritzia emateko aukera izan dute eta askok erakutsi dute gaiarekiko interesa eta haserrea", azaldu dute. Gaineratu dute orain sinaduren kontaketa egingo dutela, eta sinatzeko aukera egun gehiagotara zabaltzeko asmoa aztertzen

dihardutela. "Oraindik ez dugu jaso Kutxabanki bidalitako gutunaren erantzuna; sinaduren kontaketa egin eta informazio dena izatean, zer egin erabakiko dugu".

Ezarritako murrizketak

Eguneroko bulego zerbitzua izatetik, astelehen eta egubakoitzetan 09:30etik 11:30era jaso dezakete orain herritarrek zerbitzua. Kutxabankekin dio operazio gehientsuenak online egiten direla; hala ere, herriko adinekoei zerbitzua eskaintzen segitzeko ahalegina egin dutela.

COVID-19ak ez ditu herriko odol-emaileak kikildu

Antzuolako odol-emaileen elkarteak salgai du jada loteria; elkarteko kideen bitartez eskuratu daiteke

Maidar Arregi ANTZUOLA

Pandemiaren ondorioz, odol-emaileek zenbait neurri zorrotz bete behar izan dituzte. Horrek bultzatuta, emaile asko odola eman ezinda geratu dela adierazi du Gipuzkoako odol-emaileen elkarteak. "COVID-19aren ondorioz, inoizko beherakada handiena igarri dugu odol-emaileen artean; gainera, odola inoiz baino gehiago behar da orain ospitaleetan", aitortu dute.

Antzuolan zorionez ez dela beherakadarik izan azaldu dio Begoña Lete odol-emaileen el-

karteko kideak GOIENARI: "Pandemia garaian neurri gogorrek ezarri dituzten arren, odol-emaileek ez dute hutsik egin eta ondo joan da. 47 lagunek eman dute odola eta antzuolaren erantzuna ona izan da. Hurrengo deialdia 2021eko neguan izango da; data zehazteke dago oraindik".

Bestetik, urtero legez, Antzuolako odol-emaileen elkarteak Gabonetako loteria salgai dute jada. "Interesa duten herritarrek elkartekoengana jo dezakete loteria eskuratzeko", zehaztu du Begoña Lete.

GOIENA TELEBISTA

UDAZKENEKO PROGRAMAZIOA

Eneko Azkarate Laspiur ARRASATE

Martxoan, konfinamenduarekin batera, telebista egiteko modu berriak etorri ziren. Plakoko hainbat saio ekoizteari utzi eta zuzeneko Internet bidezko konexioak gailendu ziren. Gertuko informazioak jarraipen handia izan zuen toki hedabideetan; tartean, Goiena telebistan.

Gaur egun, 10.000 ikus-entzule ditu Goiena telebistak egunero, CIESeko azken datuen arabera. "Egoera zailean Goienako lan-kideek esfortzu berezia egin dute eta erantzuna jaso dugu komunitatetik", adierazi du Oihane Agirrek, Goiena telebistako zuzendariak.

Ez-jaien gaineko saio bereziak

Maiatzarekin batera etorri zen ibarreko jaiak ospatzeko sasoi, eta ez-jaiak nagusitu ziren orduan; hala, egoerara moldatu, eta saio bereziak eskaini zituen Goiena telebistak, herrietatik. "Oso garbi izan dugu jai ofizialik ez zegoela esatea zela gure egitekoa saio hauetan", dio Agirrek. Bereziki artxiboko irudiek protagonismo handia hartu zuten saioetan, eta jaietako ikur direnek lekua izan zuten.

Komunitatea, lehen lerroan

Konfinamenduan, berebizikoa izan da komunitatea Goienan, baina aurrerantzean ere hala izango da. Norbanakoek gero eta ikus-entzunezko gehiago



Indarberrituta eta eskaintza zabalarekin dator Goiena telebista udazkenean

Konfinamendu garaian, telebista egiteko modu berrietara egokitu behar izan zuten Goiena telebistan. Orain, udazkenarekin batera, eskaintza berriarekin datoz; plakoko saioak bueltatu egingo dira: 'Harmailatik' eta 'Harira', esaterako

ekoizten dituzte eta komunitatean zabaltzeko Goiena dela aukera onena dio Agirrek. Goienarekin harremanetan jartzeko hainbat bide daude: 688 69 00 07 –Whatsapp eta Telegram– eta berriak@goiena.eus.

Udazkeneko programazioa

Udazkenarekin batera, eskaintza berri du Goiena telebistak. *Hemen Debagoiena* magazinean, egunero, gertuko informazioa izango da ardatz. Astelehenetan, *Harmailatik* kirol saioa bueltan izango da, Xabier Urzelairekin. Martitzenetan, *Harira* saioaren txanda izango da. Debagoieneko alkateak elkarrizketatuko ditu Eneko Azkaratek, Goienako edukien zuzendariak, agintaldi honetan lehendabizikoz. Egubakoitzetan, *Goiena: 20 urte, 20 albiste* erreportaje-sortaren txanda da: azken hogeitun nabarmendu diren albistean gaineko erreportajeak, orduan protagonista izan zirenen aho-tsek kontatuta. Azkenik, musika leku berezia izango du egubakoitzetan, Kooltur Oste-gunetako kontzertuak eskainiko dira eta.

Orain ere, %100 ematen


Udazkeneko programazio berriarekin batera abiatu duten kanpainak adierazten duen moduan, pilak kargatu dituzte Goiena telebistan eta eskaintza berriarekin datoz, sasoiatsu.

Zelan ikusi
Goiena
telebista



Antena bidez

Lurreko telebista digitalaren seinalea jasota, antena bidez ikusi ahal izango da Goiena telebista etxeetan, 25. kanalean.



Euskalteleko kable bidez

Euskaltelek duen telebistaren eskaintzaren barruan dago Goiena telebista ere. Debagoienean, hamaikagarren kanalean.



Nahieran 'Goiena.eus' atarian

Goiena telebista nahieran ikusteko aukera dago *Goiena.eus* atarian; zuzeneko zein norberak aukeratutako saioa nahieran.



Xabier Urzelai. GOIENA

Ligak hastearekin batera 'Harmailatik' dator bueltan

Astelehenean 'Harira' saioan motorrak berotu eta gero, hilaren 26an egingo dute lehenengo emanaldia

Oihane Agirre ARRASATE

Kirol talde gehienak liga haste- ra doazen honetan hasiko dute Goiena telebistan *Harmailatik* saioa. Urriaren 26an hasita, astelehenero (21:30, 23:30), bailarako kirol kontuak izango dira berbagai, nahiz eta datorren astelehenean *Harira* saioan kiroltako tarte berezia egingo duen Xabier Urzelai, motorrak berotzen joateko: "Ikasturte berezia izango da, martxoan egun batetik bestera utzi behar izan genuen alde batetara kirol saioa, eta orain, taldeetako entrena-

tzaileekin berba eginda ikusten dugu ziurgabetasun handia dagoela. Hain zuzen, kirol emaitzetatik harago taldeen eguneroko errealitatea erakusten ere ahaleginduko gara. Bestalde, gonbidatuak ere izango ditugu saioan, segurtasun neurri guztiak zainduta".

Itxura berrituta

Denboraldi berriarekin batera itxura aldatuko diote *Harmailatik* saioari. Dekoratu berria izango dute, eta Javier Larreina eszenografoa izan da egilea.

Alkateak pasako dira 'Harira' saiotik udazken honetan

Herritarrek ere aukera izango dute alkateei galdera egiteko, alde zurretik Goienara bidalita

Oihane Agirre ARRASATE

Bueltan da *Harira* saioa, herri ordezkariekin egindako elkarrizketa saioa. COVID-19aren ostean larrialdi egoera ezarrienez geroztik, Goiena telebistako parrilatik desagertuta zen Eneko Azkarateren saioa, baina udazkenarekin berriro itzuli da.

Alkateekin itzuli ere. Izan ere, Debagoieneko alkate guztiak pasako dira Gabonak bitartean. Asteon eman dio hasiera Maria Ubarretxenak, Arrasateko alkateak, eta datorren astean Gorka Artola Bergarako alkatea izango



Eneko Azkarate. GOIENA

da gonbidatua. Ondoren etorriko dira beste zazpi herrietakoak, handienetik txikienera, Leintz Gatzagako alkate Eugenio Otsoarekin amaituta. "Ordu erdiko saioa izango da eta herritarrek aukera izango dute alkateari galdera egiteko; horretarako, Whatsapp eta Telegram -688 69 00 01- eta posta elektronikoa - *berriak@goiena.eus* - erabili ahal izango dute", dio aurkezleak.

Alkateak, lehenengoz

Agintaldi honetan alkateekin egiten den lehen erronda izango da, eta, hortaz, lehenengoz pasako dira Bergarako eta Oñatiko alkateak, Gorka Artola eta Izaro Elorza. "Aurrerago egin nahiko genituzke eztabaida saioak Udal Gobernuko eta oposizioko ordezkariekin, edota oposizioko bozeramaileekin".

'Hemen Debagoiena': egunero, leiho bat ibarreko aktualitateari

Goiatz Arana ARRASATE

Hemen Debagoiena saioak eguneroko hitzordu izaten jarraituko du ikasturte berrian ere, Txomin Madinaren gidaritzapean. Eguneko albisteei, gaurkotasuneko elkarrizketei eta herrietako informazio freskoa ekarriko duten berriemaileei egingo die lekua eta asteoko egun bakoitzak bereizgarri propioa

izango du, gainera: asteburua nola joan den jakiteko aukera ezin hobea izango da astelehena; sare sozialetan zer mugitzen den jakiteko edota kaleko jendearekin zirika aritzekoa, martitzena; kirolari irekiko dio leihoa eguaztenak; eta munduari eguenak; eta asteari gainbegiratu egiteko aukera eskainiko du egubakoitzak.



Txomin Madina. GOIENA



Hemen Debagoiena

- Egunero.
- 18:00/20:00/22:00.

Goiena telebistak egunero eskaintzen duen magazina, Txomin Madinak aurkeztuta. Informazioa da saioaren ardatza, eta berau hainbat formatutan eskaintzen dute: erreportajeak, albistek, elkarrizketak, berriemaileen tarte... Lantalde zabala arduratzen da saio horretaz, Debagoieneko herrietako informazio osatuena izateko. Eguenetan eguraldiari tarte berezia eskaintzen diote, ikus-entzuleek bidalitako argazkiekin osatuta.



Albistek

- Egunero.
- 15:00/16:00/17:00.

Eguneko albistek jasotzen ditu saio horrek. Lekuoen eta protagonisten testigantzekin osatzen dira albistek. Astelehenetik egubakoitzera eskaintzen den saioan, gertakiririk esanguratsuenak jasotzen dira. Asteburuan gertatutakoek ere lekua izaten du saio horretan; bereziki, astelehenetan. Hain zuzen ere, *Hemen Debagoiena* saioan ere eskaintzen dira albistek (18:00); hainbat kasutan, are osatuago.



Harmailatik

- Astelehena.
- 21:30 eta 23:30.

Debagoieneko kirola eta kirolariak protagonista dituen saioa da. Asteburuetako kirol kronikak, elkarrizketak, erreportajeak, eta abar, protagonisten ahotan. Konfinamendu sasoiaren ekiozteari utzi bazioten ere, indarberrituta dator saioa orain, eta baita itxura aldatuta ere. Denboraldi honetan, pisu handia izango dute saioan elkarrizketek. Bailarako kirola sakon-sakon aztertuta, Xabier Urzelai kirol kazetariaren eskutik.



Harira

- Martitzena.
- 21:30 eta 23:30.

Goiena telebistako klasikoetako bat da *Harira* saioa. Denboraldi berri honetan, Eneko Azkaratek zuzentzen duen saioan Debagoieneko alkateak izango dira protagonista. Aste honetan bertan hasi da saioa, eta Maria Ubarretxena Arrasateko alkatea izan da elkarrizketatua. Gainera, saio horretan, herritarrek alkateari galdetzeko aukera dute. Galderak bidaltzeko: 688 69 00 07 -Whatsapp eta Telegram- eta *berriak@goiena.eus*.



Osoko bilkura

- Zapatua 19:00.
- Domeka 12:00 eta 22:00.

Arrasateko, Bergarako eta Oñatiko udalen ohiko osoko bilkurak, oso-osorik, herri bakoitzeko berriemaileen eskutik: Eneko Azurmendi, Jokin Bereziartua eta Oihana Elortza, hurrenez hurren. Hileko lehen martitzenean izan ohi dira Arrasaten, hileko azken astelehenean Bergaran eta hileko azken egunean Oñatin. Goiena telebistak guztiak jaso, eta gertatu eta hurrengo asteburuan eskaintzen ditu oso-osorik.



Kooltur bueltan da, baita Goiena telebistan

Kooltur Ekintza taldeak "kultura segurua eta beharrezkoa" dela aldarrikatzeko, martxan jarri du Kooltur Ostegunak ekimena. Hala, astero, Arrasateko gaztetxean eskainiko diren kontzertuak Goiena telebistak eskainiko ditu ondoren

Oihane Agirre ARRASATE

Iaz hasi zuen elkarlana Goienak Kooltur Ekintza elkartarekin, ostegunetako kontzertuak grabatu eta ostean Goienako hainbat hedabidetan eskaintzeko. Zoritxarrez, konfinamenduarekin batera bertan behera geratu ziren kontzertuak.

Aurten ere indartsu datoz Kooltur Ostegunak eta aurrera egiteko apustua egin dute. "Ez dugu kultura salbatuko, baina bide horretan gure aletxoak jarri nahi dugu", adierazi du Iker Barandiaran Kooltur Ekintza taldeko kideak. Ekimenaren bultzatzaileek badakite ez dela ohiko denboraldia izango, baina argi daukate horrelako ekimenak sustatu behar direla; betiere, egoera berrietara moldatuta.

Askotariko musika estiloei tokia egitea da aurtengo asmoa, eta datozen hilabeteetarako hainbat talde lotuta dituzte; besteak beste, Zetak, La Secta eta Skabidean.



Victimas Club taldea. VICTIMAS CLUB

Askotariko taldeak urrian

Rukula taldeak abiatu behar zituen aurtengo Kooltur Ostegunak, baina, taldeko kide baten konfinamendua tarteko, bertan behera geratu zen kontzertua. Beraz, Raitx taldeak eman zion hasiera ekimenari, pop elektronikoa egiten duen hirukoteak. Gaur bertan eskainiko du Goie-

na telebistak kontzertua (23:00). Ostean, Victimas Club taldearen txanda izango da; rocka eta bluesa lantzen ditu taldeak eta taldekide du Jon Zubiaga arrasatearra. Amorante bakarlarria ikusgai izango da urriaren amaieran; kantu tradizionala oinarri hartuta, doinu esperimentalak lantzen ditu.



Ane Pikaza. GOIENA



Jon Basaguren. GOIENA

Ehun gonbidatu baino gehiago pasa dira 'Elkarrizkettap' saiotik

Elkarrizketa sakon eta interesgarriak batzen ditu, eskarmentu handiko kazetarien eskutik

Monika Belastegi ARRASATE

Elkarrizkettap saioak jarraipena izango du denboraldi berrian. Euskal Herriko arlo askotako pertsonaia ezagunak are gehiago ezagutzeko aukera izango da; 150 lagunetik gora elkarrizketa-tatu dituzte dagoeneko; besteak beste, Karmele Jaio, Pello Lizarralde, Ramon Agirre, Ilaski Serrano eta Sustrai Colina. Denboraldi berrian, kirol, musika, literatura, zinema eta beste zenbait esparrutako protagonistei egindako elkarrizketa sakon eta interesgarriak eskai-

niko dituzte, eskarmentu handiko kazetarien eskutik: Joni Ubeda, Juan Kruz Lakasta, Aiert Arieta-araunabeña, Ane Zabala eta Idoia Torregarai.

Aurpegi ezagunak

Denboraldi berrian honako elkarrizketa hauek eskainiko dituzte *Elkarrizkettap* saioan, besteak beste: Mikel Reparaz, kazetaria; Ane Pikaza, aktorea eta ilustratzailea; Jon Basaguren, musikaria; Imanol Ituiño, magoa; eta Zihara Enbeita, gai-jartzailea.



Goiena: 20 urte, 20 albiste

- Egubakoitza.
- 21:30.

Aurten, Goienak 20 urte bete ditu, eta, urteurren hori dela eta, erreportaje sorta bat ekoizten hasi da. Egubakoitzero atal berri bat ikus daiteke, azken 20 urte hauetan nabarmendu den albisteetako bat sakon landuta. Lauzprobost protagonistak gogora dakarte orduan gertatu zen hori: erregea Arrasatera etorri zenekoa, urteekin Debagoieneko herriak zelan aldatu diren...



Elkarrizkettap

- Eguaztena.
- 21:30 eta 23:30.

Euskal Herriko pertsona ezagunei elkarrizketak, protagonista gertuagotik ezagutzeko aukera ematen digutenak. Jadanik ehun elkarrizketatik gora ikusi ahal izan ditugu; tartean, izen handiak: Eneko Atxa, Ilaski Serrano, Pello Lizarralde, Ane Pikaza, Mikel Reparaz... Hainbat diziplinatako protagonistak dira, eta elkarrizketa zaileak ere arlo askotarikoak: Joni Ubeda, Juan Kruz Lakasta, Ane Zabala, Idoia Torregarai...



Kooltur

- Egubakoitza.
- 23:00.

Iaz hasi zuen Goienak Kooltur Ekintzak elkartarekin elkarlana; Kooltur Ostegunak ekimenaren kontzertuak grabatu eta Goienako hedabideetan eskaintzen hasi ziren. Konfinamenduak eten zuen ekoizpen hau, baina berriro abian da, ostegunetarako egitarau oparoarekin, eta berriro abitu dute elkarlana. Arrasateko gaztetxeako kontzertu hauek egubakoitzetan eskainiko ditu Goiena telebistak, 23:00etan hasita.



Euskaraldia

- Eguena.
- 21:30 eta 23:30.

Euskaraldiaren lehen edizioan, Gipuzkoako toki telebistek elkarlanean Euskaraldiaren gaineko saioa ekoiztu zuten. Saio bakoitzean bi pertsona ezagutuko ditugu gertutik: bata, *ahobizi* izango da; eta bestea, *belarriprest*. Gipuzkoako eskualde guztietako protagonistak ekarri nahi izan dituzte saiora Julen Iriondo eta Isaro Insausti kazetariak. Guztira, hamaika saioz osatutako sorta berri emititzen hasi dira.



Adinberri

- Egunero.
- 17:30.

Gipuzkoan zahartze osasuntsu eta aktiboa bultzatzeko asmoz, Gipuzkoako Foru Aldundiak Adinberri Fundazioaren bitartez ekoiztutako saioa da; adineko pertsonak ariketa fisikoa eta mindfulness/meditazioa etxean bertan egitera animatzen dituena, euren ongizate fisiko eta emozionala hobetzeko. Guztira, 50 atal ekoiztu ziren, eta Goiena telebista berriro ari da emititzen, egunerokoan ohitura osasuntsuekin jarraitzeko.



Oihane Agirre ARRASATE

Aurten 20 urte bete ditu Goienak, eta, urteurren hori aitzakia hartuta, ibilbide horretako hogeigerta nabarmendu nahi izan ditugu erreportaje formatuan, Goiena telebistan eta *Puntua* aldizkarian. Egiteko horretan jardun dute, besteak beste, Xabier Urzelai eta Julen Iriondo kazetariak.

Zer da Goiena: 20 urte, 20 albiste?

Julen Iriondo: Goienak aurten 20 urte bete dituela eta martxan jarri genuen erreportaje sorta da, *Puntua* aldizkarian argitaratzen eta Goiena telebistan ematen ari garena.

20 urte hauetako albiste inportanteen bilduma da?

J.I.: Albisteena eta gaiena, esango nuke. Saiatu gara, behintzat, aukeratu ditugunak gehiago batentzako inportanteenak edo inportanteenetakoak izan daitezkeen albisteak eta gaiak izan zitezten. Erreportaje batzuk albiste konkretuei buruzkoak dira; AP-1 autobidearen eraikuntzaren gainekoa, adibidez. Beste batzuetan, gaiari heldu diogu, eta erreportaje barruan nabarmendu ditugu hainbat mugarri; unibertsitateen bilakaerari buruzkoan, adibidez.

Testuingurua osatu nahi izan duzue ahots ezberdinak jasoz. Samur aukeratu dituzue ahots horiek?

J.I.: Ez da beti erraza, gaiaren zabaltasunaren arabera. Gertaera konkretua bada, errazagoa da. Adibidez, urteetan luzatu den gai bati eta ertz ugari dituen gai bati buruz ari bagara, zailagoa da elkarrizketatzeko lau pertsona aukeratzea. Zeren, printzipioz, erreportaje bakoitzeko lau pertsonara mugatu nahi izan dugu elkarrizketa berri kopurua, muga nonbait jartzearen, nahiz eta kasu batzuetan besteren bat ere egin.

Irudi zaharrak, albiste izan zirenekoak, darabilzue. Horrek ere badu bere erakargarritasuna eta zailtasuna. Formatu ugari...

J.I.: Bai; bilaketa lana egin behar da, saiatu garrantzitsua den ezerk ez dezan ihes egin... Bilaketa ez da beti erraza, artxibatze moduak ere aldatuz joan direlako eta bere momentuan ondo egin beharreko lana delako materiala artxibatzearena. Gero, bai, material zaharrena zintetatik pasatu behar izan dugu sistema digitalera. Egia da, hori bai, azken emaitzarako polita eta aberasgarria dela beti



Xabier Urzelai eta Julen Iriondo kazetariak Goiena telebistako erredakzioan. IMANOL BELOKI

"Hogei urtek askorako eman dute gure bailaran"

JULEN IRIONDO ETA XABIER URZELAI KAZETARIAK

Goienako kazetari Julen Iriondo eta Xabier Urzelai ekoiztu dute 'Goiena: 20 urte, 20 albiste' erreportaje sorta; postprodukzio lanak, berriz, Monika Monterok egin ditu

artxiboko material hori erabiltzea, edukiagatik, batetik, eta erdi ahaztuta izan genitzakeen gauzez oroitzeko eta urteotako askotariko aldaketak ikusteko, bestetik. Hogei urtek askotara eman dute.

"POLITA ETA ABERASGARRIA DA BETI ARTXIBOKO MATERIAL HORI ERABILTZEA"

Zein erreportajekin geratu zarete gusturen?

J.I.: Frankismoaren biktimen ingurukoarekin eta *Aupa Etxebeste!* eta *Handia* pelikulen gainekoarekin, adibidez.

Xabier Urzelai: Espainiako errege-erreginak Fagorrera etorri zireneko berezia izan zen, eta eskertzekoa da erabaki hartan zeresan handia izan zuen orduko MCCko presidente Jesus Cataniak baiezkua eman izana. Fagor Etxetresnen itxieraren gaineko erreportaje, berriz,

gertatu zena lehenago ere jaso dugu beste erreportaje batzuetan. Oraingoan, lau langile ohirengana gerturatu gara, ze oroitzapen duten duela zazpi urte pasa zen hartaz. Eta deigarria da zenbat kostatu zaigun lau lagun

"TEKNIKARI LANAK ERE EGIN DITUGU, ETA BESTE GIRO ETA KONFIANTZA BAT SORTZEN DA HOR"

horiek batzea; konturatu gara jendeak ez duela batere gogorik gertatutakoaz berba egiteko.

Eta esku artean daukazuenen artean, zeini helduko diozue gogo handiz?

J.I.: Isaias Carrascoren hilketatik abiatutakoa dut orain esku artean. Hurrengo astean emango duguna izango da. Gertaera gogorra da, berez, baina mezu baikorrak eta eraikitzaileak izan daitezkeenak ere jasoko ditu. Ikustea merezik duela uste dut.

X.U.: Julen eta biok duela 20 urte hasi ginen Goienan lanean; sorreratik, alegia. Eta Goiena gai moduan ere landuko dugu; hortaz, ordukoak gogora ekartzea ere gustura egingo dudan zerbait da; nostalgiatik ere izango du apur bat, seguru.

Zaila izan da albisteak aukeratzea?

J.I.: Erraza ez: 20 urte denbora luzea delako; saio honekin zenbait lagunetako lantaldetxo ari garelako, bakoitza bere ikuskerarekin; eta gai batek hamaika ertz izan ditzakeelako.

X.U.: Gai aukeraketa erredakzioan zabalduetako gaia izan zen, eta askok hartu dute esku. Ondoren, orrazia pasa behar izan dugu, helduleku diferenteak kontuan izan... Gai bakoitza ere modu askotara landu daiteke, ikuspuntu ezberdinekin.

Orduko protagonistak ekarri dituzue hainbat kasutan, haiek gaur egungo ikuspuntua emanez. Nola moldatu dira horiek kamera aurrean?

X.U.: Gaiaren arabera. Protagonista batzuk lehenagotik ere ohituta zeuden kamera aurrean berba egitera, eta beste batzuetako lehenengo aldia izan da. Gainera, ez da gauza bera gai positibo bat gogora ekartzea, edo oraindik mina sortzen duen zerbait berba egitea. Egia da elkarrizketak bakarkakoak izan direla, teknikari lanak ere egin ditugu elkarrizketak egiterakoan, eta beste giro eta konfiantza bat sortzen da hor; kamera atzean ez gara lau lagun egon protagonistak esaten duen hori entzuten eta grabatzen.

Telebista proiektuaz gain, papereara ere ekartzen ari zarete erreportajeak...

X.U.: Eta hor dago beste erronketako bat. Ez da gauza bera ordu erdiko telebista saio bat egitea, edo sei orrialdeko erreportaje bat idaztea. Gaia berbera da, baina gaia aurkezterakoan euskarriak ez dira berdinak, ezta gaia lantzeko modua ere.



Antzuolako jokalaria, euren artean jokatutako lagunarteko partidu batean. ©KARLOSBALEZTENA

Liga hastear den honetan, atsedena

Dena ondo bidean, futbol liga bihar, zapatua, hasiko da. Antzuolako lehen taldeari, ordea, atsedena tokatzen zaio; hala ere, lagunarteko partidua jokatuko dute Eibarko Urkiren aurka, bihar bertan. Iker Epelderren taldea gogotsu eta indartsu dago

Maidar Arregi ANTZUOLA

Pandemiak bete-betean kirolaren esparrua jo duen honetan, partidu antolaketa lanak ez dira batera errazak izaten ari. Antzuolako lehen taldean, gaur-gaurkoz, ez da positibo kasurik atzeman eta hastear den ligari gogotsu ekiteko prest daude. Hasiara gorabeheratsua izan dute, eta aurreko asteko lagu-

nartekoa bertan behera geratu zen, Segurako taldean positibo kasu bat antzeman zelako. "Liga hasiko da asteburuan, eta, atsedena tokatzen zaigun arren, lagunartekoa jokatuko dugu, Eibarren. Taldeak hiru astean hobekuntza ona egin du fisiko-ki, eta gogotsu gaude. Hainbat aldaketarekin hasiko dugu denboraldia: beterranoek utzi egin

dute eta jokalar berriak ditugu, bai jubeniletatik igotakoak eta baita Bergaratik etorritakoak ere, besteak beste", azaldu du Iker Epelde entrenatzaileak.

Kadeteen konfinamendua

Kadeteen mailan, aldiz, 23 jokalaritik lauk eman dute positibo eta hiruk konfinatuta segitzen dute (Egueneko datuak).

Kutsatze kopuruen gorakada dela-eta zentzuz jokatze deia

Asteon izandako positibo kopuruek kezka eragin dute; hala ere, Osakidetzak ez du fokurik dagoen jakinarazi

Maidar Arregi ANTZUOLA

Joan den egubakoitzetik astelehenera bitartean atzemandako 18 kutsatu kasuek kezka sortu dute herrian (atzo, beste bost kasu). Hala ere, lasaitasun mezua helarazi du Beñardo Kortabarria alkateak eta zentzuz jokatze eskatu die herritarrei: "Astean Osakidetzak jakinarazitako datuek atentzioa eta kezka sortu dute, baina Osakidetzatik ez dugu inolako abisurik jaso eta fokurik ba ote dagoen ere ez digute abisatu. Ez dugu aparteko neurririk hartu, eta

lasaitasun mezua helarazi gura diegu antzuolarrei. Eskatu gura diegu, ordea, zentzuz jokatze egoera honen aurrean. Hala, distantziak mantentzeko, eskuak garbitzeko eta maskara janzteko eskatu gura diet". Herrian bertan pare bat komertzio itxita daude COVID-19 kasuak tarteko.

Herri Eskolari dagokionez, 240 ikasle 26 daude konfinatuta. "Egunerokoari eustea zaila da, klase berean 10 ikasle ere konfinatuta baititugu. Etxean daudenekin lanean gabiltza eta familiarrekin harreman estua dugu".

Candendo organo jotzailearen emanaldia bihar

Organo Erromantikoaren Nazioarteko Zikloaren baitan, urriaren 17an, Oscar Candendo antzuolarrak emanaldia eskainiko du. Bergarako Santa Marina parrokiaren eskainiko du emanaldia, 20:00etan hasita, eta Ana Otxoa soprano bilbotarra izango du bidelagun.

Candendok gaur egun European barrena dihardu kontzertuak

eskaintzen, eta, arlo pedagogikoan, organo-irakaslea ere bada, Kataluniako Goi Mailako Musika Eskolan. Donostiako Artzain Onaren parrokiako organo-jotzaile ofiziala da Candendo.

Ana Otxoa, berriz, EHU musikan espezializatutako irakasle-diplomatu da, eta Psikopedagogian lizentziatua ere bada. Egun, nazioarteko abeslari dihardu eta hainbat grabazio egin ditu bakarlarri gisa; besteak beste, Musikeneko Orkestrarekin eta Kea taldearekin.

GORA ETA BEHERA



Lizarra moztuta eta lurtean utzita

Horrelaxe azaldu zen lizar bat Trekutzen. Udalak ohartarazi du mendia zaintzea denon ardura dela. Bide batez, Trekutz eta Korosterratzu ingurua garbitzeko auzolanerako dei egin dute biharko. 08:00etan plazatik abiatuko dira, basoa txukuntzeko asmoz.

EZER TXALOTU EDO SALATU NAHI?

berriak@goiena.eus

edo 688 69 00 07.



Aldagelen obrak, amaitzeke

Eztalako obrak lanak zertxobait atzeratu badira ere, dena ondo bidean azaroan egin gurako luke klubak inaugurazio ekitaldia. "Azaroko lehen asteburuan egin gurako gure inaugurazioa, baina egunez egun pandemiaren egoerak markatuko du erabaki hori. Udalarekin protokoloa ere zehaztu beharrean gaude: dutxen erabilera, ikusleak egotearen aukera...".



Eztalako aldagelen eta tabernaren obra. MAIDAR ARREGI



Patxi Larrañaga, udal liburutegian, kazetariari bere liburuaren hirugarren zatiaren gaineko azalpenak ematen. JOKIN BEREZIARTUA

Pandemiak ez dio iragana arakatzeko grina amatatu

Patxi Larrañagak amaitu du 'Abizenak, leinuak eta oinetxeak' liburuaren hirugarren eta azken zatia, 'i' hizkitik 'z' hizkira arteko abizenak dituen protagonista; COVID-19agatik Udalarekin adostu nahi du nola egin aurkezpena, baina abenduan izatea nahiko luke

Jokin Bereziartua BERGARA

"Denok behar dugu zaletasunen bat bizitzari zukua ateratzeko, eta hau da nire pasioa, paperen artean beti aurkitzen dut-eta ezustekoren bat". Hitz horiekin eta amaitu berri duen *Abizenak, leinuak eta oinetxeak* liburuaren hirugarren zatia eskuetan duela azaldu du Patxi Larrañagak (Soraluze, 1948) zergatik igarotzen

dituen horrenbeste ordu iraganeko kontuak arakatzeko. Bergarako baserriak ikertzen ditu, minusbaliotasun bategatik erretiratu zenetik; izan ere, ezaguna eta aspaldikoa da Larrañagaren Bergarako baserriekiko interesa eta haien berri gehiago jakiteko eta zabalteko egindako lana. Horren isla da *Bergarako baserriak* izenburupean Interneten

duen ataria, eta, hori abiapuntu hartuta, baserri horietako zenbaiten duten ezaugarrietan arreta jarri eta liburuan batzeko lan egin du azken urteotan.

Baserriaren bueltako bitxikeriak Liburuaren hirugarren zatia ere oinetxeen eta mendeetan zehar hura bizitoki izandako leinuaren gaineko informazioa



Larrañaga bere liburuaren bigarren zatia sinatzen, 2018ko azaroan. GOIENA

Aurreko bi liburuek, ikusmin handia

2017ko uztailaren 1ean eta 2018ko azaroaren 29an izan ziren beste bi aurkezpenak eta goraino bete zen udaletzeko areto nagusia. "Asko dira euren arbasoen berri izan nahi dutenak; liburuak hainbat datu eskaintzen ditu. Eskaera horietako asko Amerikatik heltzen zaizkit".

eta bitxikeriak jasotzen ditu. Alfabetikoki landu ditu Larrañagak baserri horiek guztiak, eta baditu lokalizatuta Bergaran 400 bat baserri. Hirugarren honetan, *i* eta *z* hizkien arteko abizenen berri jasoko du irakurleak; liburuan, garai bakoitzaren, bizimoduaren, eta abarren berri eman dezaketen bitxikeriak aipatzen ditu historia ikerlariak.

"Arbasoak auzitan zeuden beti"

Abizenari garrantzi handia ematen zitzaien garaiak izanda ere, Larrañagak dio deigarria dela familiako kideen arteko auzietarako –"pleitoetarako"– nolako joera zegoen: "Estupro-azui asko ageri dira Oñatiko protokoloen artxiboan. Hau da, nahiko ohikoa zen gizonak emakumeari ezkontzeko eskatu, narrutan egin eta haurdun utzi ostean, emaztea umearekin bakarrik

uztea. Orduan, emaztearen familiak umearen mantenturako dirua exijitzen zion gizonari...".

Abenduan aurkeztu nahiko luke Hainbat bitxikeria aurkitu ahaliko dira aurtengo maiatzean aurkezteko zen liburuan; COVID-19ak hankaz gora jarri zituen Larrañagaren asmoak: "Maia-tzerako dena nuen prest, baina pandemia agertu zen. Hilabeteak pasatu dira ordutik, eta berandu izan baino lehen aurkeztu nahiko nuke jendaurrean. Non eta nola? Ez dakit, Udalarekin berba egin behar dut lehenago".

LOKALIZATUTA DITUEN 400 BAT BASERRITAN OINARRITU DU BERE AZKEN URTEOTAKO LANA LARRAÑAGAK

Etorri dendara eta eman izena Euskaraldiaren bigarren edizioan

Barrenkaleko 14. zenbakian dagoen lokalean kamisetak, poltsak eta banderatoak erosteko aukera izango duzue

Goiena komunitatea

Euskaraldia / BERGARA

Urriaren 5ean ireki genuen denda Barrenkaleko 14. zenbakian. Bertan, besteak beste, Euskaraldian izena emateko, zalantzak argitzeko eta kami-

setak, poltsak eta banderatoak erosteko aukera izango duzue. Asteleheneretan, eguztenetan eta egubakoitzetan 17:30etik 20:30era egongo da zabalik denda, eta martitzenetan eta zapatuetan, berriz, 11:30etik 13:30era.

Harremanetarako bideak honako hauek dira: 688 60 43 14 telefono zenbakira deituta (Asier), bergaraeuskaraldia@gmail.com helbide idatzita edota Twitter eta Instagrameko kontuetan.

'Erdaldun berrien kluba', bihar Bihar, urriak 17, Jardunen eskutik, *Erdaldun berrien kluba* antzezlanaz gozatzeko aukera izango da, Seminarixoa (19:00). Idoia Etxeberriaren lana da, Olatz Pagaldai aktore eskoriatzarrak antzeztu duena.



Bolutario bat Barrenkaleko dendan, izena emateko mahaian. EUSKARALDIA BERGARA

Hiru ludotekak eta eskola kirola martxan jartzeko gertu daude

Azokako ludoteka astelehenean jarriko dute martxan, eta eskola kirolerako kontuen berri ikastetxeek emango dute

J.B. BERGARA

Pandemiak eraginda etenda egon ostean, ludoteka zerbitzua eta eskola kirola datozen bi asteetan itzuliko dira. Azokako ludoteka urriaren 19an jarriko dute martxan eta Angiozarko zein Osintxuko ludoteketarako izen-ematea atzo, urriak 15, abiatu zuten. Bestalde, azaroaren 2an ekingo diote eskola kirolari eta igeriketa eskolari. Hori bai, entrenamenduak soilik jarriko dira martxan, ez txapelketak edota lehiaketak. Eskola kirolerako taldeak martxan jartzeko ikaste-

txeetako burbuila taldeak errespetatuko dira. Hori dela eta, eskola kirolerako taldea sortzeko, gela bakoitzetik gutxienez lau umek eman beharko dute izena. Eskola kirolaren izen-ematearen berri ikastetxe bakoitzak emango du.

Udalak ikastetxeekin irail hasieran adostu zuen eskola kirola eta eskolaz kanpoko beste udal zerbitzuak martxan ez jartzea, osasun egoeraren garapena nolakoa den ikusi arte. Urriaren erabaki zuten itzulera modu mailakatuan egitea.

OHARRAK

Agorrosingo ikastaroetako begiraleen protestak

Begiraleek protestekin segituko dute; euren egoerak "jasanezina" izaten jarraitzen duela diote. Laguntzaren bat eskatzen dute, euren lan jarduna ez delako garai batekoaren %20ra heltzen. Urriaren 20an eta 27an Agorrosin atarian elkartuko dira 18:30etik 19:30era eta 19:30etik 20:30era, hurrenez hurren. Hilaren 21ean eta 28an, berriz, plazan batuko dira, 11:00etatik 12:00etara.

Beart-en sorkuntza artistikorako tailerra

Artean graduatua den Amaia Santamariak (690 25 14 50) gidatuko duen ikastarorako izen-ematea zabalik dago. Eskolak egubakoitzetan izango dira, Beart-en egoitzan, 17:30etik 20:30era.

Egoitzetako zaintzaren gaineko hitzaldia

Irauli Zaintza plataformako Silvia Carrizok eta Xanti Ugartek *Egoitzak eta zaintzak: ba al dago alternatibarik?* hitzaldia emango dute urriaren 20an Seminarixoan (18:30). Ele bitan izango da.

Hitzaldi musikatua Laboratorium museoan

Ilustrazioaren eragina euskal dantzan saio musikatua izango da urriaren 20an (18:30). Oier Araolaza dantzariak egingo du berba, Quico Puges biolontxelo-jotzailearen musikaz lagunduta.

"Zaintzaileen errealitatea zein den jakin nahi dugu"

MAIDER URBIETA BERGARAKO UDALEKO BERDINTASUN TEKNIKARIA

Konfinamenduak agerikoago egin duen zaintza lanen gainean ikerketa bat lantzen ari da Udala; bestalde, Berdintasun Kontseilua eta jabekuntza eskola martxan dira berriro

Jokin Bereziartua BERGARA

Urtebete eta erdi egingo du las-ter Berdintasun teknikari moduan Maider Urbietak. Mahai gainean dituen askotariko lanen artean dago Berdintasun Kontseiluari jarraipena egitea. "Partaidetza handitzen doa", dio.

Noiz, nola eta zertarako sortu zen Berdintasun Kontseilua?

2018an sortu zen modu finkoan Berdintasun Kontseilua eta ordutik hona bi edo hiru hilean behin elkartu izan da. Pandemiak eragin du salbuespena, martxotik irailaren 30era arte ez ginelako elkartu. Kontseiluaren helburua da herriko berdintasun politikei bultzada eta jarraipena ematea. Udalak badu berdintasun plan bat eta bertan jasotzen dira hainbat ekintza egin beharko lirakeela; kontseiluko bileretan, besteak beste, ekintza horiei jarraipena egiten zaie eta ekintza berriak proposatzen dira.

Nortzuek osatzen duzue kontseilua?

Deialdia irekia da beti. Herriko elkarte guztiei bidaltzen zaie, nork bere arlotik eragiteko aukera izan dezan. Era berean, badira norbanako moduan agertzen direnak, gaian interesatuta daudelako edo. Kontseilua aurreko agintaldiko Udal Gobernuak eratu zuen, baina ez dago politikariei begira sortuta.



Urbietak, udaletxeko bulegoan. J.B.

Nolako bilakaera izan du?

Pixkanaka, funtzionamendua hobetzen eta partaidetza handitzen doa kontseiluan. *Berdintasun politikak* berbak entzuterakoan kostatu egiten da norberak nondik eragin dezakeen ikustea; baina, gero eta ordezkaritza zabalagoa dugunez, uste dut ari garela lortzen jendeak ikustea kontseiluan parte hartzeko ez dagoela zertan gaiak jakin. Nork bere bizipenetatik asko eman dezake, edo entzutera bakarrik ere etor daiteke. Ateak erabat zabalik daude parte hartzeko.

Bi urteotan egindako lanaren emaitza ukigarriak aipatuko zenuke?

Martxoaren 8ko eta azaroaren 25eko kanpainetan gero eta ekintza gehiago egiten dira herriko proposamenetatik eratorrita. Udala arduratzen da ekintzok gauzatzeaz, baina herritarren nahia geroago eta islatuago dago. **Zer dago orain bertan Berdintasun Kontseiluaren mahai gainean?**

Datozen hilabeteotako programazioa denon artean lantzeko ari gara lanean. Azaroaren 25a da gertuen dugun zita, eta jasotako proposamenei forma ematen dihardugu. Horrez gain, asteotan martxan jarri dugun jabekuntza eskolari jarraipena egiten ari gara; bi ikastaroetako batean ez da jenderik apuntatu eta bestean itxarote-zerrenda osatu behar izan dugu. Beste gai bat da Udalak aurtan garatzen diharduen proiektu berri bat: zaintza lanen diagnostikoa egiten ari gara, ahalik eta modurik zehatzenean jakiteko zein den zaintzaileen errealitatea.

Nola eragin dizue pandemiak?

Emakumeok elkartzea da gure helburu nagusietako bat eta hori galarazi egin digu COVID-19ak. Gainera, konfinamenduak agerian utzi du zaintza lanen garrantzia eta emakumeoi rol horrek noraino eragiten digun.

Gorka Artola 'Harira' saioan, urriaren 20an (21:30 eta 23:30)

Gorka Artolak gaurkotasanari lotutako gaiak aztertuko ditu: COVID-19ari aurre egiteko plan integrala, Zubietako proiektua, lur azpiko aparkalekua... Herritarrek aukera izango dute galderak egiteko, galderak hilaren 19a baino lehen bidalita: Whatsapp edo Telegram bidez (688 69 00 07) edo posta elektronikoz (berriak@goiena.eus).

Sugoi

ERLOJUAK,
ARTIKULU
ELEKTRONIKOAK,
KALKULAGAILUAK...

Fraiskozuri plaza 8,
943 76 59 54 BERGARA

Kabutzia

ARRANDEGIA

Fraiskozuri 6
BERGARA
Tel.: 943 76 56 62



Aitor Zabaleta
Tel.: 606 58 18 10
www.txipi.com

TXIPI

LEIHO ISOLATZAILEAK

Amillaga 5, behea - BERGARA

Kaleko katuena, larritzen doan "aspaldiko arazoa"

Bereziki Artzamendin eta Matxiategin, kezka sortu dute kalean bizi diren katuek eta azkenaldian egoera larritu egin dela diote bizilagun batzuek; jaten ematen dietenei hori egiteari uzteko eskatu diete, eta Udalari arazoa konpontzeko baliabideak jar ditzala

Jokin Bereziartua BERGARA

Kalean bizi diren katuen arazoa ez da berria Bergaran, eta Udala bera aspaldi da horren jakitun. 2019ko urtarrilean, adibidez, Cristo Obrero kaleko belar altu batzuek egin kendu zituzten "kontrolrik gabeko fauna" zegoela iritzita; tartean, katuak. 2018ko Gabonen aurretik konturatu ziren Udaleko langileak, bizilagunak kexatu ostean, arkakusoz beteta zegoela ingurua. Eskuhartzea egin zen bere garaian, baina arazoa ez da konpondu.

Lorategi edo gune berde batzuetan egindako interbentzioez gain, Udalak bandoak ere jarri izan ditu gune kaltetuenetako atarrietan –azken bandoa alkateak sinatutakoa da, 2020ko uztailearen 20koa–, bizilagunei jakinarazten leiho edo balkoietatik ezin dela janaririk bota. Beste herri batzuetan, Arrasaten kasu, Udala irabazi asmorik gabeko elkarteekin aritzen da lankidetzan. Kalean bizi diren katuei "bigarren aukera bat" ematea helburu duen Kaonbi elkarteak da horren adibide.

Artzamendin arratoiak ere bai

Arazoa larritu egin da azkenaldian, asteon GOIENArekin harremanetan jarri diren bizilagunen arabera. Arazoaren jatorria




Kalean bizi diren hainbat katu elkarren ondoan, Artzamendin. M.A.

UDALAK JARRI IZAN DITU BANDOAK GUNE KALTETUENETAN, KATUEI JATEN EZ EMATEKO ESKATUZ

jaten ematen dieten bizilagunengan dagoela diote herritar horiek. Artzamendi da kaleko katuek buruhausteak eragin dituzten guneetako bat. Bertako bizilagun baten arabera, "arazoa larria" da: "Udaletxean idatziak sartu

izan ditugu, baina ezer. Katuak terrazetara sartzen dira... Gero eta gehiago dira, dagoeneko 18 katutik gora zenbatu ditugu eta bizilagunek jaten ematen jarraitzen dute, nahiz eta ezin den". Katu gehiegi egoteak beste arazo bat ekarri du Artzamendin: "Dagoeneko arratoiak ere badaude auzoan; alboko portalean hiru aldiz sartu dira arratoiak aurtan eta tinbreetako kableak jatera heldu dira". Badira katuek buruhausteak eragin dituzten beste gune batzuek; esaterako, Aranerrekana eta Koldo Eleizalden.



2020ko urtarrileko kontzertua, udal pilotalekuan, pandemia hasi aurretik. I.S.

Frontoira itzuliko da banda etzi, martxa baten estreinaldiarekin

Lokatza taldearendako Igor Larrañagak konposatu duen 'Lagun artean' pieza joko dute lehen aldiz, 12:30ean

J.B. BERGARA

Domekan bueltatuko da Bergarako banda ohiko plazara, etzi emango dute eta pandemiako lehen kontzertua udal pilotalekuan (12:30). Aratusteetakoa izan zen bandak frontoian eman zuten azken kontzertua, otsailaren 21ean. Orduetik, eserita kontzertu bakarra Boluko frontoian eman zuten, irailaren 20an.

Lokatzaoren martxa lehen aldiz Domekako kontzertuak, gainera, izango du osagai berezi bat: San Martin jaietako danborradan parte hartzen duen Lokatza taldearen *Lagun artean* martxa estreinatuko dute –elkarte gastronomikoa ere osatu berri dute–, bandako zuzendariorde Igor Larrañagak konposatua eta Larrañagak berak zuzenduko duena. Gainerakoan, askotariko doinuak entzun ahalko ditu edukiera murriztua izango duen

frontoira hurbiltzen den herritarrek, bandako zuzendari Enrique Txurrukaren arabera: "Zazuela, folka, doinu deskriptiboak eta musika brasildarra". Toki itxietan ere kultura segurua dela aldarrikatu du Txurrukak: "Munduan, eta hemen ere, aspaldi hasi dira toki itxietan kultur ekitaldiak eskaintzen, eta, neurriak betez gero, segurua dela ikusi da".

Gonzalez Bastida Musikasten

Irailaren 26an bete ziren 100 urte Miguel Gonzalez Bastida jaio zela, eta domekan, Oreretako Musikaste jaialdia barruan, omenaldia egingo diote (12:00): "Maiatzean egin behar zen, baina etzi egingo da, Koldo Mitxelena zentroan, beharrezko neurri guztiekin eta edukiera 150 lagunera mugatuta. Oreretako udal bandak eta txistulari bandak joko dute", dio Gonzalez Bastidaren seme Alfredo Gonzalez Chirlaquek.

Egoera "nazkagarria" Matxiategin

Matxiategiko bizilagun batek dio arazoa dutela auzoan katuekin: "Egoera nazkagarria izatera pasatu da. Batzuek atarrietatik eta balkoietatik jaten ematen diete katuei, eta katuak erabat ohitu dira gure artean bizitzera. Ez dira apartatzen ondotik pasatzean, usain oso txarra dute eta ingurua nazkagarri dago; jaten ematen dietenei eta Udalari eskatu nahi diet egoera aldatu dezatela".



Katuak Matxiategi inguruan, hiru argazkitan. GOIENA

Erreka garbiketarik ezean, Erreka Eguna ospatuko dute bihar

Deba ibaia asko hazi denez, Erreka Batzordeak plana aldatu du biharko. Ez da garbiketarik egingo, baina ez zuten eguna bertan behera utzi nahi, besteak beste, 170 bat lagunek eman dutelako izena. Seminarioko patioan eta Labegaraietako kiroldegian elkartuko dira, 09:30ean. Taldeetan antolatu eta inguruko erreka bisitatuko dituzte, batzuek

oinez eta beste batzuek bizikletaz; Abrain, San Juan, Arane, Angiozar eta Deba ibaiaren Melkalde-Osintxu eta Labegaraietan-Elorregi-Epele tramuetan, hain zuzen. 12:30ean, ibaiaren ekosistemaz eta berreskurapenaz hitz egingo dute aditu banak Usondon eta Labegaraietan; eta 13:00etan, manifestua irakurri eta talde argazkia aterako dute.

COVID-19agatik, hamaiketako eta ura norberak eraman behar du etxetik: "Animatu, ezagutu ditzagun inguruko errekek".



Ezkerretik hasita, Martin, Perez eta Fernandez, domekan, Hondarribian, Gipuzkoako Karate Txapelketan. BERGARAKO SHOTOKAN

Dominekin itzuli dira etxera Shotokanekoak

Gipuzkoako Karate Txapelketan Ariane Martin eta Naia Perez bergararrak lehenengo postuan gelditu dira kumite modalitatean. Danel Fernandez, berriz, bigarren sailkatu da kata modalitatean. Hiru kirolariek Euskadiko Txapelketarako txartela lortu dute

Karme Uribesalgo BERGARA

Karateko Gipuzkoako Txapelketa jokatu zen domekan Hondarribian, eta lehiaketa horretara joan ziren hiru bergararrak dominarekin itzuli dira etxera. Bergarako Shotokan taldeko Ariane Martin eta Naia Perez lehenengo postuan gelditu dira kumite modalitatean. Danel Fernandez kata modalitatean aritu zen, eta bigarren postua eskuratu zuen sailkapenean. Emaitza horiek lortuta, hemendik bi astera Barakaldon egingo den Euskadiko Txapelketan lehiatuko dira Martin, Perez eta Fernandez.

Joxean Iñarra Shotokaneko entrenatzaileak azaldu duenez, "oso gustura" daude lortutako emaitzarekin. Iñarrak adierazi du hiru kirolariak "oso pozik" itzuli direla Gipuzkoako Txapelketatik, eta uste du domina horiek "pizgarria" izan direla eurentzat. Izan ere, entrenatzaileak aitortu du koronabirusa dela-eta ezarritako protokoloak

"oso zorrotzak" direla eta zaildu egiten dutela euren jarduna.

Ikasturte "berezia"

Iñarrak azaldu du pandemia dela-eta txapelketak publiko gabe egin behar dituztela, eta, ondorioz, lehiakideen senideak eta lagunak ezin dira ikusle gisa joan. Horrez gain, aldagelak itxita daude, eta kategoria bakoitzak ordutegi bat dauka bai lehia eremura sartzeko, baita ateratzeko ere.

Lehiatzen ari direla kirolariek maskarekin egon behar dute. Hori dela eta, kumitearen kasuan, teknika aldatzea erabaki dute Bergarako Shotokanekoek. "Bi minutuko konbateak dira, eta indarrak dosifikatzea erabaki

BAKARKAKO TEKNIKEI EMAN DIETE LEHENTASUNA ETA MASKARAREKIN EGOTEN DIRA

dugu, indar guztia bigarren minutuan jarritz, bestela kirolariak ito egiten baitira", zehaztu du Iñarrak. Izan ere, maskaraz aparte, haginak babesteko aparatu bat ere izaten dute ahoan. Lehiaketen egutegiari dagokionez, Iñarrak adierazi du "airean" daudela txapelketen datak.

Aldaketak entrenamenduetan

Entrenatzeko orduan, bakarkako teknikei eman diete lehentasuna, eta maskarekin egoten dira. Gainera, kantxa lau zatitan banatu dute, eta zortzi pertsonako taldeak egoten dira eremu bakoitzean. Temperatura ere hartzen diete kirolariei eta aldagelak itxita daude.

Kudo saioetan, kaskoekin entrenatzen dira, eta, kasko horiei esker, kirolariek plastikozko pantailla bat dute aurpegiaren parean. "Modu horretara, ikasleak babestuta sentitzen dira", adierazi du. Iñarrak azaldu duenez, joan den urtean baino jende gehiago dago taldean.



Astearteko finaleko sari banaketa. JULEN ARANBURU

Bergara Hiria emakumezkoen txapelketako finalak jokatu dira

Nagusietan, Ruiz de Infante eta Ruiz de Larramendi izan dira garaile; promesetan, Salsamendi eta Mendiburu

K.U. BERGARA

Asteartean jokatu ziren, udal pilotalekuan, III. Bergara Hiria Emakumezkoen Txapelketako finalak. Promes mailan, Laia Salsamendi eta Ane Mendiburu nagusitu ziren Maddi Barrocalen eta Enara Gaminderen kontra, 22-7 irabazita; nagusien artean, berriz, Ainhoa Ruiz de Infantek eta Maite Ruiz de Larramendik eraman dute txapela: Iera Agirrerren eta Olatz Ruiz de Larramendiren aurka jokatu zuten, eta emaitza 22-17 izan zen.

Pilota sailak eskerrak eman nahi izan dizkie txapelketan

parte hartu duten pilotari guztiei, baita partiduak jarraitu dituzten ikusleei ere. Horrez gain, azpimarratu dute ezinbestekoa dela Bergarako Udalak emandako laguntza.

Neurriak hartuta

Pandemiaren eraginez, protokoloa jarraituz jokatu dute irail amaieran hasi zen txapelketa. Sei bikote aritu dira lehiatzen, eta bost jardunaldi jokatu dituzte. Bazekiten arazoak izan zitezkeela koronabirusagatik, baina txapelketarekin aurrera jarraitzea erabaki zuten antolatzaileek.



KARMELE URIBESALGO

60ko hamarkadako argazkiak

Aroztegi aretoan 60 izeneko erakusketa dago ikusgai joan den ostiraletik. 1960ko hamarkadako Bergara nolokoa zen erakusten duten 65 argazkiren aukeraketa egin du Udal Artxiboak. Irudietan nabari da, besteak beste, zer-nolokoa aldaketak izan diren hirigintzan, nola bizi ziren garai hartan eta zelako garrantzia zuen Elizak. Urriaren 25era arte egongo da zabalik.

Ingurumenaren zaintzak guztion beharra du

Asteleheneetik domekara bitartean Aste Berdea dago iragarrita Elgetan. Udalak antolatua, ia egunero izango da ekintzaren bat. Batzuk pil-pilean dauden gaiak jorrazteko izango dira; beste batzuk, adin guztietako herritarren artean sentsibilizazioa lantzeko

Larraitx Zeberio Lekuona ELGETA

Hiru hitzaldik, argazki erakusketak batek, neska-mutikoendako kontzertu didaktikoak, herrian sorturiko errefusaren karakterizazioak eta Lehenengo erreka auzolanean garbitzeko irteerak osatzen dute Aste Berdearen egitaraua. Ekintza gehienak Espaloian izango dira. "Herritarrei eskaini nahi diegu gogoeta egiteko tresna bat", azaldu du Ingurumen zinegotzi Ibai Larrañagak. "Gauza askotan hobetu dugu Elgetan, baina badugu hobetzeko tartea".

Hondakinen kudeaketari buruzko hitzaldia eskainiko du Debagoieneko Mankomunitateko ordezkari batek astelehenean. "Hasieran baino hobeto ari gara Elgetan. Gaur egun, hondakinen %75 bat bereizten dugu. Ez da datu txarra", azaltzen du Larrañagak. "Hondar desegokiak agertzen dira, ordea, eta, gainera, kopuru horren bueltan mantentzen gara gora egin gabe. Apur bat lasaitu, eta behera egin dezakegu". Gaikako bilketa hobeto egitea komeniko litzatekeela uste du udal ordezkariak: "Hobetzeko egin daitekeen edozer gauza positiboa izango da".

Errefusaren karakterizazioa

Zapatu eguerdirako, herrian sortutako errefusaren karakterizazioa dago iragarrita. Zabor laginak hartuko dituzte herriko hainbat edukiontzi grisetatik eta aztertuko dute zenbat kartoi, paper, edukiontzi, oihal, botika, beira, eta abar dagoen bertan. "Konturatuko gara batzuetan utzikeriagatik eta besteetan nahastu egin garelako, baina

"ZERBAIT LORTZEKO BIDEA DA BAKOITZAK, AHAL DUEN NEURRIAN, BERE ALETXOA JARTZEA"



Errefusaren karakterizazioa, plazan, orain bi urte. L.Z.L.

badugula zer hobetu hondakinak gaika bereizteko garaian. Bertatik bertara ikusita begira joko digula uste dugu, eta gehiago saiatuko garela. Alde batetik, onura litzateke ingurugiroarendako, eta, bestetik, ekonomikoki ere hobeto da. Zenbat eta gehiago eta hobeto sailkatu, hondakinen kudeaketa kostu bat izatetik diru iturri bihurtzen da Udalarantzat".

Lehenengo erreka garbitzera

Aste Berdeari amaiera emateko, Lehenengo erreka auzolanean garbitzeko irteera egingo du Udalak. Familia giroan zein norbanako moduan egiteko moduko ekintza izango dela azaldu du Larrañagak. "Sentsibilizazio ekintza bat egin nahi genuen eta garbitu izan ohi dira basoak eta mendiak. Kasu honetan, Lehenengo erreka garbituko dugu. Ez gara erdigunetik oso urrutira joango. Asmoa da plazan elkar-teea eta oinez joatea. Industriadetik jaisten da Lehenengo erreka, eta badago zer jaso. Bertara joan eta zaborra badagoela ikusi dugu: kristalezko botilak, latak, plastikoak, zirkulazio seinaleak...". Jasotakoa plazan ja-

rriko dute ikusgai. Ekintza herritar guztiei dago zabalik. Botak edo katiuskak eta eskularruak eramatea gomendatu dute. "Aste Berdeko gainerako ekintzetan moduan, COVID-19aren aurkako neurriak bete beharko dira".

Aste barruko egitaraua

Urriak 19, astelehena

• 19:00 Hitzaldia:
Hondakinen kudeaketa.

Urriak 20, martizona

• 17:00 Umeendako kontzertu didaktikoa.

Urriak 21, eguaztena

• 19:00 Hitzaldia: *Goienen.*

Urriak 22, eguena

• 19:00 Hitzaldia. Gorka Egiaeren *Ekologista naiz baina...*

Astean zehar argazki erakusketak plazan, eta interesgunea liburutegian.

Positiboak gehituz doaz, eta erantzukizunez jokatu behar da

Egoera ez da dramatiko, baina babes neurriak hartzea garrantzitsua dela adierazi dute Udaletik eta eskolatik

L.Z.L. ELGETA

Aurreko aste bukaeran hiru kasu berri baieztatu ziren Elgetan. "Alarmarik ez, baina jabetu gaitezen hau ez dela pasa. Zenbat biztanle garen kontuan izanda, hiru positibo baieztatzea eta hain bateratsu kopuru adierazgarria da. Musukoak jantzi-izatea eta distantziak mantentzea ezinbestekoa da", esan dute Udaleko ordezkariak. Eskolak bat egiten dute neurriak hartzearen garrantziarekin. Martitzenean jakinarazi zuten ikasleekin kontaktu zuzenik ez

duen langile batek positibo eman duela PCR proban –eguen goizera arteko datuak dira–. Eskolak zabalik jarraitu du, nahiz eta hainbat irakasle koarentenan egon eta ordezkariak kudeatu behar izan diren. Lan Arriskuen Prebentzio Sailarekin eta Osakidetzako erreferentziatzko arduradunekin elkarlanean hartu dira erabakiok. "Momentu honetan eskolan konfirmaturik dagoen positibo bakarra ez da elgetarra, eta kutsatze fokua ez dago eskolan edo herrian kokaturik", zehaztu dute.

Vueltako tropela birritan pasako da Elgetatik, martitzenean

Arraten ikusleak egotea debekatu izanak Elgetan eragina izan dezakeela uste dute udal ordezkariak

L.Z.L. ELGETA

Martitzenean abiatuko da Espainiako Vuelta, Irun-Arrate etaparekin. Jaurilaritzako eta Vueltako ordezkariak erabaki dute Arraten publikorik ez egotea. Eibarrera iritsi aurretik, ordea, lasterketa birritan igaroko da Elgetatik. 16:10 aldera izango da tropela Karabietan Eibarrerako bidean, eta 16:50 bueltan pasako da berriz ere herrigunetik, Uberatik Eibarrerako bidean. "Zer gertatuko den neurtzea zaila da, baina halako lasterketa garrantzitsuak pasa

direnean, Asentziotik, Karabietatik-eta, jendea egon da. Kontuan hartuta Arrate aurreko azken bi portuak Elgeta direla, uste dut erakargarria izan daitekeela jarraitzaileendako. Nekeza ikusten dut jendea etorri, eta denak errepide bazterrean egotea distantziak eta beste errespetatuz. Lasterketak ikusteko toki onenak A eta B izaten dira, eta eskatuko nieke bai lasterketako antolatzaileei bai ikusleei neurriak hartzeko halako pila-ketarik ez gertatzeko", adierazi du Iraitx Lazkano alkateak.

Areto futbol txapelketa jokatu dute bihar herriko sei taldek

Kanpoko kantxan lehiatuko dira Astuan Villa, Itxixa, JoTaOña, Kojá, Liberpulpó eta Txapela taldeak. Lehen partidua 09:00etan hasiko da eta finalerdiak eta finala arratsaldez izango dira. Partiduak hogeita minutuko bi zatikoak izango dira, tartean bost minutuko atsedenearekin. COVID-19aren aurkako protokoloa errespetatu beharko da.

LH3tik gorako haurrendako ipuinak, gaur, liburutegian

Egoera berrira egokitu dituzte Ipuinen Ordua saioak ere. Hala, gaur egingo dute ikasturteko lehen entzunaldia, 17:15etik 18:00etara. Hirugarren mailatik gorako haurrendako izango da. Oraingoan, egun bakoitzeko saio bakarra izango da, eta zehaztutako haurrendako. Protokolo berria ezarri dute. Ikusgai dago liburutegian zein webgunean.



Ana Royuela eta Olga Fernandez Xalbadorpeko kideak, eguaztenean, egindako lanak eskuetan dituztela. JONE OLABARRIA

Adinekoen topagune izan guran sortutako ekimena

Herriko adinekoek batu eta kalera irteteko aitzakia izan dezaten, kakorrazt ikastaroa antolatu dute Elgetan. "Helburu sozial bati jarraiki", elkar ezagutu eta jakintza partekatu nahi dute ekimenarekin. Zabalik dago izen-ematea, azaroaren 4ra arte

Jone Olabarría ELGETA

Xalbadorpe erretiratuen elkar-teak bultzatuta, lehenengo egingo dute aurten kakorrazt ikastaroa Elgetan. Ohiko ikastaro bat baino gehiago, "elkartzeko gune bat" izatea gura du ekimen berriak. Xalbadorpe elkarteko kide diren Olga Fernandezek eta Ana Royuelak azaldu dutenez, "helburu sozialarekin" abiatu dute proiektua: "Adineko pertsonak kalera irten, elkartu eta norberak dakiena konpartitzeko toki bat izatea bilatzen dugu ikastaro honekin. Adin nagusiko pertsona asko daude bakarrik, eta kalera irteteko aitzakia bat izatea gura dugu hitzorduarekin".

Denentzat zabalik

Egitasmoak adineko pertsonak ekintza baten bueltan batu nahi ditu. Zehaztu dutenez, bertan parte hartzeko ez da beharrezkoa Xalbadorpe erretiratuen elkar-teko kide izatea. "Norberak dakiena konpartitu eta besteen-

gandik ikasteko baliagarria izatea gura dugu. Hutsetik ikasi nahi duenak ere badu aukera, denon artean norberak dakiena erakutsiz lagunduko diogu".

Elkar ezagutzeko tresna

COVID-19ak baldintzatutako egunerokoak adinekoen egoera okertu duela adierazi dute. Hauen artean ere erlazio sozialak mantendu eta jende berriarekin harremana izateko modu bat dela azaldu dute: "Askotan, eza-gutu bai, baina ez dugu erlaziorik gure herriko askorekin, eta pena da. Halako ekimenekin gure zirkulu soziala handitu eta elkar hobeto ezagutzeko aukera dugula iruditzen zaigu".

"ADINEKO PERTSONAK IRTEN, ELKARTU ETA NORBERAK DAKIENA PARTEKATZEKO GUNE IZATEA DU HELBURU"

Hitzorduak zehazteko

Gaur-gaurkoz ez dute zehaztuta asteen zenbatetan batuko diren edota zer egun eta ordutegirekin egingo duten. Azaldu dutenez, izen ematea ireki eta herritarren artean duen erantzunaren zain daude: "Ekimenarekin bat egitera animatzen direnen kopurua ikusi eta denon artean zehaztu nahi ditugu egun eta orduak, denendako aproposak direnak bilatuz".

Izen ematea abian da

Parte hartzera animatzen direnek izena eman beharko dute, azaroaren 4a baino lehen. Horretarako, Olga Fernandezekin telefono bidez harremanetan jarrita (667 80 70 06). Taldea eratu ahal izateko gutxienez lau pertsonak eman beharko dute izena eta taldea gehienez hamar laguneko izango da. Era berean, gogorarazi dute ekintza abiarazteko COVID-19aren aurkako segurtasun neurri eta protokoloak beteko direla une oro.

'Ahobizi' edo 'belarriprest' izena emateko unea iritsi da Elgetan

Eman izena azaroaren 19a baino lehen. Aurreko edizioan 220 'ahobizi' eta 42 'belarriprest' izan ziren Elgetan

Goiena komunitatea

Elgetako Euskaraldiaren batzordea

2018an *ahobizi* edo *belarriprest* izan bazineten, aurten ez duzue berriz izena eman beharko. Mezu elektroniko bat jasoko duzue asteotan kontaktu moduan emandako helbide elektronikoan, eta izen-ematea berretsi besterik ez duzue egin beharko.

Gainerakoek online eman dezakezue izena edo aurrez aurre gaur bertan, urriak 16, herriko plazan jarriko dugun mahaira gerturatuta. Bertan izango gara 18:30etik 21:00etara izen emate

berriak egiten laguntzeko zein zuen galderak erantzuteko. Euskaraldiko materiala ere salgai izango dugu.

Ariguneak dira Euskaraldi honetan berrikuntzetako bat, eta Elgetan hemeretzi izango ditugu. Euskaraldiaren etorrera prestatzen jarraitzeko batzar irekia deitu dugu hilaren 27rako, martitzena. Ozkarbi elkartean elkartuko da, 19:00etan. Gonbidatuta zaudete. Ezarritako protokoloa eta segurtasun neurriak bete beharko dira. Harremanetarako: elgeta@euskaraldia.eus.



LARRAITZ ZEBERIO

'La Reina tortuguera' aurkezten

Carlota Alfaro Ortegak genero erromantikoan eta gazteleraz idatzi berri duen *La reina tortuguera* fikziozko laugarren eleberriaren aurkezpena egin zuten eguaztenean. Udal liburutegian bilduta eta segurtasun neurri guztiak beteta, elgetar ugari gerturatu ziren idazlearen azken lanaren nondik norakoak ezagutzeko asmotan.

OHARRAK

Podologoaren kontsulta, astelehenean

Urriko kontsulta datorren astelehenean, hilaren 19an, izango da, 15:00etan, kultura etxean. Txanda hartu behar da nahitaez, horretarako Maria Asun Agirreri deituta: 652 74 82 33.

Literatur solasaldien izen ematea martxan da

Hitz eta Pitz literatura solasaldien ikasturte berrirako izen ematea zabalik dago. Interesa duten herritarrek liburutegira jo behar dute.

Baserritarren kooperatibak, urteko batzarra

Elgetako baserritarren kooperatibak hilaren 25ean, domeka, egingo du urteko batzar nagusia. Espaloian izango da, 12:00etan.

Azaroan estaliko dute Ugarkaldeko jolas parkea

Aterpeak ez du Kalegoienakoaren antzik izango; material bereziz egindakoa izango da eta aireztatua egongo da, bero egiten duenean itogarria ez dadin izan eta euria egiten duenean babesean egoteko modukoa. Sarrerako ziburuak estaliko ditu

Oihana Elortza OÑATI

Azaroan hasiko dituzte Ugarkaldeko jolas parkea estaltzeko lanak. Proiektua onartuta dago eta lizitaziora atera da. Orain, epe barruan aurkeztu diren proposamenak aztertuko ditu Udalak, eta bat aukeratu lanak egiteko. Asmoa da otsailean bukatzea lanak. Estalpea izango duen bigarren jolas parkea izango da.

Herritarren eskaera

Kalegoiena jolas parkeko ziburuak ere aterpean daude. Ugarkaldekoa bukatzen dutenean, baina, ez du haren antzik izango. "Bertako ezaugarriak izan ditugu kontuan horretarako; gune eguzkitsua dela eta ondoan baserri bat dagoela, esaterako. Estalpea itogarria ez izatea baina aldi berean eurtik babestuko duena izatea gura genuen, eta hori jaso da proiektuan. Effe motako material berezi batekin egindakoa izango da, nahiko altura duena, aireztatpena ber-



Ugarkaldeko jolas parke estaliaren proiektua. OÑATIKO UDALA

matuko duena", azaldu du Izaro Elorza alkateak. Gainera, estalpe horrek ez du jolas parke osoa babestuko; sarrera ondoan dauden ziburuak geldituko dira azpian. Iturri ondoan dagoen jolas elementua, txirrista eta

sokazko pasabidea dituen, aterpetik kanpo geldituko da.

Aurrekontu parte-hartzaileetan herritarrek egindako eskaera izan zen jolas parke bat estaltzearena, eta proiektu hau izango da eskari horren erantzuna.

Ugarkalde auzoko ziburuak eurak ez dituzte aldatuko, baina beharra dagoen jolas parkeetan hori edo bestelako konponketa edo aldaketak egingo dituzte. Esaterako, Errementari plaza-koan lurra aldatu dute uda aurretik, oso zartatuta zegoelako.

Hemeretzi jolas parke

Oñatin hemeretzi jolas parke daude eta horien mantentze-lanetarako dirua jasotzen du urteko Udalak aurrekontuetan; aurtengo 30.000 euro zituen gor-

deta, baina Errementari plazako ziburuetakoa lurra aldatzearekin eta ur parkean egindako egokitzapenekin 42.000 eurora heldu da aurtengo inbertsioa. Udalak urtero egiten du herriko jolas parkeen azterketa, urte hasieran, normalean, eta hor jasotzen dute egin beharreko konponketak zeintzuk diren. Egindako azken azterketan, San Martingo parkean konponketa batzuk egin beharrean daudela ikusi dute, eta hurrengo urtean egingo dituzte horiek.

Sokak dituen kupula Errekalden


Aurrekontu parte-hartzaileetan, 6 eta 14 urte bitartekoendako jolas parke bat ere eskatu zuten herritarrek, eta Errekaldekoa eraberritu eta adin tarte horretarako moduko jolas elementuak han jartzea pentsatu zuen Udalak. Lehen zeuden ziburuak kendu, eta sokak dituen kupula bat jarri dute bertan; hiru arku handiz osatutako estruktura bat da. Zorua ere berria jarri dute. Lanak bukatzean dituzte eta laster egongo da erabilgarri. Lan horien aurrekontua 50.000 euro izan da, BEZa kanpo.

Adin tarte bakoitzak berari dagokien moduko jolas elementuak behar dituela kontuan hartuta, aurrerantzean ere irizpide hori erabiliko du Udalak herriko jolas parkeren bat eraberritzea tokatzen den momentuan. Baita aurretik zer egin den, parke horren inguruan zer dagoen eta inguru horrek zein itxura duen ere.



Sokak dituen kupula. O.E.

GORA ETA BEHERA



Batzuk beste batzuk baino azkarrago

GOIENArekin harremanetan jarrita, horixe salatu du herritar batek, hain zuzen ere, "herrian egiten dituzten pintaketa batzuk beste batzuk baino azkarrago" kentzen dituztela.

EZER TXALOTU EDO SALATU NAHI? berriak@goiena.eus edo 688 69 00 07.

OHARRAK

Erreka garbiketa

Etzi, domeka, egingo da erreka garbiketa, Ibailagun egitasmoaren barruan. 09:00etan elkartuko dira, plazan, handik herriko puntu ezberdinetara joateko. Arropa eroso eta bakoitzak bere eskularruak eramatea aholkatu dute Natur Eskolako langileek.

Traktoreen azterketa

Baserrietan erabiltzen diren ibilgailuei azterketa teknikoa egiteko unitate mugikorra dator. Ez da txandarik hartu behar. Gaur egongo dira: 09:00etan Urriagainen eta 12:00etan Oñati garaje aurrean. Astelehenean Olabarrietan ordu berean.

NIRE USTEZ



JON MIKEL INTSAUSTI

Euskararen gurutze-bidean

Orain astebete bukatu dut gustura leitzen Kike Amonarrizen azken saiakera. Eta honekin etorri zaizkit gogora Xalbadorren bertsoak eta nola irauli den gure gizartea lauzpabost belaunalditan, hein handian euskaldun elebakar izatetik euskarak gero eta garrantzi gutxiago duen gizarte batean.

Bizkarrean daroagun zama ez da makala, eta lan handia dago oraindik euskaraz libre bizi gaitezen: gure aurka egiten ari den euskalkiak vs batua gatazka, euskararen prestigio falta hitzuz zahar eta berriak erakartzearren, are handiagoa dena hirian non biztanle gehien bizi den, Ipar eta Hegoalde banantzen gaituen muga fisiko eta mentala –hain gertu eta hain urrun!– eta egungo mundu globalizatuan, geroa diren gazteen euskal erreferentziaren gabezia, *euskañola* eta *frantseskuara* mihian azaltzen dugun euskara maila eskasa, supremazisten orroak sukaldeko ate joka, hitanoa berreskuratzeko lanak...

Bidegurutzean gaude, aspalditik ere gurutze-bidean; gure esku ere bada gure seme-alabak bide oker honetatik atera daitezten.

Herrian gastatzeko bonuak, eskuragarri

Herriko dendetan eta ostalaritzan erabiltzeko bonuak atera ditu Oñatiko Udalak herritarrendako; lehen bezala, %20ko laguntza emango du Udalak. Internet bidez edo komertzioetan bertan lor daitezke. Urte amaierara arte iraungo du egitasmoak

Oihana Elortza OÑATI

Tokiko merkataritzak eta ostalaritzak duen garrantziaz jakitun eta COVIDak eragindako zailtasunei aurre egiteko, bonuen bidezko laguntza egitasmoa jarri du martxan aste honetan bertan Oñatiko Udalak.

Sistema informatiko propioa

Guztira, 110.000 euro bideratu ditu ekimen horretarako Udalak, 550.000 euroko erosketa mugimendua bideratzeko hirugarren sektorerara. Lehen Kuttuna egitasmoarekin egin zuen moduan, %20ko laguntza emango du Udalak, eta lehen besteko harrera ona izatea espero du. Osasunarekin lotutako zerbitzuetan, hezkuntza ez arautuan eta elikagaien dendetan %5ekoa izango da laguntza.

Horretarako, sistema informatiko propioa garatu du Udalak, eta etorkizunean ere erabiltzeko erreminta izan daiteke. Hala, bonu horiek *Oñati.bonoak.eus* helbidean lor ditzake herritarrek, edo baita ekimenarekin bat egin duen edozein dendatan, tabernatan edo zerbitzutan.

16 urtetik gorakoendako

Bonuen bidezko laguntza horrek baditu muga eta baldintza batzuk, bai herritarrendako eta baita



Hirukar liburu dendako Bilma Soto, *Bonoak.eus* plataforma erakusten. O.E.

dendariendako ere. Esaterako, laguntza hori hamar langile baino gutxiago eta *Oñati.bonoak.eus* webgunean alta ematen duten dendariendako izango da. Bonuak, berriz, Oñatin erroldatutako 16 urtetik gorako edozein herritarrek eskuratu eta eros ditzake, baina 200 euro izan ahal da bonurik handiena eta pertsona bakoitzak 200 euro bakarrik eskura ditzake. Bestalde, bonua ezingo da frakzionatu eta establezimendu bakoitzean 15.000 euro gastatu ahal izango dira, gehienez.

Herriko 58 zerbitzu daude

Joan den egubakoitzean, plataforma horren erabileraren funtzionamendua azaltzeko eta zalantzak argitzeko bi saio egin zituzten udal ordezkariak herriko merkatariekin eta ostalariekin. Eta aste honetan herritarren eskura jarri dituzte bonuak herriko merkataritzari laguntzen laguntzeko. Berez, dirua bukatu arte iraungo du egitasmoak; abenduaren 31ra arte, gehienez ere. Herriko 58 zerbitzuek egin dute bat bonuen egitasmo horrekin, oraingoz.

"Baztertua izan delako ekarri nahi izan dugu Agustin Xaho"

ASISKO URMENETA IRUDIGILEA

Agustin Xahoren inguruko lanarekin dator Oñatira

O.E. OÑATI

Aztihitza ikuskizunarekin dator Asisko Urmeneta (Iruñea, 1965) urriaren 23an Santa Anara, justu lanak aurkezten duen Agustin Xaho euskal kazetaria hil zen egun berean.

Zer kontatu gura duzue ikuskizun honekin?

Duela 200 bat urte, Agustin Xaho zuberotarra etorri zen Nafarroara gerrako kronika egitera, euskaldunak euren eskubide nazionalen alde borrokan ari zirelarik. Egin zuen ibilbide hartan liburu bat idatzi zuen, momentu historiko hura jasoz, Europako beste hainbat borroka ere aipatuz. Eta liburu horretan dago bere tesi politikoaren muina ere.

Bidaia hori kontatzen du *Aztihitza* ikuskizunak?

Bai, baina aitzakia horrekin Xahoren ondarea ere erreparatu gura izan dugu.

Ze ondare da hori?

Egun, baditugu komunikabideak euskaraz, zorionez, baina ez da ahantzi behar Xahok abiatu zuela lehendabizikoa: *Euskal Herriko gazeta*. Dena zegoen euskaraz idatzita. Baionan argitaratu zuen.

Bere diskurtsoa ere azaltzen da ikuskizunean?

Bai. Ikaragarri inportantea izan zen, nire ustez, politika aldetik. Bera ezkertiarra zen bihotzez eta errotik. Baita independentista ere.

Aitor izenaren sortzailea ere bera da, ezta?



Asisko Urmeneta. BLOGSEITB

Bai. Amagoia edo herensugearen mitoa ere bere asmakuntzak dira, adibidez. Bestalde, diskurtso feminista bat ere garatu zuen. Frantziako emakume idazleen elitearekin harreman estua izan zuen eta XIX. mende hasieran idatzitako esaldi feministak argiratu zituen, adibidez.

Zergatik Agustin Xahori buruzkoa?

Gauza askotan nabarmendu zen, baina baztertua izan da. Oñatin ere bide hori egingo duzue? Bai, baina ez dugu bera nor zen kontatuko bakarrik, kantatu ere egingo dugu. Ihintz Iriartek abestu egingo du eta hiru aktore ere etorriko dira: Jean Mari Irigoien, Daniel Arbeletxe eta Maria Ines Gorostiaga. Denon artean kontatuko dugu Xahoren kosmologia; hau da, nola asmatu zuen munduaren sorrera balizko euskaldunen mitologiaren arabera.



ZERGA, KONTABILITATE ETA
LAN ARLOKO AHOLKULARITZA

ABOKATUAK
KONTU IKUSKARIAK

Bezero guztien beharrei erantzuteko prest!



Euskadi Etorbidea, 6 (OÑATI) • 943 78 16 48 • onati@gualbiasesores.com • www.gualbiasesores.com

"Bizikletaz gehiago disfrutatuko dut orain"

GARAZI EROSTARBE TXIRRINDULARI OHIA

Sei urte egin ditu oñatiarrak errepidean entrenatzen eta txirrindularitza lasterketetan parte hartzen, baina konfinamenduan ez du ondo pasa eta uztea erabaki du

Oihana Elortza OÑATI

Txirrindularitza uztea erabaki du Garazi Erostarbe Ugarte (Oñati, 2000). Sei urtez ibili da bizikleta gainean errepidean, eta helmugara heldu da, ez du lehiatzen jarraitu gura.

Konfinamenduak du erabakiaren errua?

Uste dut denoi egin digula min konfinamenduak. Pandemia honek osasun arloan sortu die kaltea askori eta buruan beste askori. Itxialdian entrenamenduak oso gogorak egin zaizkit, oso. Ordu asko bizikleta gainean bakarrik, barruan, eta ez naiz gustura ibili, ez da erraza izan.

Eta horrela sentitu zara errepidera itzultzean ere?

Itzuli naiz errepidera, bai, baina ez nik gura nuen besteko mailarekin. Hori ikustea oso gogorra egin zait, eta horregatik hartu dut erabaki hau.

Erabaki zaila?

Bai. Askok galdetu didate amorrua edo nazka hartu ote diodan txirrindularitzari, baina ez da horrela, ez. Egindako sakrifizioak, lanak, merezi ote duen galdezka hasi nintzen.

Handiegia da sakrifizioa etekinarendako?

Txirrindularitza oso gogorra da, beste kirol asko moduan. Hori denok dakigu. Sakrifizio handia eskatzen du, eta heltzen da puntu bat lan horrek, sakrifizio horrek, ez dizula konpentsatzen kirolak ematen dizunarekin. Beste gauza batzuk egiteko gogoia ere banuen, eta, azkenean, erabaki dut bizikleta utzi eta beste modu batera disfrutatzea.

Zenbat aukera eman diozu zeure buruari txirrindularitzan jarraitzeko behin konfinamendua bukatuta?

Entrenamenduekin eta elikadura zainduta duela bi urteko saioa ez nuela hartzen hasi nintzen ikusten, eta horrek buruan buelta asko ematen zizkidan. Egia da talde handi batera egin nuela salto, Sopelako Ugeraga



Garazi Erostarbe txirrindulari ohia. MIREIA BIKUÑA

"KONFINAMENDU OSTEAN EZ NUELA HOBETZEN IKUSI NUEN, ETA HORREK MIN HANDIA EGIN ZIDAN"

taldera, oso pozik nengoen, sekulako ilusioarekin joan nintzen talde berrira. Izan nuen aukera han debutatzeko, nire maila erakusteko eta taldekideei ahal nuen mailan laguntzeko, baina pandemiak zeharo aldatu zuen egoera. Ordu asko arrabolean eta buruan galdera eta buelta ugari. Errepidera atera ginenean saiatu nintzen ahalik eta ondoen egiten gauzak, gogor entrenatzen hasi nintzen, baina, zertxobait hobetu arren, ez nuen aparteko aurrerapenik ikusten; nik gura nuen hobekuntza, alegia.

Psikologikoki min egin zizun?

Bai, psikologikoki min handia eman zidan lehen nuen maila ez hartzeak eta, batez ere, nik gura nuen hobekuntza maila hori ez ikusteak.

Horixe izan zen erabakiaren unea?

Bai, zeharo desmotibatuta nengoen, gogo barik, eta orduan

hartu nuen txirrindularitza uzteko erabakia.

Zer esan dizute etxekoek? Inguru-koek? Nola hartu dute erabakia?

Sei urte egin ditut errepidean, eta ez da erraza izan erabakia hartzea, baina denbora asko egin dut horren inguruan pentsatzen. Banekien etxekoek babestuko nindutela. Gogorragoa egiten zitzaidan taldean esatea. Berrira nintzen, konfiantza jarri zuten nigan, eta erabakia nola hartuko zuten kezkatzen ninduen. Baina oso ondo hartu zuten nire erabakia. Ondo atera da dena, eta lasaitua hartu dut.

Lasterketak utzi dituzu, baina jarraituko duzu bizikletan ibiltzen?

Bai, bai. Hemendik aurrera gehiago disfrutatuko dudala uste dut, gainera. Gustukoa dut txirrindularitza eta jarraituko dut bizikleta gainean, bai.

Zer da txirrindularitzak eman dizun onena eta zer txarrena?

Ba, asko eman dit, egia esan, baina, bat aukeratzekotan, egindako lagunak esango nuke. Kendu ere egin dit; lagunekin egiteko momentuak, adibidez, baina neuk gura nuelako egiten nuen eta lagunak beti ulertu dute ondo.

Saskibaloia taldeak Zubikoan hasiko du denboraldia, bihar

Saskibaloiko Mekalki Aloña Mendi taldeak asteburu honetan hasiko du aurtengo denboraldia eta etxean jokatu du lehen partidua: Zubikoan izango da, zapatuan, 18:00etan. Irungo Erroibide izango da talde aurkaria. Ikusleak sar daitezke kantxara.

Mekalki Aloña Mendik taldeak joan den denboraldiko kategoria berean jokatu du, Euskadiko

gizonezkoen bigarren mailan, eta dagoeneko ezagunak zaizkien taldeak izango ditu aurkari. Tartean, Arrasateko Alkideba Ointxe; Debagoieneko taldeen arteko derbia. Hain zuzen ere, lehen itzuliko azken partidua izango da talde bien artekoa, otsailaren 7an, Arrasaten, eta denboraldiko azkena Zubikoan jokatu dutena izango da, maiatzaren 16an. Beraz, aurtengo denboraldia etxeko zaleen aurrean hasi eta bukatuko dute Aitor Ugarteren mutilek.

Kirol eskoletarako izen ematea zabaldu du Aloña Mendik

Zabalik dago Aloña Mendiko sail ezberdinetako kirol eskoletarako izen ematea. Aste honetan zabaldu dute eta urriaren 23a izango da izena emateko azken eguna. Aurten, Internet bidez egin beharko da, online, www.aloñamendi.eus webgunean sartuta.

Aloña Mendiko hamaika sailek eskainiko dute kirol eskola ikas-

turte honetan: saskibaloia, karatea, atletismoa, gimnasia erritmikoa, pilota, eskubaloia, tenisa, futbola, txirrindularitza, orientazioa eta patinajea.

Azaroaren 2an hasiko da aurtengo kirol eskolaren ikasturtea eta aste horretan ekingo diete sail gehienetako saioei; txirrindularitzak azaroaren 16an abiaraziko du kurtsoa. Hain zuzen, herriko lau gune nagusi hauetan izango dira saioak: Zubikoan, Larrañan, Azkoagainen eta San Martinen.

250 lagun sartu ahal izango dira Azkoagainera

Asteburu honetan hasiko dute denboraldia federatuta dauden Aloña Mendiko futbol taldeek eta sail horretako zuzendaritzak neurri batzuk hartu ditu partiduei begira. Esaterako, erabaki du Azkoagainen jokatu diren partiduetara joateko aukera izango dutela zaleek. Indarrean dagoen legediaren arabera, kirol instalazioetan berari dagokion

edukieraren %60 betetzeko aukera egongo da; 250 lagun, denak eserita. Zelaiaren bueltan eserlekuak jarriko dituzte, baina norberak eraman beharko du eserleku gainean jartzeko plastikoa, kuxina edo dena delakoa. Gainera, bazkideek lehenetsuna izango dute eta bazkideei eskatu diete txartela eramateko partidu guztietara. Datozen eguntan banatuko dituzte txartelak; aurten, 15 euro gutxiago kobratuko dute, joan den denboraldiko kuota konpentsatzeko.

Ez dago tokirik biharko trikiti jaialdia zuzenean ikusteko

Aurreko urteetan gertatu den bezala, aurten ere azkar agortu dira trikiti jaialdia ikusteko sarrerak; urriaren lehen jarri zituzten salgai eta ordu gutxian agortu ziren denak. Lizargarate Trikitizale Elkarteak antolatuta du aurtengoa ere eta "maila handiko" jaialdia izango dela aurreikusitako dute. Erromeria da aurtengo gaia.

Garmendia eta Plazaola ikusteko gogoz dago jendea

Losers antzezlanarekin datoz Aitziber Garmendia eta Jon Plazaola aktoreak urriaren 25ean Santa Anara. Azkar agortu ziren iluntzerako iragarri zuten saiorako sarrerak eta arratsalderako beste bat prestatu zuten gero. Bigarren horretarako sarrerak salgai jarri eta ordu erdian agortu ziren. 132 ikusle egongo dira ekitaldi bakoitzean.

ASTE HONETAN

**Jon
Basaguren**

Musikaria

**"Oso
anbizio
txikiak
ditut"**

ttop

Irakurri, ukitu,
ikusi, entzun.

DOAN

Euskarazko aldizkari digitala,
deskargatu astero zure
mugikor edo tabletan

 **DESKARGATU**
Play Store-n

 **DESKARGATU**
APP Store-n



Bergarak Hernaniren kontra urtarrilean jokatu zuen partiduaren irudi bat. I.SORIANO



Leintz Arizmendiko Etxeandia, Realaren kontra jokaturako partidu batean. I.SORIANO

Kontrarioari irabazi eta birusa saihestu, hastera doan ligako erronkak

FUTBOLA Oraingo asteburuan hasiko dituzte Gipuzkoako txapelketako kategorietako ligak. Leintz Arizmendiko neskek, berriz, Euskal Ligan dihardute eta urriaren 31n hasiko dira. Hasteko gogoz daude, eta, aldi berean, ziurgabetasuna dute denek

Xabier Urzelai ARRASATE

Hastera doa futbola, eta ikuste-ko dago zenbat irauongo duen. Egunerokoak erakusten du jardunaldiek aurrera egin ahala positiboak han eta hemen egongo direla, eta ez bereziki futbollean kutsatzeak egon direlako.

Bergarak nahiko denboraldi-aurre txukuna egin du, Mondrak bi talde nagusiak izan zituen hamar egunez konfinatuta jokalarietako batek positibo eman zuelako, eta halaxe egon dira Aloña Mendiko jokalariek ere. "Ondokoa egoera horretan ikusten duzunean edo zuri tokatzen zaizunean, ez duzu modu berean bizitzen. Ez da izan egoera samurra", dio Endika Ruizek.

UDAKo hamabost bat jokalariek denboraldi-aurrean zehar bizpahiru eguneko itxialdiak egin behar izan dituzte gertukoren batek positibo eman duelako,

eta ondoren egindako PCR proba guztiek negatibo eman dute. Orain momentuan, Eibarko Urko taldeko zenbait jokalariek konfinatuta daude, eta, hain zuzen, talde horren kontra jokatu behar du domekan Bergarak -16:30, Agorrosin-: "Oraingoz, dakiguna da domekan partidua jokatzeke moduan egongo direla, goiko taldearekin, Vitoria taldearekin entrenatu direnak bakarrik daudelako konfinatuta, ez talde osoa", dio talde mahoneroko entrenatzaile Jose Javier Barkerok.

UDA-K ETA BERGARAK ETXEAN JOKATUKO DUTE ETA ALOÑA MENDIK, ELGOIBARREN

Hain zuzen, birusak eraginda hartu duten erabakietako bat izan da Ohorezko Erregionala bi multzotan banatzea, eta lau talde debagoiendarrak multzo berean sartu dituzte. "Derbiek beste saltsa bat izaten dute, eta alde horretatik polita izango da", dio Mondrako entrenatzaile Asier Olaizolak.

UDAKo entrenatzaile Mikel Larburuk garbi dauka eurak ez direla profesionalak, eta jokalariek kezka adierazi dute futbolaren bueltako konfinamenduek ikasketetan edo lan jardunean izan dezaketen eraginagatik: "Taldea guztietan kudeatu beharko dugun kontua da hori".

Hala, UDAK Mutriku hartuko du domekan Ibarren (16:30) eta Aloña Mendik Elgoibarren jokatuko du domekan (17:00). Azkenik, Mondrako jokalariek atsedena izango dute.

Ibarreko entrenatzaileen esanak:



J. Javier Barkero (Bergara)

"Ilusioarekin gaude, eta iazkoa hobetzea da helburua, iaz beheko postuetan ibili ginen eta. Denboraldi-aurre ona egin dugu, eta inork ez du minik hartu, baina egia da birusa dela-eta adi-adi ibili beharko dugula denok".



Mikel Larburu (UDA)

"Urte berezia izan behar da eta ziurgabetasun handia dago. Nahiko denboraldi-aurre txukuna egin dugu, baina birusak erabat baldintzatu dezake denboraldia. Sikiera, erabil dezagun futbola egunerokotik ihes egiteko".



Asier Olaizola (Mondra)

"Denboraldi-aurre gorabeheratsua izan da, konfinatuta ere egon gara... Eta liga hasiera arraroa izango da hau. Multzoan bederatzi taldetatik lau bailarakoak gara, eta horrek bizitasuna emango dio lehen faseari".



Endika Ruiz (Aloña Mendi)

Pazientzia handia izan beharko dugu. Birusagatik konfinatuta egon behar izan dugu jada, eta galdera asko egiten dizkiozu buruari. Hori ondo kudeatzen duenak, momentu gogorretan aurrera egiten duen taldeak asko izango du irabazita.

Multzo ezberdinetan dira ibarreko bi talde nagusiak

ESKUBALOIA Aldaketekin dator aurten gizonezkoen senior mailako Euskal Liga: orain arte elkarren artean lehiatzen ziren 16 taldeak bi multzotan banatuko dituzte. Hala, A taldean jokatu du Fagor Industrial Aloña Mendik eta B taldean Mugarri-Ingouk

Hasier Larrea ARRASATE

Euskal Liga erdibitza eragin du koronabirusak. Ondorioz, Aloña Mendiren eta Mugarri-Ingou Arrasateren arteko derbiri ez da jokatu. Ez, behintzat, lehenengo fase honetan. Txantxikuei A taldean lehiatzea egokitu zaie; sarrailagileei, ostera, B taldean. Klub bakoitzak beste zazpi talderekin neurtuko ditu indarrak joaneko eta itzulera neurketetan, eta multzo bakoitzeko lau onenak sailkatuko dira iguera fasean. Ligaxka bakoitzean bosgarren eta zortzigarren postuen artean gelditzen diren taldeek, beraz, jaitziera fasea jokatu dute elkarren artean.

Biak ala biak, Bilbon

Liga hasiko dute asteburuan, eta Bizkaiko hiriburura bidaiatzea tokatuko zaie bailarako senior mailako eskubaloi jokalariei. Arrasatearrak Bilboko erdigunera joango dira, Escolapios-en aurka jokatzera. Izen bereko eskolan lehiatuko dira bi taldeak zapatu arratsaldean, 20:15ean hasita. Fagor Industrial Aloña Mendikoak Loiura joango dira, Urdaneta-aren aurka lehiatzera. Norgehiagoka hori zapatuan jokatu dute baita ere, 16:30ean hasita. Bailarako eskubaloi taldeek ligako lehenengo puntuak urratzen saiatuko dira Bizkai aldean, beraz.

Federazioaren protokoloa

Euskal Eskubaloi Federazioak partidak COVID-19agatik eteteko prozedura kaleratu du. Horren arabera, kaltetutako klubak positiboa zein egunetan atzeman den zehazten duen ziurtagiria bidali behar dio Federazioari, eta, kasuaren arabera, lehiaketa batzordeak partida atzeratzeko edo bertan behera uzteko erabakia hartuko du. Bigarrena aukeratzekotan, jokoan zeuden puntuak jokatu partiden eta eskrutatuko puntuaren koefizientearen arabera banatuko lirateke. Egoera berrira moldatzea izango da aurtengo denboraldiko erronketako bat.

SASKIBALOIA MUKo eta Eskoriatzako neskek etxean dute hitzordua

Emakumezkoen senior mailan Eskoriatza eta MUren talde sortu berria izango dira aurten. Eskoriatzarrak Antigua-Luberriren aurka arituko dira Manuel Muñoz kiroldegian gaur, ostirala, 20:15ean hasita. Ligako bi partida jokatu ditu taldeak da-goeneko, eta horietako bat irabazi du. Mondragon Unibertsitateak, berriz, Oiarso jasoko du


Iturripen domekan (17:00). Ligako bigarren garaipena eskrutatzen saiatuko dira.

EBAko MUK Gasteizen du lehen Gizonezkoen kasuan, etxetik kanpo jokatu du MUK. EBA ligari dagokion norgehiagoka hori Gasteizko Baskoniaren kantxan izango da, domeka goizean, 12:00etan hasita. Aurreko astean jokatu zen Euskal Kopak utzitako zapore mingotsa kentzeko ahalegina egingo dute Ointxe!-ko mutilek.

Emakume Master Cup-eko izen-ematea, inoizko handiena

PILOTA COVID-19ak ere ezin izan du Laboral Kutxa Emakume Master Cup txapelketaren hazkunde eten, eta inoiz baino parte-hartze handiagoa izango du aurtengo lau eta erdikoak.

Larrabetzun jokatu dituzte, zapatuan, lehenengo partidak eta abenduaren 13an izango da finala, Balmasedan. Guztira, 92 pilotarik eman dute izena.



Emakumea pilotan. GOIENA

GOIENA TELEBISTA
UDAZKENEKO
PROGRAMAZIOA



ORAIN ERE,
%100 EMATEN

HARIRA

MARTITZENETAN, 21:30EAN ETA 23:30EAN

Bueltan da Harira,
Debagoieneko alkateekin.

Proiektuez, asmoez, COVID-19ak
baldintzatutako urteaz eta
agintaldiaz, udalaz, eta abarrez
hitz egingo dugu.

Zuk ere egin ditzakezu galderak.

BIDALI GALDERA:

BERRIAK@GOIENA.EUS

688 59 00 07



GORKA
ARTOLA
BERGARA



IZARO
ELORZA
OÑATI



UNAI
ELKORO
ARETXABALETA



JOSERRA
ZUBIZARRETA
ESKORIATZA



BEÑARDO
KORTABARRIA
ANTZUOLA



IRAITZ
LAZKANO
ELGETA



LIERNI
ALTUNA
ARAMAIO



EUGENIO
OTSOA
LEINTZ GATZAGA

goiena
20 URTE ZUEKIN

"Niretzat hunkigarria da Bergaran aritzea"

OSCAR CANDENDO ORGANO JOLEA

Ana Otxoa sopranoarekin batera eskainiko du emanaldia Oscar Candendo organo-jole antzuolarrak. XXI. Organo Erromantikoaren zikloaren baitan izango da bihar Bergaran

Jone Olabarria DEBAGOIENA

Antzuolarra jaiotzez, herriko elizan zegoen organoan egin zituen Oscar Candendok egun ofizio duen arloan lehen pausoak. Gaur-gaurkoz, Bartzelonan organo irakaslea da, baita Artzain Onaren parrokiako organo jotzailea ere. Organo Erromantikoaren XXI. Zikloaren baitan, emanaldia eskainiko du bihar antzuolarrak, Bergarako Santa Marina parrokiaren. Ana Otxoa sopranoarekin batera arituko da, 20:00etan hasita.

Bailaran bertan egin zenituen musika arloko lehen ikasketak...

Mutiko guztiak herriko organo jotzailearengana joaten ginen Antzuolan, solfeoa ikastera. On Simon zenarengandik jaso nituen musika arloko lehen eskolak, eta, ostean, Bergaran ikasi nuen, egun Mariaren Lagundia denean. Hainbat mojak formakuntza bikaina zuten musikan, eta bertan ikasi nuen pianoa. 10 urte nituela Donostiara joan ginen bizitzera familia osoa, eta bertako Santa Maria amaren basilikan ikasi nuen organoa, Jose Manuel Azkueren eskutik; Espainian zegoen organo jotzaile onenetakoa zen. Zorte handia daukagu Gipuzkoan, maila handiko musikariren lekua da eta.



Oscar Candendo antzuolara organo irakaslea da Bartzelonan. o.c.

"ORGANO-JOLE GUZTIOK SAN PEDRO PARROKIAKO ORGANOA JO NAHIKO GENUKE BERGARAN"

Ostean, Donostiatik kanpo egin zenituen organo ikasketak...

Karrera ofiziala Frantzian eta Alemanian egin dut. Hala ere, Montserrat Torrent organo irakasle kataluniarrarekin ere aritu naiz ikasketak egiten.

Zer-nolako lana da organo jotzailearena?

Ia organo guztiak elizetan daude, eta horrek ondarea ezagutzeko aukera izugarria eskaintzen dizu. Niretzat oso lan polita da, artearekin harreman estua dugu; katedral ezagun eta preziatuetan jotzeko eta beren arkitektura, pinturak ezagutzeko aukera ematen dit ofizio honek.

Zapatuan Santa Marina parrokiaren izango zara; zer moduzkoa da?

Bergarak duen ondarea oso aberatsa da: elizak, jauregiak, dorretxeak... Zoragarria iruditzen

zait. Gaztea nintzenean ez nuen hain polit gogoratzen, dena ilunagoa zen, baina urte gutxian buelta ematea lortu du herriak. Santa Marinari dagokionez, iluminazio bereziko parrokiak dela iruditzen zait; asko igartzen da argitasunaren gorabehera bertan, nola sartzen den barrura.

Hainbatetan egon zara Organo Erromantikoaren Zikloaren baitan Bergaran. Zer garrantzi du?

Nik harreman estua dut herriarekin, niretzat beti da hunkigarria Bergaran aritzea. Egia da San Pedroko organoa jotzea dela kasu honetan organo jole guztiok nahiko genukeena, baina, tamalez, une honetan ez dago erabilgarri. Beti diot Santa Marinako organoak duen arazo bakarra dela San Pedrokoa ondoan delako. Santa Marinako organoa beste edozein lekutan balego, ikaragarria zela esango genuke, baina, kasu honetan, herriko beste parrokiako organoak itzala egiten diola iruditzen zait.

Zapatuko kontzertuaren kasuan, zer entzungo du gerturatzen denak?

Ana Otxoa abeslari sopranoa eta ni programa erakargarria prestatzen saiatu gara; hori zen asmoa, behintzat. Guretzat ere ez da programa zaila prestatu duguna, eta, entzuleari dagokionez ere, publiko guztientzat zuzendua da, baina, aldi berean, kalitatezko musikariren sorkuntzak dira. Bidelagun izango duen Ana Otxoa sopranoari dagokionez, oso ona da.

Nolako harrera izaten dute zikloaren baitako kontzertuek?

Joan den zapatuan, antzerako saio bat eskaini genuen Azkoitian, eta oso harrera ona izan zuen, publikoa pozik geratu zen. Nik oso gustura lantzen ditudan programak izaten dira, eta publikoak ere eskertzen ditu.

Azaroaren 4tik 8ra bitarte egingo dute Beratu jaialdia

Oñatiko hainbat gunetan izango dira kontzertuak eta sarrerak aurretik hartu beharko dira, nahitaez

J.O. OÑATI

"Nortasun propioa" eskuratu du Beratu jaialdiak 2018. urtean lehen edizioa ospatu zenetik. Honela azaldu dute antolakuntzako kideek: "Irekia dagoen lan talde finko bati esker Euskal Herriko musika jaialdi txikien zirkuituan leku bat egitea lortu du". Azaroaren 4tik 8ra egingo dute, Osasun Sailak eskatutako protokoloak beteta: edukiera mugatuta, eserita eta maskara jantzita. Sarrerak alde aurretik erosi edo erreserbatu beharko dira. Prezioa 7 euro izango da Santa Ana antzokiko emanaldietan eta doakoa azaroaren 8ko kontzertuetan.

